



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.  
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

771da6e15b58120ab17a77b26c075ec13b1f47b7503340d910ddaa9e3fe60c8b

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

## **TOLOSAKO UDALBATZAK 2022KO UZTAILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

**2022.07.28**

Tolosako Udaletxean, 2022ko uztailaren hogeita zortzian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeke, udal batzarkide hauek agertu dira:

### **Alkate-lehendakaria:**

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

### **Parte hartu duten zinegotziak:**

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV).  
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)  
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)  
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)  
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)  
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)  
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)  
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)  
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)  
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)  
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria (PSE-EE)

### **Boto-eskuordetza (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 25.6 artikulua) :**

Ander Figuerido Zubiria zinegotziak du Kristina Pelaez Errazquin andrearen boto-eskuordetza



**Idazkaria:**

Begoña Garmendia Vazquez

**Kontuhartzaile akzidentala:**

Paulino Alonso Eraso

**Gai-zerrenda**

1. Akta hau onartzea:  
2022ko maiatzaren 26ko Ohiko Osoko Bilkurakoa (akatsen zuzenketa).  
2022ko ekainaren 30eko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Onartzea Ander Lucas Aranceta udal langileak eskaturiko bateragarritasuna.
3. Onartzea Tolosako Udaleko iruzurraren aurkako plana.
4. Onartzea Tolosako Udalak TOLARGI B.M. udal sozietateari egindako kudeaketa-aginduaren amaiera.
5. Hasierako onarpena ematea Euskal Herria plazako 1 zenbakian dagoen eraikinaren zuzeneko administrazio-emakidarako espedienteari.
6. Onartzea pertsonalaren hautaketa prozesuetan parte hartzeko eskaera egiten dutenei tasa ezartzea.
7. Hasierako onarpena ematea konpromiso kredituak onartzeko 1/2022 espedienteari.
8. Hasierako onarpena ematea 2022 dirulaguntzen eranskina aldatzeko 2-2022 proposamenari.
9. Onartzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren hasiera data.
10. Uzturre asistentzia guneak eskaintzen dituen zerbitzuen tarifak eguneratzea: 2018-2019-2020 eta 2021 urteak.
11. Onartzea 2021eko Tolosako Udaleko Sektore Publikoaren Kontu Orokorra.
12. Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programako oinarriak arautzen dituen ordenantzaren aldaketaren hasierako onespina.
13. Hasieraz onartzea Etxebizitzak eta Bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko udal ordenantza
14. 9/2022 Kreditu aldaketarako espedientearen berri ematea, kreditu gehigarrien modalitatekoa.
15. 2021eko finantza kontroleko urteko planaren berri ematea.
16. Eragozpen edo ingiren kontrako ebazpenen urteko txostenaren berri ematea.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:



## **1. AKTA HAUEK ONARTZEA:**

### **2022KO MAIATZAREN 26KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA (AKATSEN ZUZENKETA).**

Bilkura honetako 3. eta 4. puntuetan bozkatu ziren Antolakuntza Batzorde Informatiboak 2022ko maiatzaren 18an diktaminaturiko gaiak:

**3. Onartzea 2022/2023 ikasturteko prezio publikoen aldaketak: Euskaltegia, Kultur tailerrak eta Musika Eskola.**

**4. Emeterio Arreseko tabernako prezioak eguneratzeko proposamena.**

Bi irizpen hauetan, botoak jasotzerakoan Garbiñe Marzol zinegotziaren botoa bi aldiz agertu zen. Hala ere, Estitxu Kortejarena Ugarte zinegotzia ez da agertzen bi irizpenen bozketetan, nahiz eta bilkuran parte hartu.

**Honako zuzenketa proposatzen da:**

**Azaltzen da:**

**Aldeko botoak:** *Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol, Ander Figuerido eta Garbiñe Marzol Ormazabal. Aho batez onartu da.*

**Jarri behar du:**

**Aldeko botoak:** *Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido eta Garbiñe Marzol Ormazabal. Aho batez onartu da.*

Zuzenketa hauek egin ondoren, Udalbatzaren Osoko Bilkurako kideek aho batez onartu dute 2022ko maiatzaren 26ko ohiko osoko bilkurako aktaren zuzenketa.

### **2022KO EKAINAREN 30EKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA.**

Akta honetan, idazkariak honako zuzenketa hau egitea eskatu du:

**2. puntuko bozketak soilik jaso behar du korporazioko kideen botoa, eta ez udal taldeen botoen adierazpena. Izan ere, boto-eskubidea korporazioko kideei dagokie, eta ez udal taldeei.**



Zuzenketa hau egin ondoren, Udaltzaren Osoko Bilkurako kideek aho batez onartu dute 2022ko ekainaren 30eko akta zuzenduta.

## **2. ONARTZEA ANDER LUCAS ARANCETA UDAL LANGILEAK ESKATURIKO BATERAGARRITASUNA.**

Udaltzako kideek honako irizpen hau aztertu eta bozkatu dute:

### **ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2022KO UZTAILAREN 20KO IRIZPENA**

Ander Lucas Aranceta udal langileak bateragarritasun eskaera bideratu du 2022ko irailetik 2023ko abuztua bitartean Deustuko unibertsitatean irakasle gisa aritzeko astean bi arratsaldetan (astelehenean eta asteazkenean, 16:00etatik 18:00etara).

#### **LEGE XEDAPENAK ETA GAIAREN AZTERKETA**

**Lehen.**- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena bere 145 artikuluan xedatzen du:

“Toki-administrazioko funtzionarioen bateraezintasunen araubidea abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Estatuak toki-administrazioko funtzionarioei aplikatzeko ematen dituen arauetan funtzio publikorako oro har ezarritakoa da.”

Ildo beretik, 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunak arautzen dituena, bere 2.1 c) artikuluan xedatzen du lege hau aplikagarri izango zaiela adierazten du toki-korporazioen zerbitzura dauden langileei.

**Bigarrena.**- 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzkoak ere, bateragarritasun jarduera publiko edo pribatu batean egiten den desberdintzen du; kasu honetan, jarduera pribatua hezkuntza alorrean lan egiteko eskaera egiten du.

Legeak 12. artikuluan, jarduera pribatuan aritzeko, honako baldintza hauek eskatzen ditu:

“2. Las actividades privadas que correspondan a puestos de trabajo que requieran la presencia efectiva del interesado durante un horario igual o superior a la mitad de la jornada semanal ordinaria de trabajo en las Administraciones Públicas sólo podrán autorizarse cuando la actividad pública sea una de las enunciadas en esta Ley como de prestación a tiempo parcial.”



Kasu honetan, interesdunak goizeko txandan lan egiten du eta ez luke oztoporik izango Udaleko jarduera publikoa eta arratsaldeko jarduera pribatua bateragarri egiteko. Zentzu honetan, Gizarte zerbitzuetako buruak aldeko txostena egin du, beti ere lan ordutegia osatuko duela bermatzen badu.

**Hirugarrena.-** Nahiz eta jarduera pribatuei buruz ezer ez den zehazten, jarduera publikoak arautzerako garaian, unibertsitateko irakasle izateko zenbait supostu bateragarria izan daitezke bigarren jarduera gisa. Aipaturiko legearen 4. artikulua honakoa xedatzen du:

“1. Podrá autorizarse la compatibilidad, cumplidas las restantes exigencias de esta Ley, para el desempeño de un puesto de trabajo en la esfera docente como Profesor universitario asociado en régimen de dedicación no superior a la de tiempo parcial y con duración determinada.

.../...

Recíprocamente, a quienes desempeñen uno de los definidos como segundo puesto en el párrafo anterior, podrá autorizarse la compatibilidad para desempeñar uno de los puestos docentes universitarios a que se hace referencia. “

## PROZEDURA

Prozedurari dagokionez, bateragarritasun eskaera onartzea edo ukatzea, abenduaren 26ko 53/1984 Legaren 14 artikulua baitan, **Udalbatzari** dagokio.

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Xarles Iturbe Pasaban, Begoña Tolosa Mendia, Jose Mari Villanueva Tellería, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Estitxu Kortejarena Ugarte.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-** Ander Lucas Aranceta udal langileari bateragarritasun eskaera onartzea Deustuko unibertsitatean irakasle lanak arratsaldez egiteko (astelehenean eta asteazkenean, 16:00etatik 18:e00tara).

**Bigarrena.-** Bateragarritasun baimenean onartzen diren baldintzak aldatzen badira, Udalari hauen berri eman beharko dio, hauek berriro aztertu eta dagokion ebazpena eman dezan.

**Hirugarrena.-** Akordioa interesdunari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturatuta), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Ander Lucas Arancetaren bateragarritasun eskaera.

### **3. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO IRUZURRAREN AURKAKO PLANA.**

Udalbatzako kideek honako irizpena aztertu eta bozkatu dute:

## **ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2022KO UZTAILAREN 20KO IRIZPENA**

### **I. AURREKARIAK ETA OINARRI JURIDIKOA**

Europako Kontseiluak onartu zuen, 2020ko ekainaren 21ean, Next Generation EU programa sortzea. Programa hori pizgarri ekonomikora bideratutako tresna da, eta Europar Batasunak bere gain hartutako finantza-arloko neurririk garrantzitsuenetako bat da, 2020an COVID-19ak eragindako aurrekaririk gabeko krisiari erantzuteko. Datozen urteetan ere izango ditu ondorioak programa horrek. Next Generation EU finantza-tresnak, Europako Kontseiluak 2020ko uztailaren 21ean onetsiak, bere baitan hartzen du, elementu nagusi gisa, «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismo» bat (hemendik aurrera, SEM): haren helburua da Batasuneko estatuetan inbertsioa eta erreformak bultzatzea, hala, susperraldi jasangarri eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, justizia sozialean oinarritutako hainbat erreforma ahalbidetzea, bai maila nazionalean, bai eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoekin gobernantza partekatuan. SEM Berreskuratze Funtsaren zuzkidura osoa 672.000 milioi eurokoa da; horietatik 360.000 milioi maileguetara bideratzen dira eta gainerako 312.000 milioiak itzuli ezin diren transferentziak izango dira.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren bidez ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa da Suspertze Funtsaren muina. Haren helburua da Europar Batasuneko estatuetan inbertsioa eta erreformak bultzatzea, suspertze iraunkorra eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, Europar Batasunaren lehentasun ekologikoak eta digitalak sustatzea.

ESKU0c9dfdf8a-d586-4112-bcd0-876d53677d73



SEMek honako lau helburu nagusi hauek ditu: Europar Batasunaren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa sustatzea; Europar Batasuna osatzen duten estatu kideen erresilientzia eta doitzeko gaitasuna indartzea; COVID-19aren krisiaren ondorio sozial eta ekonomikoak medeatzea; eta trantsizio ekologiko zein digitalari laguntza ematea. Horiek guztiak bideratuta daude EBko ekonomien hazkunde-potentziala berreskuratzen, krisiaren ondoren enplegua sortzeko politikak sustatzera eta hazkunde jasangarria bultzatzera.

Helburu horiek lortzeko, Europar Batasuneko estatu kide bakoitzak suspertze eta erresilientzia plan bat diseinatu behar du, helburu horiek lortzeko behar diren erreformak eta inbertsio-proiektuak jasoko dituen. Espainiar Estatuko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak (aurrerantzean, SEEP) zeharkako lau ardatz ditu, 10 politika-palankatan egituratuta, eta horien barruan hogeita hamar osagai biltzen dira, Planaren inbertsioetarako eta erreformetarako programa koherenteak artikulatzea ahalbidetzen dutenak:

- Trantsizio ekologikoa.
- Eraldaketa digitala.
- Gizarte- eta lurralde-kohesioa eskuratzea.
- Genero-berdintasuna.

SEEPn planteatutako ekimenak ezarritako epean gauzatzeko (2021etik 2026ra), inplikaturako administrazio publikoek hainbat neurri hartu behar dituzte, besteak beste:

- Planean sartutako proiektuen kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitzea.
- Kudeaketa-sistema bat konfiguratzea eta garatzea, Europako Batzordeko zerbitzuei egindako ordainketa eskaerak modu eraginkorrean izapidetzeko, eskatutako estandarrak errespetatuz, bai ikuspegi formaletik, bai operatibotik.
- Iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken aurkako prebentzio-, detekzio- eta borroka-mekanismoak indartzea, iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017/1371 Zuzentarauaren (EB) arabera definituak. Zuzentaru horren transposizioa egiteko epea 2019ko uztailaren 6an amaitu zen.

Toki-erakundeek, SEM mekanismotik datozen diru-funtsekin osorik edo partzialki finantzaturako proiektuen onuradunak diren aldetik, HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikulua bete beharko dute. Honela xedatzen du artikulua horrek:

«Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua Espainiari Suspertze eta Eraldatze Mekanismoko diru-funtsen onuradun gisa Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko ezartzen dizkion betebeharrak betetze aldera, SEEP programako neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok dagozkion arauekin bat datozen neurrien plan bat eduki beharko du, eta plan horrek aukera eman



beharko du iruzurraren aurkako zer neurri aplikatu behar dituen eta zer neurri aplikatu behar zaizkion adierazteko».

Era berean, irailaren 10eko ICT/949/2021 Aginduak, zeinak arautzen baititu merkatuei, merkataritza-hiriguneei, sedentarioa ez den merkataritzari eta merkaturatze-kanal laburrei laguntzeko laguntza-lerroaren oinarriak, 29.2.f) artikuluan, eta 2021. urterako deialdia egiten duenean, SEEPn esparruan, hau adierazten du: erakunde onuradunek, 5.f) artikuluan aurreikusitako betebeharrak betetzeaz gain, bermatu beharko dute gastuen erregulartasuna ere, eta neurriak hartu beharko dituzte ustelkeria aurreikusi, atzeman, jakinarazi eta zuzentzeko, baita interes-gatazka eta finantzaketa bikoitza prebenitzeko ere.

Administrazio Publikoa modernizatzeko eta SEEP gauzatzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua onartuta, arintze-eta kontrol-neurriak hartu eta jaso ziren. Azaldutakoaren jarraipen gisa, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua onartu da, SEEPen kudeaketa-sistema eratzen duena.

Agindu horretako aurreikuspenen artean, 6. artikulua ezartzen eta garatzen duen betebeharra nabarmentzen da, zeinaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua ezartzen dituen betebeharrak betetze aldera (SEM mekanismoa ezartzen du erregelamendu horrek), entitate orok, SEMeko funtsen onuradun den heinean, Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari dagokionez, honako hau eduki beharko du: iruzurraren aurkako neurrien plan bat eduki beharko du, eta plan horrek aukera eman beharko dio, dagokion jardun-eremuan, bermatzeko eta deklaratzeko funtsak erabili direla aplikatu beharreko arauen arabera, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez.

Beraz, dokumentuaren hasierako helburua da zenbait errefortzu-neurri adieraztea eta hedatzea, bermatuko dutenak, Tolosako Udalaren eremuan, jasotako SEEP funtsak erabiltzen direla aplikatzekoak diren arauen arabera, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez. Hala ere, ezin da alde batera utzi Planean adierazitako printzipioak eta dokumentuan eta eranskinetan jasotako neurriak arian-arian txertatu behar direla Udalak hasitako proiektuen eguneroko kudeaketan. Beraz, kudeaketa-eredu bat da, eta oinarri ditu, alde batetik, arrazionaltasun-, antolaketa-, eraginkortasun-, efizientzia- eta kontu-emate-printzipioak, eta, bestetik, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken aurkako borroka eraginkorra ahalbidetuko duten neurrien antolaketa.

## II. HELBURUAK ETA APLIKAZIO-EREMUA

Iruzurraren aurkako Planaren helburua da iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako gaietan aplikatu eta bete beharreko printzipioak eta arauak ezartzea, SEM mekanismotik datozen funtsen inguruko interes-gatazkak saihesteko.





Horretarako, iruzurrezko edozein jardueratan disuasio-efektua eragingo duen kultura sustatuko da, iruzurraren prebentzioa eta detekzioa ahalbidetuz eta iruzurrarekin lotutako delituen ikerketa erraztuko duten prozedurak garatuz, kasu horiei modu egokian eta une egokian heltzen zaiela bermatzeko.

Planaren esparruan, Udalean edo Udalarentzat zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztiek, edozein forma edo lotura juridiko edo instituzional dutela ere, zintzotasunez eta gardentasunez jokatu behar dute beren eginkizunak eta egitekoak betetzean eta garatzean, iruzurtzat, ustelkeriatzat edo interes-gatazkatzat har daitezkeen jokabideak saihestuz eta jazarritz, adierazpen guztietan, bai sektore publikoan, bai sektore pribatuan.

Plana, tresna malgua da, aldatu ahal izango baita iruzurraren aurkako neurrien arloko arau, jarraibide edo gida berriak emanez gero. Era berean, Planaren asmoa da etengabe berrikustea iruzurraren aurkako borrokan planteatutako jarduera bakoitza, jarduera horiek hobetzeko.

Ildo horretan, Planaren indarraldia mugagabea da, baina urtean behin behintzat berrikusiko da, eta berrikusiko da, era berean, iruzur-kasurik detektatzen bada edo prozeduretan edo pertsonalean aldaketa esanguratsurik gertatzen bada.

Plana iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuen inguruan egituratzen da: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena, eta SEMetik datozen funtsen kudeaketan esku hartzen duten organo eta langile guztiei aplikatuko zaie: (i) karrerako funtzionarioak, (ii) bitarteko funtzionarioak, (iii) lan-kontratuko langileak, finkoak, mugagabeak edo aldi baterakoak, edo (iv) behin-behineko langileak, bai eta Udaleko gobernu-organotako kideak ere.

**Halaber, erakunde, organismo eta erakunde publiko edo pribatu guztiek, hornitzaileek, kontratistek, azpikontratistek edo laguntzaileek (aurrerantzean, hirugarrenek) politika honi atxiki beharko zaizkio, Tolosako Udalarekin edozein motatako harremanak hasi eta mantendu ahal izateko.**

### III. PLANAREN EDUKIA.

1030/2021 Ministro-Aginduaren 6. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan ezarritakoa betetzen saiatu da:

- Iruzur-arriskua ebaluatzeko beharrezko neurriak arautzea, Interes-Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) betetzea, eta interes-gatazkei aurre egiteko prozedura bat ezartzea.
- Iruzurraren aurkako neurriak egituratzea, proportzionalki eta iruzurraren aurkako zikloa deritzonaren funtsezko lau elementuen inguruan: prebentzioa,



detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

- ESSP plana gauzatzeko funtsezko prozesuetan ebaluatzea iruzur-arriskua izateko probabilitatea, arriskua eta haren inpaktua eta aldi behin berrikustea, iruzur-arriskuaren arabera, eta, beti, iruzur-kasuren bat detektatu denean edo prozeduretan edo pertsonalean aldaketa esanguratsuak gertatu direnean.
- Prebentzio-neurri egokiak eta proportziozkoak definitzea, egoera zehaztutara egokituta, iruzurra izateko hondar-arriskua maila onargarri batera murrizteko.
- Alerta-seinaleekin bat datozen detekzio-neurriak aurreikustea eta horiek eraginkortasunez aplikatzeko prozedura zehaztea.
- Iruzur-kasu susmagarri bat detektatzen denean, neurri zuzentzaile egokiak definitzea, iruzur-zantzuak jakinarazteko mekanismo argiak jarrita.
- Prozesu egokiak ezartzea, iruzur-kasu susmagarrien jarraipena egiteko eta iruzurrez gastatutako EBko funtsak berreskuratzeke.
- Jarraipen-prozedurak definitzea iruzur benetakoarekin edo potentzialarekin lotutako prozesuak eta kontrolak berrikusteko, iruzur-arriskuaren ebaluazioaren berrikuspenera transmititzen direnak.
- Zehazki, interes-gatazken egoerak prebenitzeko eta zuzentzeko prozedurak definitzea, EBko Finantza Erregelamenduaren 61. artikulua 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoaren arabera. Bereziki, nahitaez IGEA bat (Interes-Gatazkarik Ezaren Adierazpena) sinatu beharko dute SEEP betearazteko prozeduretan parte hartzen dutenek, hierarkian gorago dagoenari edozein interes-gatazka dagoela jakinarazi beharko diote, eta hark kasu bakoitzean dagokion erabakia hartu beharko du.

Plana, 90 egun balioduneko epean onartu behar da, SEEP plana gauzatzen parte hartu dela jakiten denetik kontatzen hasita. Tolosako Udalaren kasuan, epe hori ... ..  
... .. (e)an hasi zen, Udalak Europako funtsen laguntza duen azpiproiektu baten eskaera aurkeztu bait zuen.

Planaren edukia, labur bildurik, honako hau da:

## **ATALAK**

1. Justifikazioa eta sarrera.
2. Helburua eta aplikazio-eremua.
- 3.- Edukia.
- 4.- Aitorpen instituzionala
5. Iruzuraren arriskuen ebaluazioa.
6. Iruzuraren aurkako neurriak.
  - 6.1. Prebentzioko neurriak.
  - 6.2. Iruzurra detektatzeko neurriak.
  - 6.3. Iruzurra zuzentzeko eta jazartzeko neurriak.
- 7.- Interes-gatazkei aurre egiteko prozedura.
- 8.- Iruzurra kontrolatzeko organoa.
9. Oparien politika



10. Otorduen eta joan-etorrien gastuak
11. Kontabilitate-erregistroak
12. Estatu-laguntzak eta kolusio arriskua
13. Politika ez betetzea
14. Ez betetzearen ikerketa.
15. Berrikustea eta eguneratzea.
16. Datu pertsonalen babesa.
17. Trebakuntza/Formakuntza.

## ERANSKINAK

- I. Eranskina: Glosarioa
- II. Eranskina: Interes gatazkarik eta iruzurraren zein ustelkeriaren Erakundearen prebentzioari buruzko autoebaluaziorako testa
- III. Eranskina: Arriskuen analisisa (check-list)
- IV. Eranskina: IGEA-Interes-gatazkarik ezaren adierazpena: eredu
- V. Eranskina: Enplegatu publikoen jokabide-kodea
- VI. Eranskina: Ikur edo adierazle gorriak iruzurraren aurkako borrokan.
- VII. Eranskina: Proposatutako kontrolak.

Azpiratu behar da Planaren 4. artikulua Tolosako udalaren adierazpen instituzionala jasotzen duela, non, besteak beste, honako konpromiso hauek zehazten dira:

Zehazki, honako jardura hauek egiteko konpromisoa hartzen du, besteak beste, epe horren barruan:

1. Arriskuen analisisa eta ebaluazioa.
2. Kode etiko bat idaztea.
3. Kanal Etikoaren Protokoloa idaztea.
4. Interes-gatazkak prebenitzeko politika idaztea.
5. Oparien, otorduen eta joan-etorrien politika idaztea.
6. Prestakuntza eta kontzientzia iruzurraren prebentzioaren arloan.
7. Iruzurra kontrolatzeko organoa izendatzea.

Tolosako Udalak, jakinarazpenetarako barne-kanalen bidez, antzeman daitezkeen irregulartasunak edo iruzurraren eta ustelkeriaren susmoak salatuko ditu, eta iruzurraren aurkako koordinazio-erakunde eta zerbitzuekin elkarlanean arituko da une oro.

Bereziki, konfidentzialtasun-printzipioa errespetatuz, iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin lankidetzan arituko da. Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala da iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoarekin (IBEB, OLAF ingelesez) elkarlanean iruzurraren aurka Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko ekintzak antolatzeaz arduratzen den organoa.



#### IV. IRUZURRA KONTROLATZEKO ORGANOA.

Planaren 8. atalak Iruzurra Kontrolatzeko Organoa arautzen du. Organo honen zereginak dira, funtsean, udalean iruzurraren aurkako neurriak behar bezala aplikatzen direla ziurtatzea eta honako hauek osatuko dute: udal kontuhartzailea, idazkaria eta diruzaina.

Iruzuraren aurkako organoak irregulartasunaren egiazkotasuna eta zehaztasuna egiaztatuko ditu, eta entzunaldi-izapidea emango die kaltetu eta lekuko guztiei, eta beharrezkotzat jotzen dituen eginbide guztiak egingo ditu.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak independentziaz eta inpartzialtasunez jokatu beharko du, eta ahalik eta ardura eta gaitasun profesional handienarekin gauzatu beharko du bere lana. Horretarako, Iruzurra Kontrolatzeko Organoak bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango dio Udaleko sail eta prozesu bakoitzari, errekeritutako pertsonaren hierarkia-maila edozein dela ere.

#### V. PLANA ONARTZEKO ORGANO ESKUDUNA.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren mendeko Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalak, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana gauzatzean iruzurraren aurkako neurriak aplikatzeko gida izeneko dokumentua egin zuen 2022ko otsailaren 24an. Dokumentu horretan gomendio hau egiten da:

*“De conformidad con el artículo 6.5 de la Orden de gestión del PRTR, la aprobación de los planes de medidas antifraude compete a las entidades decisoras y ejecutoras definidas en el Anexo I de la Orden, si bien no se concreta el órgano o autoridad dentro de las misma que ha de aprobarlos.*

*En aras de garantizar la homogeneidad y la coherencia en sus respectivos ámbitos competenciales, sin perjuicio de los principios de cooperación, coordinación y colaboración entre Administraciones Públicas<sup>13</sup> y del respeto a sus competencias en materia de organización de las diferentes unidades y órganos administrativos<sup>14</sup>, se recomienda que los órganos encargados de la aprobación de los planes de medidas antifraude en el ámbito de las entidades decisoras y ejecutoras sean los siguientes:*

.....

*c) En el ámbito de entidades que integran la Administración Local, los máximos órganos o autoridades de gobierno en la respectiva Entidad Local.”*

Gomendio horri jarraituz, eta 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen



dituenak, 22.2. artikularen a) eta d) ataletan xedaturikoa kontuan hartuz, Tolosako Udalaren iruzurraren aurkako plana onartzeko organo eskuduna Udalbatzaren Osoko Bilkura da.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du 2022ko uztailaren 20an izandako bilkuran. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi, Begoña Tolosa, Xarles Iturbe, Ander Figuerido, Garbiñe Marzol, Estitxu Kortejarena eta Jose Mari Villanueva. Hots, irizpenaren proposamena aho batez onartu da.

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Tolosako Udalbatzaren Osoko Bilkurari

## IRIZPENA

**LEHENENGOA.** Onartzea Tolosako Udalaren iruzurraren aurkako neurrien plana eta bere eranskinak.

**BIGARRENA.-** Onartzea Tolosako Udaleko Iruzurraren aurkako Batzordea eratzea eta bertako kide izendatzea Udal honetako Idazkaritza, Kontuhartzailatza eta Diruzaintza sailletako arduradunak.

**HIRUGARRENA.-** Jakinaraztea interesdunei egindako izendapenak.

**LAUGARRENA.-** Argitaratzea Planaren testu osoa eta bere eranskinak Udal honen egoitza elektronikoan eta gardentasun-atarian.

**BOSGARRENA.-** Bidaltzea Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalera iruzurraren aurkako neurrien plan hau.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturik), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako Udalaren iruzurraren aurkako plana.



#### **4. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAK TOLARGI SL UDAL SOZIETATEARI EGINDAKO KUDEAKETA-AGINDUAREN AMAIERA.**

Udalbatzako kideek honako irizpen hau aztertu eta bozkatu dute:

#### **ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2022KO UZTAILAREN 20KO IRIZPENA**

##### **AURREKARIAK**

**LEHENA.-** Tolosako Udalbatza Plenoak, 2000ko abenduaren 20an egindako bilkuran, besteak beste, udal kapitalez osaturiko TOLARGI SL sozietatea eratzeko Estatutuak onartu zituen. Aipaturiko sozietateak xede bikoitza zuen: energia elektrikoa banatzea eta hura merkaturatzea. Ordura arte, udalak modu zuzenean kudeatu zituen jarduera hauek, ura eta argindarraren zentralaren bitartez, baino 54/1997 Legeak, azaroaren 27koak, Sektore Elektrikoa arautzen duenak, zerbitzu horiek merkataritza-sozietateen bidez ematea ezarri zuen, eta udaleko langileen bitartez zuzenean kudeatzeko aukera kendu zuen. Aipatu den moduan, sozietate honen kapitala %100a, udal jabetzakoa da.

Ondoren, 2001ko otsailaren 20an egindako bilkuran, organo berak ebatzi zuen TOLARGI SL sozietatearen xede bakarra argindarraren banaketa izatea, 54/1997 Legeak, azaroaren 27koak, Sektore Elektrikoa arautzen duenak, bere 14. artikuluan xedaturiko jardueren arteko bereizketa bete ahal izateko.

**BIGARRENA.-** Aipatu den organoak, 2016ko uztailaren 27an egindako bilkuran, honako ebazpen hauek hartu zituen:

1. Tolargi SL Tolosako Udalaren berezko baliabidea eta zerbitzu tekniko izendatzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 24.6 eta 4.1 n) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera (2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen aipatutako testu bategina).

2. Tolosako Udalak kudeaketa-mandatua gauzatzea Tolargi SL udal sozietate publikoaren alde (erakunde instrumental bezala), energia elektrikoa banatzeko jarduera egiteko.

3. Bilkura berdinean, eta Tolargi SL sozietatearen Batzar Orokorraren funtzioetan, Udalbatza Plenoak ebatzi zuen aipaturiko enpresaren estatutuen 2. artikulua aldatzea, honakoaren arabera: «2. artikulua - *Sozietatearen helburua energia elektrikoa banatzea izango da. Helburu sozialaren jarduerak modu zuzenean egin ahal izango ditu Sozietateak, edo jarduera horien bitarteko lanak egin ahal izango ditu.*»

*“Sozietatearen kapitala titulartasun publikokoa da bere osotasunean, bere partizipazio sozialak Tolosako Udalarenak direlako, eta Tolosako Udalaren berezko bitarteko eta*



zerbitzu sozialaren izaera du, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 24.6 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Bazkidea den Administrazio Publikoak lanak, zerbitzuak edo bere helburu sozialarekin lotutako beste edozein jarduera egiteko agindu ahal izango dio, dagozkion organoek kasu bakoitzean ezartzen dituzten termino eta baldintzekin.”

“Sozietateak ezingo du parte hartu Tolosako Udalak deitutako lizitazio publikoetan, nahiz eta, ez bada lizitatzailerik aurkezten, Udalak agindu ahalko dion lizitazioaren xede zen prestazioa ematea.»

Halaber, udalbatza plenoak ebatzi zuen kudeaketa agindu honen araubidea:

#### **Lehena.- Xedea**

*Tolosako Udalak kudeaketa-mandaturik gauzatzea Tolargi SL udal-sozietate publikoaren alde (erakunde instrumental bezala), energia elektrikoa banatzeko jarduera egiteko.*

#### **Bigarrena.- Erakunde mandatariaren betebeharrak**

*TOLARGI SLk energia elektrikoa banatuko du eta mantentze-lanak egingo ditu eta, beharrezkoa denean, banaketa-sarea eta instalazioak eraiki eta garatuko ditu, sareak epe luzean eskariari erantzun diezaioketela bermatzeko. Guzti hori sektore elektrikoan aplikatzekoa den legediaren arabera egingo da.*

*Mandatu honetako jarduerak garatzeko behar diren baimenak eskatzea eta lortzea TOLARGI SLren esku garatuko da, bai eta jarduerak eragindako tasa, zerga, ariel edo kontribuzio bereziak ordaintzea ere.*

*Mandaturik gauzatzerakoan datuak babesteko araudia zorrotz errespetatuko da.*

*TOLARGI SLk, ekitaldi bakoitzeko apiril eta maiatza artean, aurreko ekitaldian mandatu honen ondorioz egindako jardueren txosten bat entregatuko dio Tolosako Udalari.*

#### **Hirugarrena.- Kudeaketa-mandaturik betetzeko beharrezko bitarteko materialak**

*TOLARGI SLk badu kudeaketa-mandaturik betetzeko beharrezkoak diren materialak erabiltzeko gaitasuna ematen dion titulua gaur egun:*

*-Tolosako Udalak eta TOLARGI SLk 2007ko abenduaren 31n sinatu zuten finantza-errentamenduaren kontratuaren bidez, erosteko aukera baliatu eta hondar-balioa ordaindu ondoren, TOLARGI SLk energia elektrikoa banatzeko ondasun eta instalazio batzuk eskuratu ditu (finantza-errentamenduaren kontratu horren 1. eranskinean jasotzen da horien inbentarioa).*

*-Gainera, TOLARGI SLri ondasun higiezin hauen erabilera laga dio Tolosako Udalak:*



- *Beheko solairuko lokala, 551,60 metro karratukoa, eta eraikinaren atzeko aldeko kanpoko patioa, 910,48 metro karratukoa, San Esteban auzoko 19. zenbakiko Unipapel eraikinean; Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatuta dago 1726 liburukian, 270 liburuan, 94 folioan, 132218 finkan, udal-inbentarioko S00279 zenbakiarekin.*
- *Lursaila, 1.581,22 metro karratukoa, San Esteban auzoan. Bertan dago TOLARGI SLk eraiki duen transformazio elektrikoko azpiestazioa.*
- *Beheko solairuko bulegoak, (Pablo Gorosabel) Rondilla kaleko 34. zenbakian eta Tolosako Jabetza Erregistroan behar bezala erregistratuta daudenak.*

#### **Laugarrena.- Kudeaketa-mandatuak betetzeko beharrezko giza baliabideak**

*TOLARGI SLk badu kudeaketa-mandatu hau betetzeko beharrezkoak diren giza baliabide hauek:*

- *Administrazioko arduradun bat.*
- *Banaketa-obren arduradun bat.*
- *Banaketa-obren kargudun bat.*
- *Administrari bat*
- *Hiru elektrikari.*

#### **Bosgarrena.- Tolosako Udalak TOLARGI SLren alde egingo dituen zerbitzuak**

*Tolosako Udalak zerbitzu hauek ematen dizkio TOLARGI SLri:*

*-Lan-arloa: kontratazioak kudeatzea; langileen nominak egitea; nomina eta aseguru sozialen erregistroa; langileen datuak ematean PFEZen atxikipenen adierazpenak egiteko; eta funtzio hau egin ahal izateko beharrezkoak diren guztiak.*

*-Lege- eta zerga-arloa: aholkularitza orokorra ematea sozietateari sozietateen, kontratuen, administrazioaren eta zergen gaien inguruan.*

#### **Seigarrena.- Erregimen ekonomikoa: ordainsariak eta ordainketa**

*Tolosako Udalak emandako zerbitzuen ondorio bezala eta energia elektrikoaren banaketa ustiatzeko mandatuaren ondorio bezala, Tolargi SL erakunde mandataria urteko ordainsari bat emango dio Tolosako Udala erakunde mandatugileari.*

*Ordainsari horrek zati finko bat eta zati aldakor bat izango ditu.*





- *Ekitaldi bakoitzean ordaindu beharreko zati finkoaren zenbatekoa 534.083 eurokoa izango da. Horrek barne hartzen ditu, energia elektrikoaren banaketaren ustiapenari dagokion mandatuaren kantitate finko batez gain, Tolosako Udaletik urtero jasotzen dituen bitarteko eta zerbitzuen ordainsariak.*

*Zati finkoa bi urtean behin berrikusiko du Tolosako Udalak mandatuaren xedea den jarduerak dituen aldaketen eta TOLARGI SLk Tolosako Udaletik jasotzen dituen bitarteko eta zerbitzuen arabera.*

*Zati finko hori bera berrikusi egingo da, ohiz kanpo, bi urteak igaro aurretik, TOLARGI SLk energia elektrikoa banatzeko jardueran jasotzen dituen tarifa edo ordainketek aldaketa esanguratsuak badituzte.*

*Ekitaldi bakoitzean sortzen den zati finkoa sei hilabete behin ordainduko dio TOLARGI SLk Tolosako Udalari. Horretarako, dagozkion fakturak egingo dira ekainaren 30ean eta abenduaren 31n, hurrenez hurren, eta TOLARGI SLk lege ezarritako epeen barruan ordaindu beharko ditu.*

- *Ekitaldi bakoitzean ordaindu beharreko zati aldakorra TOLARGI SLk aurreko abenduaren 31n itxitako ekitaldian zergak ordaindu aurretik zuen emaitzaren % 30 izango da.*

*Ekitaldi bakoitzean sortutako ordainsari aldakorra ordainketa bakar batean pagatuko dio TOLARGI S.L.k Tolosako Udalari, aurreko urteko kontuan onartu eta gero. Horretarako, dagokion faktura egingo da uztailaren 1ean eta TOLARGI SLk lege ezarritako epeen barruan ordaindu beharko du.*

*Aipatutako data horietan, Tolosako Udalak dagozkion fakturak egingo ditu, kobratu beharreko zenbatekoarekin eta BEZarekin (ordaindu beharreko ordainsariak sortzen diren egunean indarrean dagoen araudiaren arabera).*

*2016ko ekitaldiari dagokionez, kontuan izanda 2016ko urtarrilaren 1ean TOLARGI SLk mandatuaren xedea den jarduera egiten zuela, mandatuak atzeraeraginezko ondorioak izango ditu 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta ordainsariaren zati finkoa eta aldakorra egun horretatik aurrera sortuko dira. Horretarako, fakturak egingo dira uztailaren 31n eta abenduaren 31n, hurrenez hurren, eta TOLARGI SLk lege ezarritako epeen barruan ordaindu beharko ditu.*

### **Zazpigarrena.- Erantzukizuna**

*TOLARGI SLk mandatuko funtzioak behar bezala egitearen erantzukizuna izango du, eta akatsen ardura bere gain hartu beharko du.*

### **Zortzigarrena.- Indaraldia eta amaiera**



*Mandatu honek hogeita bost urteko indarraldia izango du, onartzen den egunetik, seigarren klausulako azken lerrokadan ezarritakoaren kalterik gabe, klausula hori dela-eta edo hurrengo lerrokadan zehazten diren kausetako edozeinengatik azkentzen ez bada.*

*Kudeaketa-mandatu hau azkendu egingo da:*

- Bere indarraldia amaitzen delako.*
- Udalak baliogabetzea adosten duelako.*

### ***Bederatzigarrena.- Mandatua aldatzea***

*Kudeaketa-mandatu hau Tolosako Udalaren erabaki bidez aldatu ahal izango da, haren xedea hobeto betetzeko beharrezkoa bada.*

### ***Hamargarrena.- Izaera eta erregimen juridikoa***

*Mandatu hau administratiboa da, eta, beraren interpretazioari eta garapenari dagokienez, aginduzkoa izango da antolamendu juridiko-administratiboa, eta alderdiek berriaz men egiten diote administrazioarekiko auzien jurisdikzioari.*

*2014/24/EB Zuzentarauaren 12. artikularen (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena) eta azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 24.6 eta 4.1.n) artikuluen arabera (3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena), eta TOLARGI SL Tolosako Udalaren berezko bitartekoa eta zerbitzu teknikoa denez, kudeaketa-mandatu hau aipatutako zuzentarau eta lege horien aplikazio-esparrutik kanpo dago.*

*Horren kalterik gabe, kudeaketa-mandatu honek kontratu-izaera du, eta ez da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15. artikuluan aurreikusitako administrazio barneko mandatua.”*

**HIRUGARRENA.-** *Kudeaketa-mandatua Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak erabakitako moduan garatzen ari da, San Esteban auzoko 19. zenbakian dagoen lokalaren erabilerari eta puntu berean dagoen lursailari buruzko xedapenak izan ezik, udal sozietateak Usabal industrialdera eraman baitu bere jarduerara.*

*TOLARGI SL merkataritza-sozietatea Estatuko Kontu-hartzailletza Nagusiaren sektore publikoko erakundeen inbentarioan inskribatuta dago, sailkatu gabe. Halaber, erregistro*



horretan adierazten da ez dela Tolosako Udalaren berezko bitartekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean ezarritakoaren arabera (SPKL hemendik aurrera).

## AZTERKETA JURIDIKOA

### A) KUDEAKETA-AGINDUA VERSUS ENKARGUA

40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duenak, honako hau xedatzen du 11. artikuluan:

*1. La realización de actividades de carácter material o técnico de la competencia de los órganos administrativos o de las Entidades de Derecho Público podrá ser encomendada a otros órganos o Entidades de Derecho Público de la misma o de distinta Administración, siempre que entre sus competencias estén esas actividades, por razones de eficacia o cuando no se posean los medios técnicos idóneos para su desempeño.*

*Las encomiendas de gestión no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos regulados en la legislación de contratos del sector público. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en ésta.*

Hau da, indarrean dagoen legeriaren arabera, kudeaketa-aginduaren hartzaileak administrazio publiko bat edo zuzenbide publikoko erakunde bat izan behar du, eta mandatu horiek ezin dira zuzenbide pribatuko erakundeen alde egin, merkataritza-sozietateen kasuan bezala. Hurrengo ataletan ikusiko dugun moduan, botere esleitzzaileek **enkarguak** egin diezazkiekete beren baliabide propioei. Modu guztietan, lehenik eta behin aztertu behar da TOLARGIK Tolosako Udalaren berezko bitarteko izateko baldintzak betetzen dituen, bai eta Udalak emandako enkarguen eskumen-eremua ere.

### B) BOTERE ESLEITZAILE BATEN BEREZKO BITARTEKO PERTSONIFIKATUAK 2014/24/EB ZUZENTARAUAN

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak bere aplikaziotik at utzi zituen botere esleitzzaileen bitarteko propio pertsonifikatuak. Horretarako, bitarteko horiek bete behar dituzten baldintzak arautu zituen:

#### **Considerando:**

.....

- (31).....*Por tanto, hace falta precisar en qué casos los contratos celebrados en el sector público no están sujetos a la aplicación de las normas de contratación pública.*



- *Esta precisión debe guiarse por los principios establecidos en la correspondiente jurisprudencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea. El hecho de que las dos partes de un acuerdo sean poderes públicos no excluye por sí mismo la aplicación de las normas de contratación. No obstante, la aplicación de las normas de contratación pública no debe interferir con la libertad de los poderes públicos para ejercer las funciones de servicio público que le han sido conferidas utilizando sus propios recursos, lo cual incluye la posibilidad de cooperación con otros poderes públicos.*
- *Es preciso asegurar que la cooperación entre entidades públicas exentas no acabe falseando la competencia con respecto a los operadores económicos privados, hasta el punto de situar a un proveedor de servicios privado en una posición de ventaja respecto de sus competidores.*
- ***(32) Los contratos públicos adjudicados a personas jurídicas controladas no deben estar sometidos a la aplicación de los procedimientos previstos en la presente Directiva si el poder adjudicador ejerce sobre la persona jurídica de que se trate un control análogo al que ejerce sobre sus propios servicios, siempre que la persona jurídica controlada dedique más del 80 % de sus actividades al ejercicio de funciones que le hayan sido asignadas por el poder adjudicador que la controla o por otras personas jurídicas controladas por dicho poder adjudicador, independientemente de quién sea el beneficiario de la ejecución del contrato.***
- .....
- ***(34) Se dan casos en los que una entidad jurídica actúa, con arreglo a las disposiciones pertinentes del Derecho nacional, como un instrumento o servicio técnico para determinados poderes adjudicadores, y está obligada a cumplir las instrucciones recibidas de estos poderes adjudicadores, sin ejercer influencia sobre la retribución de su ejecución. Dado su carácter no contractual, esta relación meramente administrativa debe quedar fuera del ámbito de aplicación de los procedimientos de contratación pública.***

Artikuluak (12.3 eta 5):

- ***3. Un poder adjudicador que no ejerza sobre una persona jurídica de Derecho público o privado un control en el sentido del apartado 1 podrá, no obstante, adjudicar un contrato público a dicha persona jurídica sin aplicar la presente Directiva si se cumplen todas y cada una de las condiciones siguientes:***
  - *a) que el poder adjudicador ejerza sobre dicha persona jurídica, conjuntamente con otros poderes adjudicadores, un control análogo al que ejerce sus propios servicios;*
  - *b) que **más del 80 %** de las actividades de esa persona jurídica se lleven a cabo en el ejercicio de los cometidos que le han sido confiados por los poderes adjudicadores que la controlan o por otras personas jurídicas controladas por los mismos poderes adjudicadores;*



- *c) que no exista participación directa de capital privado en la persona jurídica controlada, con la excepción de las modalidades de participación de capital privado que no supongan un control o una posibilidad de bloqueo y que vengan impuestas por las disposiciones de la legislación nacional, de conformidad con los Tratados, y que no suponga el ejercicio de una influencia decisiva sobre la persona jurídica controlada.*
- *A efectos de la letra a) del párrafo primero, los poderes adjudicadores ejercen un control conjunto sobre una persona jurídica si se cumplen todas y cada una de las condiciones siguientes:*
  - *i) que los órganos decisorios de la persona jurídica controlada estén compuestos por representantes de todos los poderes adjudicadores participantes. Cada representante puede representar a varios poderes adjudicadores participantes o a la totalidad de los mismos,*
  - *ii) que esos poderes adjudicadores puedan ejercer conjuntamente una influencia decisiva sobre los objetivos estratégicos y las decisiones significativas de la persona jurídica controlada, y*
  - *iii) que la persona jurídica controlada no persiga intereses contrarios a los intereses de los poderes adjudicadores que la controlan.*
- *.....*
- *5. Para determinar el porcentaje de actividades al que se hace referencia en el apartado 1, párrafo primero, letra b), en el apartado 3, párrafo primero, letra b), y en el apartado 4, letra c), se tomará en consideración el promedio del volumen de negocios total, u otro indicador alternativo de actividad apropiado, como los gastos soportados por la persona jurídica o el poder adjudicador considerado en relación con servicios, suministros y obras en los tres ejercicios anteriores a la adjudicación del contrato.*

### **C) BOTERE ESLEITZAILE BATEN BEREZKO BITARTEKO PERTSONIFIKATUAK SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUAK ARAUTZEN DITUEN 9/2017 LEGEAN: BALDINTZAK**

SPKLren 32. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuetan azaltzen da zer baldintza bete behar dituzten pertsona juridikoen, zuzenbide publikoen nahiz zuzenbide pribatuen, botere adjudikatzaile baten bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko:

*1. Los poderes adjudicadores podrán organizarse ejecutando de manera directa prestaciones propias de los contratos de obras, suministros, servicios, concesión de obras y concesión de servicios, a cambio de una compensación tarifaria, valiéndose de otra persona jurídica distinta a ellos, ya sea de derecho público o de derecho privado, previo encargo a esta, con sujeción a lo dispuesto en este artículo, siempre y cuando la persona jurídica que utilicen merezca la calificación jurídica de medio propio personificado respecto de ellos de conformidad con lo dispuesto en los tres apartados*



*siguientes, y sin perjuicio de los requisitos establecidos para los medios propios del ámbito estatal en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.*

*El encargo que cumpla dichos requisitos no tendrá la consideración de contrato.*

*2. Tendrán la consideración de **medio propio personificado respecto de una única entidad concreta del sector público** aquellas personas jurídicas, de derecho público o de derecho privado, que cumplan todos y cada uno de los requisitos que se establecen a continuación:*

*a) Que el poder adjudicador que pueda conferirle encargos **ejerza sobre el ente destinatario de los mismos un control, directo o indirecto, análogo al que ostentaría sobre sus propios servicios o unidades**, de manera que el primero pueda ejercer sobre el segundo una **influencia decisiva** sobre sus objetivos estratégicos y decisiones significativas.*

*En todo caso se entenderá que el poder adjudicador que puede conferirle encargos ostenta sobre el ente destinatario del mismo un control análogo al que ejerce sobre sus propios servicios o unidades cuando él mismo o bien otro u otros poderes adjudicadores o personas jurídicas controlados del mismo modo por el primero puedan conferirle **encargos que sean de ejecución obligatoria** para el ente destinatario del encargo por así establecerlo los estatutos o el acto de creación, de manera que exista una unidad de decisión entre ellos, **de acuerdo con instrucciones fijadas unilateralmente por el ente que puede realizar el encargo.***

*La compensación se establecerá por referencia a tarifas aprobadas por la entidad pública de la que depende el medio propio personificado para las actividades objeto de encargo realizadas por el medio propio directamente y, en la forma que reglamentariamente se determine, atendiendo al coste efectivo soportado por el medio propio para las actividades objeto del encargo que se subcontraten con empresarios particulares en los casos en que este coste sea inferior al resultante de aplicar las tarifas a las actividades subcontratadas.*

*Dichas tarifas se calcularán de manera que representen los costes reales de realización de las unidades producidas directamente por el medio propio.*

*b) Que **más del 80 por ciento de las actividades del ente destinatario del encargo se lleven a cabo en el ejercicio de los cometidos que le han sido confiados por el poder adjudicador que hace el encargo y que lo controla** o por otras personas jurídicas controladas del mismo modo por la entidad que hace el encargo.*

*A estos efectos, para calcular el 80 por ciento de las actividades del ente destinatario del encargo se tomarán en consideración el **promedio del volumen global de negocios, los gastos soportados por los servicios prestados al poder***



**adjudicador en relación con la totalidad de los gastos en que haya incurrido el medio propio por razón de las prestaciones que haya realizado a cualquier entidad, u otro indicador alternativo de actividad que sea fiable, y todo ello referido a los tres ejercicios anteriores al de formalización del encargo.**

.....

c) Cuando el ente destinatario del encargo sea un ente de personificación jurídico-privada, además, **la totalidad de su capital o patrimonio tendrá que ser de titularidad o aportación pública.**

d) La condición de medio propio personificado de la entidad destinataria del encargo respecto del concreto poder adjudicador que hace el encargo **deberá reconocerse expresamente en sus estatutos o actos de creación, previo cumplimiento de los siguientes requisitos:**

1.º Conformidad o autorización expresa del poder adjudicador respecto del que vaya a ser medio propio.

2.º Verificación por la entidad pública de que dependa el ente que vaya a ser medio propio, de que cuenta con medios personales y materiales apropiados para la realización de los encargos de conformidad con su objeto social.

Los estatutos o acto de creación del ente destinatario del encargo deberá determinar: el poder adjudicador respecto del cual tiene esa condición; precisar el régimen jurídico y administrativo de los encargos que se les puedan conferir; y establecer la imposibilidad de que participen en licitaciones públicas convocadas por el poder adjudicador del que sean medio propio personificado, sin perjuicio de que, cuando no concurra ningún licitador, pueda encargárseles la ejecución de la prestación objeto de las mismas.

En todo caso, se presumirá que cumple el requisito establecido en el número 2.º de la presente letra cuando haya obtenido la correspondiente clasificación respecto a los grupos, subgrupos y categorías que ostente.

Azaldutako guztia kontuan hartuz, idazkari honen iritziz, TOLARGI SL sozietateak ez ditu SPK Legeak eta Europako 2014/24/UE Zuzentarauak xedaturiko baldintzak betetzen Tolosako Udaleko berezko baliabidetzat hartzeko. Puntuz puntu aztertuko ditugu baldintzak:

- TOLARGI SL sozietatearen kapitalaren % 100 Tolosako Udalarena da. Beraz, baldintza hau betetzen da.
- Sozietatearen zuzendaritza-organoak udal ordezkariak osatzen dute, hala Batzar orokorra Udalbatzaren Osoko Bilkura delako, eta Administrazio Kontseilua, osoko bilkurak izendaturiko zinegotziek osatzen dutelako. Hori horrela izanik, ezingo litzateke ondorioztatu Tolosako Udalak, eragin erabakigarriarik duenik sozietatearen jardunean, Europako Zuzentarauak eta



SPKLk xedatzen duten moduan. Izan ere, erabakitze-ahalmen hau erabat mugatuta dago, merkatuaren jardueragatik, eta sektore elektrikoaren araubidetik. Adibide moduan, enpresak jasotzen dituen ordainsariak ez ditu Administrazio Kontseiluak edota Batzar Orokorrak erabakitzen, merkatu elektrikoa erregulatzen duen organoa baizik. Beraz, baldintza hau ez da erabat betetzen.

- **Enkarguaren xedeari dagokionez, ezin dugu ahaztu TOLARGI SL sozietatearen xedea argindarraren banaketa dela.** Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32. 1 artikulua, berezko baliabideen enkarguen xedeak arautzen ditu, honako terminoetan: enkarguen xedeak izan daitezkeela **Sektore Publikoko Kontratuen Legean arauturiko obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuen eta obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuen berezko prestazioak.** Zerbitzu- edo zerbitzu-emakidaren kontratuen xedeek bat etorri behar dute dagokion erakundearen eskumenen esparruarekin, zera, Tolosako Udalak bere bitarteko propioari eman diezazkiokeen enkarguak kontratu publikoen xede izan daitezkeen gaien testuinguruan kokatu behar dira, udal eskumenen barruan, eta energia elektrikoaren banaketa ez da Tolosako Udalaren berezko eskumena, eta ezin du zerbitzuen administrazio-kontratu baten gaia izan. Horretaz gain, **energia elektrikoaren banaketa, merkataritza-jarduera da, aurrerago aztertuko den moduan, eta xede honen inguruan egiten diren kontratuak SPK Legetik at daude.** Hots, enkarguaren xedea ikusirik, SPKLegearen baldintzak ez lirateke errespetatuko.
- Sozietatearen jardueren % 80 baino gehiago hura kontrolatzen duten udalek emandako eginkizunak betetzen al ditu?. Galdera horri erantzuteko, kontuan hartu behar da TOLARGI SL dela merkataritza-erakundea, eta merkaturan aritzen dela, sektore elektrikoa arautzen duen xedapenen menpe.
  - Zentzu honetan Estatuko Kontuen Auzitegiak baldintza honen honako interpretazioa egin du: *La Ley regula los requisitos que una entidad ha de cumplir para ostentar la condición de medio propio de otra u otras entidades y tener la posibilidad de ejecutar encargos, con independencia de la importancia relativa que estos encargos tengan respecto del conjunto de su actividad, aspecto sobre el que nada exige expresamente. Lo que sí exige la Ley es el control efectivo de la entidad que realiza el encargo sobre la actividad y objetivos estratégicos de la entidad obligada a ejecutarlo y que esta última realice la parte esencial de su actividad en beneficio de la entidad que la controla o de otras controladas por aquella, "parte esencial" que se ha cuantificado en la LCSP en un 80 %. Pero la Ley no exige que esta "parte esencial" se lleve a cabo bajo la forma jurídica de encargos. Es esclarecedor en este sentido el Preámbulo de la LCSP, en el que, en relación con el requisito de actividad que han de cumplir los medios propios personificados, se hace referencia en los siguientes términos "que no pueda realizar libremente en el mercado más de un 20 por ciento de*





**su actividad**". Como puede observarse, el Preámbulo de la Ley apela a la falta de libertad para actuar en el mercado que debe caracterizar al medio propio personificado, una falta de libertad que es consecuencia necesaria del control que sobre él han de ejercer las entidades que le pueden conferir encargos y de destinar la parte esencial de su actividad a los cometidos realizados en beneficio de estas entidades.....En consecuencia, por las razones expuestas, para analizar el cumplimiento del requisito de actividad el Tribunal de Cuentas ha considerado más adecuado tomar en consideración el indicador seleccionado por cada una de las entidades fiscalizadas respecto a las actividades que ha realizado para los poderes adjudicadores que le pueden conferir encargos o para entidades controladas por aquellos en general, valorando su razonabilidad, así como el porcentaje que, al aplicar dicho indicador, suponen esas actividades respecto de su actividad total, con independencia de si el indicador se ha aplicado sobre actividades que son consecuencia de la mera ejecución de su objeto social o sobre actividades ejecutadas bajo la cobertura formal de un encargo. Todo ello sin perjuicio del criterio más restrictivo adoptado por la IGAE y la Abogacía General del Estado, un criterio que en la práctica tampoco se ha aplicado en sentido estricto, como se pone de manifiesto en el presente apartado y en el apartado II.3. del Informe.2 (INFORME DE FISCALIZACIÓN DE LA ADAPTACIÓN DE LOS MEDIOS PROPIOS EXISTENTES EN EL ÁMBITO EMPRESARIAL ESTATAL NO FINANCIERO A LAS EXIGENCIAS DE LA LEY 40/2015 DE RÉGIMEN JURÍDICO DEL SECTOR PÚBLICO Y DE LA LEY 9/2017 DE CONTRATOS DEL SECTOR PÚBLICO, 2022-03-31, 16. eta 17. orriak).

- TOLARGI SL sozietateak jasotzen dituen diru-sarrerak energia elektrikoaren banatzeko jardueratik datoz. Energia elektrikoaren banaketa Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legean araututa dago. Lege horrek, bere 2. artikuluan xedatzen duenaren arabera, energia elektrikoaren hornidurara bideratutako jarduerak gauzatzeko enpresa-ekimen askearen erregimenean eman behar dira. Hala ere, 8.2 artikulua honako hau xedatzen du banaketa-jardueren kasuan: Sistemaren eragiketa, merkatuaren eragiketa, energia elektrikoaren garraioa eta banaketa araututako jardueren izaera dute, beste jarduera batzuetatik bereizteko, eta haien araubide ekonomikoa eta funtzionamendu-araubidea lege honetan aurreikusitakoaren arabera izango dira.
- Horren guztiaren ondorioz, TOLARGI SL sozietateak garatzen duen jardueraren %100 merkatutik dator, eta ez Tolosako Udalak emandako agindu edo enkargutik. Enpresaren jardura.
- Azkenik, TOLARGI SL sozietateak ez du inolako konpentsaziorik jasotzen Tolosako Udalari ustez ematen dizkion zerbitzuengatik. Ordainsaria MLBNk edo zerbitzuaren erabiltzaileek ematen dute, eta Tolosako Udalak ez du inolako eskumenik sozietatearen ordainsariak ebazteko.



## D) TOLARGI SLren XEDEA: ENERGIA ELEKTRIKOA BANATZEA

Aurreko atalean azaldu den moduan, TOLARGI SL enpresak garatzen duen jarduera ez da udalaren eskumen propioen esparruan garatzen. Horrela, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren 25.2 artikulua, udalerrien eskumen "propioak" arautzen dituenak, ez du sartzen udal eskumenen artean argindarraren banaketa. Artikulu hau aztertu ondoren, ondoriozta genezake argindarra banatzeko eskumena.

Halaber, 2/2016 Legeak, Euskadiko Tokiko Erakundeak arautzen dituenak, 17. artikuluan udalerrien eskumen propioak xedatzen ditu, eta horien artean argindarraren banaketa ez da arautzen.

Aldiz, 7/19885 Legearen 86. artikulua honako hau xedatzen du: *1. Las Entidades Locales podrán ejercer la iniciativa pública para el desarrollo de actividades económicas, siempre que esté garantizado el cumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria y de la sostenibilidad financiera del ejercicio de sus competencias. En el expediente acreditativo de la conveniencia y oportunidad de la medida habrá de justificarse que la iniciativa no genera riesgo para la sostenibilidad financiera del conjunto de la Hacienda municipal debiendo contener un análisis del mercado, relativo a la oferta y a la demanda existente, a la rentabilidad y a los posibles efectos de la actividad local sobre la concurrencia empresarial. Corresponde al pleno de la respectiva Corporación local la aprobación del expediente, que determinará la forma concreta de gestión del servicio.*

Hauetako jarduera ekonomiko batzuk udalaren aldeko erreserba dute: *2. Se declara la reserva en favor de las Entidades Locales de las siguientes actividades o servicios esenciales: abastecimiento domiciliario y depuración de aguas; recogida, tratamiento y aprovechamiento de residuos, y transporte público de viajeros, de conformidad con lo previsto en la legislación sectorial aplicable. El Estado y las Comunidades Autónomas, en el ámbito de sus respectivas competencias, podrán establecer, mediante Ley, idéntica reserva para otras actividades y servicios. La efectiva ejecución de estas actividades en régimen de monopolio requiere, además del acuerdo de aprobación del pleno de la correspondiente Corporación local, la aprobación por el órgano competente de la Comunidad Autónoma*

Ikusten dugun moduan, TOLARGI SLren jardueraren jatorria ez da inolako tokiko eskumenik gauzatzea, baizik eta Tolosako Udalak hasiera batean zuzenean eta ondoren merkataritza-sozietate baten bidez garatutako jarduera ekonomiko bat gauzatzea.

Merkatuan aritzen diren enpresen izaera juridikoa eta botere esleitzailen berrezko baliabideak izan daitezkeen erakundeena oso bestelakoa da. Aragoiko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegiak, 2015eko abenduaren 9an emandako



ebazpenean, modu argian bereizi zituen bi motatako entitateak: “.....La jurisprudencia del TJUE (STJUE Riita Korhonen y otros, de 22 de mayo de 2003), recogida expresamente en la Directiva 2014/24/UE, pone el énfasis en que un organismo de Derecho público, es un organismo que no opera en condiciones normales de mercado, carece de ánimo de lucro y no soporta las pérdidas derivadas del ejercicio de su actividad. Tesis confirmada por la 6 de octubre de 2003, que concluye la condición de poder adjudicador de la empresa pública española Sociedad Estatal de Infraestructuras y Equipamientos Penitenciarios, S.A. (SIEPSA). El Tribunal entendió en aquella ocasión que la actividad de la empresa en cuestión era de interés general, al constatar que no asumía riesgo, ni perseguía fines de lucro, circunstancia que evidencia que carece de contenido económico, al ser el riesgo consustancial a toda actividad empresarial.”.....Del objeto social establecido en los Estatutos de Mercazaragoza, que se reproduce en el antecedente segundo de este Acuerdo, cabe afirmar, sin lugar a dudas, que todas sus actividades responden a la necesidad de satisfacer intereses generales, y que es a través de la creación de Mercazaragoza como el Ayuntamiento de Zaragoza y MERCASA les dan respuesta y los satisfacen. En este punto, puede afirmarse, que la finalidad de mejora del abastecimiento de productos alimenticios y su red de comercialización y distribución encomendada a Mercazaragoza, tiene por objetivo satisfacer necesidades que pueden calificarse como de interés general. Lo que, per se, implica el cumplimiento del tercer requisito para tener consideración de poder adjudicador Asimismo, en una actividad en la que no existe competencia, resulta difícil justificar su carácter industrial o mercantil (como ha señalado la Junta Consultiva de Contratación Administrativa de la Comunidad Autónoma de Aragón en su Informe 7/2015, de 12 de mayo, respecto a la Feria de Zaragoza). Pero aunque así fuera, la vis atractiva de la nota de interés general, que resulta indiscutible, determina que Mercazaragoza es poder adjudicador no Administración Pública, y debe respetar las reglas del artículo 190 TRLCSP en contratos de importes armonizados (y no las previsiones del artículo 192 TRLCSP). ....La conclusión expuesta se refuerza todavía más con el dato de que Mercazaragoza tiene la condición de medio propio instrumental del Ayuntamiento de Zaragoza. Así se reconoce de forma expresa en sus Estatutos vigentes. **Esta condición de medio propio conduce de manera inexorable a su condición de poder adjudicador**. Y ello no solo desde una interpretación teleológica —que por si misma rechaza la posibilidad de que una prestación que se debería someter a las reglas de una licitación pública, como consecuencia de un encargo a un medio propio, pueda quedar sustraída a las reglas de la contratación pública—, sino porque la previsión tiene reflejo legal expreso en el artículo 4.1.n) TRLCSP:.....”. “Esta disposición disciplina el régimen de contratación con terceros que deben aplicar los medios propios, y que, en definitiva, no es otro que el régimen previsto en el TRLCSP para las Administraciones públicas, o bien para los poderes adjudicadores cuando se trate de entidades de naturaleza privada, como es el caso de las Sociedades mercantiles (de ahí la referencia «a la naturaleza de la entidad»). **No es admisible, desde la previsión legal, la posibilidad de considerar que un medio propio se califique, a efectos de los contratos que celebre con terceros, como una entidad del sector**



**público que no tenga la consideración de poder adjudicador.”** Ebazpen honen arabera, berezko baliabidea izateko, botere esleitzaila izateko baldintzak bete behar dira, eta TOLARGI SLk ez ditu betetzen baldintza horiek:

- *“Que se haya creado específicamente para **satisfacer necesidades de interés general que no tengan carácter industrial o mercantil**; a tal efecto, un organismo que opera en condiciones comerciales normales, tiene por objeto obtener un beneficio y soporta las pérdidas asociadas al ejercicio de su actividad, no tiene la finalidad de satisfacer necesidades de interés general que no tengan carácter industrial o mercantil.*
- .....

Bestaldetik, Europako Justizia Auzitegiak, 2017ko urriaren 5ean emandako sententzian (C-567/15 auzian), honako gai hauek ebatzi zituen:

*“ ¿Debe interpretarse el artículo 1, apartado 9, de la Directiva 2004/18 en el sentido de que no procede considerar que constituye un poder adjudicador una sociedad que:*

*– ha sido constituida por un poder adjudicador que desarrolla sus actividades en el ámbito del transporte ferroviario, en particular, la gestión de infraestructuras ferroviarias públicas, transporte de pasajeros y de mercancías;*

*– desarrolla con carácter independiente una actividad empresarial, establece una estrategia comercial, adopta decisiones relativas a las condiciones de las actividades de la sociedad (mercado de producto, segmento de clientes, etc.), participa en un mercado competitivo en toda la Unión Europea y fuera del mercado de la Unión, prestando servicios de fabricación y reparación de material rodante, y participa en procedimientos de adjudicación de contratos públicos vinculados a tal actividad, con el propósito de obtener pedidos de terceros (no de la sociedad matriz);*

*– presta servicios de reparación de material rodante a su fundador en virtud de operaciones internas, cuyo valor representa el 90 % del total de la actividad de la sociedad, y*

*– presta servicios a su fundador destinados a garantizar las actividades de este en el ámbito del transporte de pasajeros y mercancías?*

Auzitegiaren erantzuna honako hau da: *“El artículo 1, apartado 9, párrafo segundo, de la Directiva 2004/18/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 31 de marzo de 2004, sobre coordinación de los procedimientos de adjudicación de los contratos públicos de obras, de suministro y de servicios, en su versión modificada por el Reglamento (UE) n.º 1251/2011 de la Comisión, de 30 de noviembre de 2011, debe interpretarse en el sentido de que una sociedad que, por una parte, pertenece en su totalidad a un poder adjudicador cuya actividad consiste en satisfacer necesidades de interés general y que, por otra parte, lleva a cabo tanto operaciones para dicho poder adjudicador como operaciones en el mercado competitivo debe calificarse de «organismo de Derecho*



*público» en el sentido de esta disposición, siempre que las actividades de dicha sociedad sean necesarias para que ese poder adjudicador pueda ejercer su actividad y que, para satisfacer necesidades de interés general, la referida sociedad se guíe por consideraciones que no sean económicas, extremo que ha de verificar el órgano jurisdiccional remitente. Carece de pertinencia a este respecto el hecho de que el valor de las operaciones internas pueda representar, en un futuro, menos del 90 % del volumen de negocios global de la sociedad o una parte no esencial de éste.”*

Hemen ikusenez gertatzen diren dituela berezko baliabidearen izaera eta merkataritza-izaera eza, zera, botere esleitzaileraren izaera.

Beraz, ondorioztatu behar da TOLARGI SL enpresa elektrizitate-merkatuan indarrean dauden merkataritza-irizpideen arabera arautzen dela, bere jardueraren merkatu arautu honetan garatzen duela, eta bere diru-sarrerak aipatutako merkatutik lortzen dituela; beraz, ez xedeagatik, ez negozio-bolumenagatik, ez ditu betetzen Tolosako Udalaren berezko bitarteko izateko baldintzak. TOLARGI SL merkataritza-izaerako udal sozietatea da, merkatuan jarduten duena eta energia elektrikoa banatzeko jardueraren merkatuan garatzen duena. Tolosako Udalaren sektore publikoaren parte da, baina ezin da Udalaren berezko bitartekotzat hartu.

Arrazoi hauengatik proposatzen da amaiera ematea 2016ko uztailaren 27ko bilkuran Tolosako Udaltzaren Osoko Bilkurak ebaztutako kudeaketa aginduari.

## **E) KUDEAKETA-AGINDUAREN AMAIERAREN ONDORIOAK.**

Kudeaketa-agindua amaitu eta gero, TOLARGI SL sozietateak jarraituko du bere xedearen jardueraren garatzen, zera, jarraituko du energia elektrikoa banatzen Tolosako udalerrian. Halaber, bere zuzendaritza organoen ardura izango da enpresako jardueraren bermatzea eta, ahal den neurrian, zabaltzea, dagokion eremu geografikoaren barruan. Hori dena, sektore elektrikoa arautzen duen legerian xedatutakoaren arabera.

Bitarteko materialei dagokienez, sozietatearen bulegoak gaur egungo egoitzan egongo dira, Udalaren jabetzakoa den Gorosabel eraikinaren beheko solairuan.

Tolosako Udalak TOLARGI SLren alde egiten dituen zerbitzuei dagokienez, honako hau proposatzen da:

- Sozietatearen pertsonalaren kudeaketari dagokienez, ohiko kudeaketa-lanak eta ez ohikoak bereizi behar dira. Ohiko kudeaketa lanak (nominak, gizarte aseguruak, PFEZergaren atxekipenak, etab.) abenduaren 31n amaituko dira. Aldiz, Tolosako udalak jarraituko du ematen ez ohiko izaera duten lanak: aholkularitza juridikoa, pertsonala hautatzeko oinarriak eta epaimahaietan partaidetza, etab.
- Tolosako Udalak jarraituko du ematen lege- eta zerga-arloko aholkularitza, sozietateak hala eskatuz gero.



- Tolosako Udalak unean-unean emango ditu aipatutako zerbitzuak, sozietateak bere aholkularitza izateko duen betebeharraren kalterik gabe

Erabaki hau indarrean sartzten den unetik, TOLARGI SLk ez dio inolako ordainsaririk emango Tolosako Udalari.

Erabakia indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean. Halaber, Kontratugilearen profilean argitaratuko da.

## F) ORGANO ESKUDUNA

Erabaki hau hartzeko organo eskuduna, udalbatza osoa da, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2. b) eta f) artikuluan xedatutakoaren arabera. Gainera, erabakiak behar du korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa, aipaturiko Legearen 47. 2.h) artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du 2022ko uztailaren 20an izandako bilkuran. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi, Begoña Tolosa, Xarles Iturbe, eta Jose Mari Villanueva.

**Abstentzioak:** Ander Figuerido, Garbiñe Marzol, Estitxu Kortejarena

Hots, irizpenaren proposamena gehiengoz onartu da.

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Tolosako Udaleko Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### IRIZPENA

**LEHENA.-** Amaitzea Tolosako Udalak TOLARGI SL sozietateari energia elektrikoa banatzeko egindako kudeaketa-agindua.

**BIGARRENA.-** TOLARGI SL sozietateari bere estatutuak aldatzeko proposamena egitea, bitarteko propio izateari buruzko aipamenik egin ez dadin, eta 2016ko uztailaren 27ko Batzar Orokorrean egindako estatutuen aldaketak lehengoratzeari.

**HIRUGARRENA.-** Onartzea kudeaketa-aginduaren amaierak honako ondorio hauek izatea:

- Kudeaketa-agindua amaitu eta gero, TOLARGI SL sozietateak jarraituko du bere xedearen jarduera garatzen, zera, jarraituko du energia elektrikoa banatzen Tolosako udalerrian. Halaber, bere zuzendaritza organoen ardura izango da



enpresako jarduera bermatzea eta, ahal den neurrian, zabaltzea, dagokion eremu geografikoaren barruan. Hori dena, sozietatearen estatutuetan eta sektore elektrikoa arautzen duen legerian xedatutakoaren arabera.

- Bitarteko materialei dagokienez, sozietatearen bulegoak gaur egungo egoitzan egongo dira, Udalaren jabetzakoa den Gorosabel eraikinaren beheko solairuan.
- Tolosako Udalak TOLARGI SLren alde egiten dituen zerbitzuen kasuan :
  - Sozietatearen pertsonalaren kudeaketari dagokionez, ohiko kudeaketa-lanak eta ez ohikoak bereizi behar dira. Ohiko kudeaketa lanak (nominak, gizarte aseguruak, PFEZergaren atxekipenak, etab.) abenduaren 31n amaituko dira. Aldiz, Tolosako udalak jarraituko du ematen ez ohiko izaera duten lanak: aholkularitza juridikoa, pertsonala hautatzeko oinarriak eta epaimahaietan partaidetza, etab.
  - Tolosako Udalak jarraituko du ematen lege- eta zerga-arloko aholkularitza, sozietateak hala eskatuz gero.
  - Tolosako Udalak unean-unean emango ditu aipatutako zerbitzuak, sozietateak bere aholkularitza izateko duen betebeharraren kalterik gabe.

**LAUGARRENA.-** Ebazpen hau indarrean jartzen denetik aurrera, TOLARGI SL sozietateak ez dio Tolosako Udalari ordainduko kudeaketa-agindua dela-eta ordainsari gisa ezarritako zenbatekoa. Nolanahi ere, TOLARGIk 2022ko ekitaldian kudeaketa-agindua indarrean egon den aldiari dagokion ordainsaria ordainduko dio Tolosako Udalari.

**BOSGARRENA.-** Erabaki hauek indarrean sartzea —aurreko atalean xedaturikoaren kalterik gabe— Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

**SEIGARRENA.-** Erabaki hauek TOLARGI SLri jakinaraztea, Udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratzea, eta Kontratugilearen profilean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturik), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du amaitzea Tolosako Udalak TOLARGI SL sozietateari energia elektrikoa banatzeko egindako kudeaketa-agindua.



## **5. HASIERAKO ONARPENA EMATEA EUSKAL HERRIA PLAZAKO 1. ZENBAKIAN DAGOEN ERAIKINAREN ZUZENKO ADMINISTRAZIO-EMAKIDARAKO ESPEDIENTEARI.**

Une honetan, Xarles Iturbe Pasaban zinegotziak utzi egin du bilkura.

Udalbatzako kideek honako irizpen hau aztertu eta bozkatu dute:

### **ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2022KO UZTAILAREN 20KO IRIZPENA**

#### **AURREKARIAK:**

1) 2021eko abenduaren 23an, Tolosako Ekinbide Elkarteak, 1127 sarrera zenbakiarekin, eskaera egin zuen Tolosako Udalaren jabetzakoa den Euskal Herria plazako 1. zenbakiko eraikinaren emakida eskatuz, Tolosako Ekinbide Etxearen zerbitzuak bertan emateko. Horretarako, memoria aurkeztu du.

Memoria horretan, informazio hau ematen du:

- Zein diren CIT-TEE elkartearen jarduera nagusiak.
- Zein diren bere jardueraren interes publikoa defendatzeko arrazoiak.
- Zein izan daitekeen emakida honen adjudikazio zuzena arrazoituko lukeen lege-oinarria.

2) 2022ko urtarrilaren 14an, Kultura, Festak, eta Gazteriako zerbitzuburuak txostena egin du. Bertan, proposatzen den emakidaren justifikaziorako azalpena egin du.

Kontzesio horren beharra justifikatzeko argudioak honako hauek izan dira:

«Tolosaren herri kultural izaeraren garapenean, eta gizartearen ordezkari diren eragileen artean, CIT-TEE da garrantzitsuena, bere historiari esker, gizartean duen sustraitze mailari esker, bai eta berak antolatutako jarduerak Tolosan bertan nahiz mundu zabalean duten proiektioagatik.

Historiari dagokionez, elkarte honek 54 urte bete ditu pasa den 2021. urtean, eta beste asko beteko dituela pentsatzeko arrazoiak baditugu, elkartearen egiturak duen sendotasuna eta antolatzen dituen jardueren kalitate eta interesaren maila eta egonkortasuna kontuan hartzen baditugu CIT-TEE elkarteak antolatzen ditu urteroko Nazioarteko Abesbatzen Jaialdia, Txotxongiloen Titirijai izeneko nazioarteko topaketa, Ama-Lur jardunaldiak, etnografiarekin eta antropologiarekin lotura duten gaiak goimailako gonbidatuekin osatuak, eta urte osoan zabalik dagoen TOPIC izeneko Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa kudeatzen du, museoa, dokumentazio zentroa, produkzio-gunea, antzokia, erakusketa aretoa eta formazio-guneak barnean dituela.





Eskaintza honen interesaren adierazgarri dira urtero TOPIC-el jasotzen duen 15.000tik gorako bisitari kopurua, zentroari bisita egiten dioten ikastetxe ugariak, Leidor aretoa betetzen duten musika koral zaleak, eta Ama Lur jardunaldietan aretoa egunero betetzen duten ikusleak.

CIT-TEE elkarteak sortzen duen jarduera kulturala ekonomia eragilea ere bada, Tolosan urtean 1.000.000 eurotik gorako gastua egiten delarik, zerbitzu, inbertsio nahiz bestelako horniduretan.

Tolosako udalak gastu horiei aurre egiteko urtean 100.000 inguruko diru-laguntza ematen dio elkarte honi, gastuen %10era iristen ez den kopurua. Beste guztia bestelako erakunde publiko nahiz pribatuetatik, edo zerbitzuak sortutako baliabideei esker finantziatzen da. Gastu honen zati bat bertako pertsonalaren kontratazioetan joaten da, 2021ean 17 laguneko plantila mantentzen delarik.

Lehenago esan bezala, TOPIC-en ematen diren zerbitzuen artean 250 lagunentzako prestatutako antzokia dago. Areto hau teknologia berrieekin prestatuta dago antzezlan, kontzertu, proiektzio eta lan jardunaldietarako. Honi esker lortu da Tolosan Leidorren osagarri perfektua den gune eszenikoa, urtean ia 200 eguneko okupazio aizatera iristen dena. Arrazoi hauek guztiak kontutan hartuta, sustatu zuen Tolosako udalak garai batean erorita eta aprobeixamendu pribaturik ez zeukan orube eta eraikin bat birreraiki eta urte asko lehenago garatzen ari zen jarduera batekin edukiz betetzeko asmoa, CIT-TEE elkartearekin alegia. Asmo hau gauzatzeko borondateak ekarri zituen aktuzio administratibo garrantzitsu batzuk:

a) 2007garren urtean Lankidetzaren Hitzarmen Markoa sinatu zuten Tolosako alkateak eta CIT-TEE elkarteak etorkizunean, eraikinaren birgaitze lanak bukatzean, elkarrekin lan egiteko moduari buruzko zehaztasunak ematen zituena.

b) 2011ko maiatzaren 5ean onartu zuen Tolosako udaleko Ohiko Osoko Bilkurak "TOPIC dagoen eraikinaren erabilera pribatiborako demaniozko kontzesio espedientea". Espedientea osatzen zuen dokumentuetako bat zen "Klausula Administratibo eta partikularren agiria, Euskal Herria Plazako 1 zenbakidun eraikinaren, TOPIC Nazioarteko Txotxongilo Zentroaren, eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatiboaren zuzeneko adjudikazio bidezko kontzesioa arautzen duena".

2011ko ekainaren 9n lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten orduko Tolosako Udalak eta orduko CIT-TEEko lehendakariak.

Dokumentu honek biltzen zituen bi erakundeen arteko harremanak nolakoak izango ziren elkartearen jardueraren eta finantziarioari dagokionean.



2011garren urteko Osoko Bilkurak onartutako espedientek, ordea, ez zuen aurrera egin eta ez zen gauzatu handik aurrerako tramiterik, beraz, espediente itxi gabe gelditu zen Egoera honetaz jabetuta, espediente berri bat ireki zen 2021garren urtean, orduko erabakiaren iraungitzea onartzeko, eta prozedura berri bati ekin ahal izateko. Espediente hau tramitatu eta onartu zuen 2021eko irailaren hogeita hamarrean Osoko Bilkurak.

Honen ondoren, CIT-TEE elkarteak TOPIC izeneko eraikinaren demanio kontzesio garatzeko bidean, Tolosako udalari Euskal Herria plazako 1. zenbakiko eraikina dohainik uzteko eskaera egin dio erregistro elektronikoaren bidez abenduaren 23an».

3) 2022ko urtarrilaren 24an Administrazio Orokorreko teknikariak txosten juridikoa egin zuen. Besteak beste, hau ondorioztatu zuen: Hamar eguneko epean interesdunak egiaztatu behar zuen onura publikotzat jotzeko agiria bazuela.

4) 2022ko urtarrilaren 25ean (Errekerimenduan ezarritako epe barruan) agiri hori aurkeztu zuen.

5) 2022ko apirilaren 6an, Kultura, Festak, eta Gazteriako zerbitzuburuak ondasunen inbentarioa aurkeztu zuen, eta txosten tekniko osagarria egin zuen.

6) 2022ko maiatzaren 9an, Hirigintzako buruak eraikinaren balorazioa egin zuen: 4.736.632 euro.

## **TXOSTEN JURIDIKOA.**

Aldez aurretik, Tolosako Ekinbide Etxearen izaera eta helburuak aztertuko dira:

### **Tolosako Ekinbide Etxearen izaera eta helburuak:**

Tolosako Ekinbide Etxearen Estatutuek honela diote:

1. artikulua honela dio: *«La Asociación sin ánimo de lucro, Centro de Iniciativas Turísticas de Tolosa, n.º de registro RPG 359, constituida con fecha de 3 de abril de 1967, e inscrita con fecha 8 de abril de 1967, se rige por lo dispuesto en la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación, por la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi, por sus desarrollos reglamentarios, por los presentes Estatutos en cuanto no estén en contradicción con las citadas disposiciones generales y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos siempre que no sean contrarios a la ley o a los presentes Estatutos».*

2. artikulua honela dio: *«Los fines de esta Asociación son:*

*-Planificar y coordinar toda clase de actividades turísticas de promoción de la villa de Tolosa.*



*-Fomentar las visitas a Museos, Galerías de Arte, Pinacotecas, Monumentos, Lugares históricos , jardines botánicos , excursiones dirigidas por la villa y su entorno a fin de conocer tanto las bellezas naturales como los lugares históricos, empleando a tal fin medios divulgativos, como conferencias, seminarios , publicaciones y en definitiva, la propagación de todo cuanto concierne a la historia, costumbres y tradiciones, bellezas naturales y medio ambiente, en general.*

*Fomentar todo tipo de actividades educativas, de carácter social o soci-sanitario, de voluntariado, de cooperación al desarrollo, de ocio y tiempo libre, culturales, así como de protección al medio ambiente que incluso superen el ámbito de carácter nacional e internacional, bien en locales propios o ajenos cedidos al efecto..*

*-Para la consecución de los fines anteriores , se organizarán exposiciones, festivales, certámenes , conferencias y publicaciones.*

*-El CIT de Tolosa mantendrá una estrecha colaboración con todas las Instituciones de carácter local, nacional e internacional que colaboren en la realización de sus actividades.*

*-Cualquier otra actividad no reseñada anteriormente pero que se encuadre dentro de los Estatutos de la FECIT, y en particular, promover el estudio, conocimiento, divulgación, enseñanza y aplicación de todo proceso técnico, económico, social, cultural, ecológico, etc, que contribuya al armónico desarrollo del turismo».*

#### **OINARRI JURIDIKOAK:**

**LEHENA.** Toki-entitateetako ondasunak bitan banatzen dira: jabari publikoko ondasunak eta ondare-ondasunak edo propioak. Jabari publikoko ondasunak erabiltzerakoan, erabilera pribatibotzat hartuko da jabari publikoko zati bat okupatzea, baina gainerako interesatuen erabilera mugatzen duela edo kanpo uzten duela.

Kontzesio edo emakida administratiboaren bidez egingo da jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa.

Kasu honetan, Tolosako Ekinbide Etxearen esku utzi nahi den eraikuntzak deskripzio hau du udal inbentarioan:

Nombre de la finca: Plaza Euskal Herria 1

Naturaleza del inmueble: urbana

**Naturaleza del dominio: Servicio Público.**

Signatura del Registro: Inscrito por el 206 L.H., tomo 1.598, Libro 243, Folio 1, Finca:11.966, Inscripción 1ª.

Tolosako Ekinbide Etxeari Euskal Herria plazako 1. zenbakiko eraikina lagatzeko era kontzesioa da.



**BIGARRENA.** Aplika daitekeen legeria:

— 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena; 74. eta 75. artikulua eta 78.etik 91.era bitartekoak.

— 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa; 93 eta 137.4 artikulua.

— 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; 9. artikulua eta 115.etik 155.era bitartekoak, eta Bigarren, Hirugarren eta Hamabosgarren Xedapen Gehigarriak.

**HIRUGARRENA.** 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak (SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, 9. artikuluan xedatzen duenaren arabera, **Lege honetatik kanpo gelditzen dira** ondasun higiezinak, balore negoziagarrien eta ondasun gorpuzgabeen gainean egindako salerosketa-, dohaintza-, truke- eta errentamendu-kontratuak eta gainerako antzeko negozio juridikoak (ordenagailu-programei buruzkoak salbu; kasu horretan, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat joko dira eta). Aipatutako horiek guztiek kontratu pribatuen izaera izango dute, eta ondare-legeriaren pean egongo dira.

Ondare-legeria hori ondare-legeria estatala da, zehazki esanda, 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena.

33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, 110.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ondare-ondasun eta ondare-eskubideen gaineko kontratu, hitzarmen eta gainerako negozio juridikoak, beren prestaketa eta esleipenari dagokionez, lege honek eta hura garatzeko xedapenek arautuko dituzte, eta arau horietan aurreikusten ez dena Administrazio Publikoetako kontratuei buruzko legeriak arautuko du. Haien eraginak eta azkentzeak lege honek eta zuzenbide pribatuko arauak arautuko dituzte.

Era berean, 1372/1986 Errege Dekretuak, ekainaren 13koak, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duenak, 98.2 artikulua xedatutakoaren arabera, kontzesioak emango dira aurrez lizitazioa eginda eta Administrazio Publikoetako kontratuen legearekin bat etorrira.

Hari beretik, 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, 93.1 artikuluan dio (oinarrizkoa, Azken Xedapenetako



Bigarrenean ezarritakoaren arabera) jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak norgehiagoka-araubidean egin behar direla.

**LAUGARRENA.** Jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak norgehiagoka araubidean egin behar dira. **Halere, zuzenean eman ahal izango dira 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, 137.4 artikuluan jasotako supostu edo kasuetan, ohiz kanpoko inguruabarrak badira tartean, behar bezala justifikatuta, edo legetan ezarritako beste kasu batzuetan.**

33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, 137.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipen zuzena egin ahal izango da kasu hauetan:

a— Eskuratzailerak beste administrazio publiko bat denean edo, orokorrean, sektore publikoko zuzenbide publiko edo pribatuko edozein pertsona juridiko. Horren ondorioetarako, sektore publikoko zuzenbide pribatuko pertsona juridikoa honako hau izango da: merkataritza-sozietate bat, baldin eta kapitalaren gehiengoak badu, zuzenean edo zeharka, administrazio publiko batena edo batzuen edo zuzenbide publikoko pertsona juridiko batena edo batzuen.

b— Eskuratzailerak irabazteko asmorik ez duen entitate bat denean, onura publikokotzat joa, edo legez aitortutako eliza, konfesio edo komunitate erlijioso bat.

c— Higiezina beharrezkoa denean zerbitzu publikoko zeregin bat betetzeko edo interes orokorreko helburu bat gauzatzeko, baina aurreko bi paragrafoetan aurreikusita ez dagoen pertsona batek egina.

d— Besterentzeko sustatutako lehiaketa edo enkantea huts deklaritzen denean, edo haiek huts egiten badute esleipendunak bere betebeharrak bete ez dituelako, beti ere urtebete igaro ez bada haiek egin zirenetik. Kasu honetan, besterentzeko baldintzak ezin dira izan aurretik iragarritakoak baino kaskarragoak izan edo esleipena eman zeneko baldintzak baino kaskarragoak izan.

e— Orubean ezin eraiki denean, formagatik edo tamaina txikiagatik, eta salmenta jabe mugakide bati egiten zaionean.

f— Ekonomikoki ustiatzeko adinako azalerarik ez duen landa-finka denean, edo bertan bere izaerarekin bat datorren erabilera bat gauzatu ezin denean, eta salmenta jabe mugakide bati egiten zaionean.

g— Ondasunaren edo eskubidearen titulartasuna bi jaberena edo gehiagorena denean eta salmenta jabe baten edo gehiagoren alde egiten denean.



h— Salmenta egiten denean lege-xedapenez aitortutako lehentasunezko eroste-eskubidea duenaren alde.

i— Ez ohiko arrazoiak tarteko komenigarritzat jotzen denean salmenta higiezina okupatzen ari denaren alde egitea.

**Kasu honetan, zuzeneko emakida,puntu honetan dago justifikatuta: Administrazio Publikoaren ondarea xedatzen duen 33/2003 Legea, 137.4.b) artikuluan,** hain zuzen: kasu hauetan zuzeneko esleipena ahal izango da:

«Eskuratzailea irabazteko asmorik ez duen entitate bat denean, onura publikokotzat joa, edo legez aitortutako eliza, konfesio edo komunitate erlijioso bat».

Erakundearen ordezkariak adierazi zuen onura publikokotzat jo zutela. Alderdi hori agiri bidez egiaztatu behar zutela jakinarazi zion udalak ordezkariari hamar eguneko epea emanaz agiria aurkezteko.

2022ko urtarrilaren 25ean, Eusko Jaurlaritzak, 1994ko irailaren 6an, «Centro de Iniciativas Turísticas» izeneko elkarte onura publikokotzat jotzeko ziurtagiria aurkeztu zuen.

**BOSGARRENA.** Emakidak ezin dira epe-mugarik gabe eman, 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, 93.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kasu honetan hogeitaz urterako izatea proposatu du Kultur teknikariak.

**SEIGARRENA.** Erabilera pribatuko emakidak edo jabetze publikoaren aprobetxamendu berezikoak doan izan daitezke; kontraprestazio edo baldintza batekin eman daitezke; tasa bat ordaindu beharra izan dezakete erabilera pribatiboagatik edo jabetza publiko estataleko ondasunen aprobetxamendu bereziagatik —zeina arautzen duen 25/1998 Legeak, uztailaren 13koak, 25/1998 Legeak, uztailaren 13koak, Estatuaren eta Toki Erakundearen Tasek Lege Araubidea aldatu eta Ondare Prestazio Publikoak berrantolatzen dituenak, I Tituluko VIII Kapituluaren—; edo araudi berezietan ezarritako tasak ordaindu beharra izan dezakete,

Erabilera pribatiboak edo jabetza publikoko ondasunen aprobetxamendu bereziak ez du tasarik ordaindu beharko, baldin eta esleipendunarentzat onura ekonomikorik ez badakar; edo, onurarik badakar ere, erabilerak edo aprobetxamenduak dituen baldintzek edo kontraprestazioek onura hori baliogabetzen edo hutsal uzten badute.



Onar daitezkeen baldintza orokorrek edo partikularrek jaso ditzaketen gainerako kontuen kaltetan izan gabe, kontzesioa emateko erabakiak jaso beharko ditu, gutxienez, Lege horren 92. artikuluko 7. apartatuan baimenentzako ezarrita dauden aipamenak, salbu eta kalte-ordainen eskubiderik ez duen alde bakarreko ezeztapenari dagokiona.

**ZAZPIGARRENA.** Komenigarritzat jo daitezkeen beste alderdi batzuk gehitzeko aukeraren kaltetan izan gabe, kontzesioa emateko erabiltzen diren klausulek alderdi hauei erreferentzia egin beharko diete:

- a) Emakidaren helburua eta mugak.
- b) Obrak eta instalazioak, interesdunak egin beharrekoak, hala dagokionean.
- c) Erabilera-epea, luzaezina, araudi berezian ezarritakoaren kaltetan izan gabe.
- d) Esleipendunaren betebeharrak eta eskumenak Korporazioarekin duen harremanean, eta Korporazioak hartzen dituenak.

e) Baldin eta erabileraren bidez publikoari zerbitzu pribaturik eman behar bazaio, hartarako ezarri diren tarifak, hala badagokio behintzat, eta tarifa horiek adierazi behar dira haiek osatzen dituzten faktoreak xehatuta dituztela, ondorengo berrikuspenen oinarri gisa.

f) Baldin eta dirulaguntzarik ematen bada, zer dirulaguntza mota den, zenbatekoa, epeak eta interesdunari emateko modua.

g) Udalari ordaindu behar zaion kanona.

h) Erabilitako jabetza-zatia egoera onean edukitzeko betebeharra, eta, hala dagokionean, zer obra egin dituen.

i) Obrak eta instalazioak itzuli behar diren edo ez epea bukatutakoan.

j) Korporazioak eskumena duela esleipena ondoriorik gabe uzteko epea bukatu baino lehen, baldin eta hura justifikatzen badute gertatu diren interes publikoko inguruabarrek, eta jarri beharko da sortutako kalteak ordaintzeko beharrik badagoen edo ez.

k) Kontzesioa ematen dela jabetza eskubiderik gabe eta hirugarrenei kalterik egin gabe.

l) Zer zigor ezartzen diren interesdunak, bere betebeharrak direla-eta, egindako arau-hauste arin, larri edo oso larriengatik.



m) Emakidadunaren betebeharra erabilitako ondasunak uzteko eta libre uzteko, udal entitatearen esku, ezarritako epean, eta aitortzea udal entitateak ahalmena duela, berez, botatzea edo kaleratzea ebazteko eta exekutatzeko.

**ZORTZIGARRENA.** Prozedura honi jarraitu beharko zaio:

**A.** Aurrena ondorengo guztia justifikatu behar da: **Udalaren beharra edo komenientzia** ondasunaren emakida egiteko; bere helburua edo helburuak; eta zer esleipen-prozedura jarraituko den. Ondoren, udal zerbitzu teknikoek txostena egingo dute, zeina oinarri izango den jabetza publikoko ondasunaren erabilera pribatuaren emakida administratiboa egiteko, barne izango duelarik merkatuan gutxi gorabehera duen prezioaren **balorazioa**.

**B.** Emakida ebazteko eskumena duen organoak hasiera emango dio espedienteari eta aginduko du idatz dezatela esleipena arautuko duen **administrazio-baldintza partikularren plegua**.

**C.** Emakidaren oinarri izan behar duen **proiektuak eta lizitazio-oinarriak jendaurrean jarri behar dira** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita, 30 egunez gutxienez, eta epe horretan erreklamazioak eta alegazioak aurkez daitezke.

Era berean, interesdunen eskura egongo da iragarki-taulan eta Udalaren egoitza elektronikoan.

**D.** Jendaurreko tramiteak zer eman duen ikusita, kontratazio-organok ebazpen arrazoitua emango du, espedientea onartuko du eta adjudikazio-prozedura irekiko du.

**E.** Adjudikazioa zuzenean egingo da; hortaz, erabilera pribatiboaren administrazio-emakida eskainiko zaio hartan interesa duen pertsonari edo enpresari.

**Gonbidapenean** honako hau jarri behar da: **eskaintza jasotzeko muga-eguna**; zer helbidetara bidali behar den; zer hizkuntzatan idatzi behar den; zer agiri osagarri erantsi behar zaizkion, hala badagokio behintzat; eta zer lekutan, egunetan eta ordutan irekiko den proposamena.

**F.** Kontratazio-organok, hala dagokionean, hartarako izendatzen den batzorde negoziatzailearen bidez (kontratazio-organoren menpeko teknikoek osatua) **eskaintza** baloratu eta **negoziatuko du**, eta behar izanez gero, **lizitatzailleari eskatuko dio** aurkez dezala, batetik, administrazio-baldintza partikularren pleguan aurretiaz ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, bestetik, eratu dezala behin betiko bermea, hain zuzen ere, okupatutako jabetza publikoak duen balioaren % 3ko bermea.





Horretarako, **hamar egun balioduneko epea izango du**, eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

**G. Kontratua formalizatu behar da** dokumentu administratibo batean, zeinak zehatz-mehatz bat etorri behar duen lizitazio-baldintzekin, eta dokumentu hori titulu nahikoa da edozein erregistro publikotara jotzeko. Nolanahi ere, kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikoan jasotzea, eta bere kontura izango dira horren gastuak.

#### **Organo Eskuduna Udalbatza:**

Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017ko Bigarren Xedapen Gehigarriko 9. eta 10. puntuek ezarritakoarekin bat. Honela dio artikulua horrek: «Toki Entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango da haietan kontratu pribatuak egitea, bai eta toki entitateen ondasunen gaineko emakidak adjudikatzea eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea ere, baldin eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua ez bada, 100.1 artikuluan zehaztutako baldintzekin bat, aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa eta hiru milioiko euro baino gehiago; ondarea besterentzea ete beren eskumena izango da, balioa ez bada ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa».

Muga hori gainditzen bada, osoko bilkurarena izango da.

Kasu honetan, 2022ko maiatzaren 9an, Hirigintzako buruak txostena egin du. Bertan, Euskal Herria plazako 1. zenbakiko eraikuntzaren balioa hau dela informatu du: 4.736.632,49 euro.

Beraz, aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa izanik, osoko bilkurari dagokio onarpena.

Erabakia hartzeko ez da beharrezkoa gehiengo absolutua, Toki Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 47.j artikulua eskatzen baitu gehiengo hori aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 20a baino handiagoa bada. Kasu honetan gehiengo simplea nahiko da.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du 2022ko uztailaren 20an izandako bilkuran. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi, Begoña Tolosa, Ander Figuerido, Garbiñe Marzol, Estitxu Kortejarena eta Jose Mari Villanueva. Hots, irizpenaren proposamena aho batez onartu da.

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Tolosako Udalbatzaren Osoko



Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena-** Justifikatutzat ematea Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren erabilera pribatiboa Tolosako Ekinbide Etxeari zuzenean emateko beharra eta komenigarritasuna.

**Bigarrena-** Onartzea espedientea, Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatiboaren kontzesioa zuzeneko adjudikazio bidez egiteko.

**Hirugarrena.** Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatiboaren zuzeneko adjudikazioa arautzen duena.

**Laugarrena-** Espedientea eta klausula administratiboak 30 egun jendaurrean edukitzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta eta Gardentasun Atarian, Tolosako Udalaren webgunean eta Udaletxeko iragarki taulan jarrita.

**Bosgarrena-** Alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat jotzea, eta Tolosako Ekinbide Etxeari eskaintzea Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren erabilera pribatiboaren administrazio kontzesioa.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturata), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako Ekinbide Etxeari Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikuntza zuzeneko kontzesioan lagatzea.

Xarles Iturbe Pasaban zinegotzia bilkurara itzuli da.

## **6. ONARTZEA PERTSONALAREN HAUTAKETA PROZESUETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA EGITEN DUTENEI TASA EZARTZEA.**



Udalbatzako kideek honako irizpen hau aztertu eta bozkatu dute:

## ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2022KO UZTAILAREN 20KO IRIZPENA

### 1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

**Xedea:** Langile funtzionario edo pertsonal laborala hautatzeko prozesuetan parte hartzeko Udalean eskaera egiten dutenei tasa ezartzea.

### 2.- AURREKARIAK

Aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren barnean, abenduaren 28ko 20/2021 Legeak bidea eman du lehiaketa bidez hautaketa jardunbideak egiteko. Hori horrela, Giza Baliabidetako Sailak proposamena egin du aurkezten diren izangaiei tasa bat jartzeko. Horretarako, prozesu bakoitzaren kostua hartu da kontuan.

### 3.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru arauan honako hau xedatzen da:

*«Tasak ondoko zerga-gaia duten tributuak dira: Herri jabariaren erabilera pribatiboa edo aprobeitxamendu berezia, eta zergapekoari modu partikularrean egokitu, eragin edo mesede egiten dioten zerbitzu prestazioak edo jarduerak zuzenbide publikoko erregimenean ematea edo egitea, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek zergapekoek beren borondatez eskatu edo jasotzekoak ez badira edo sektore pribatuak eman edo egiten ez badituzte.*

*Zerbitzua emateagatik edo jarduera egiteagatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan, batera hartuta, zerbitzu edo jarduerak benetan duen edo izan dezakeen kostua edo, halakoaren ezean, zerbitzuaren prestazioaren balioa baino».*

### 4.- TASAREN ZENBATEKOA

Prozesu bakoitzaren kostua kontuan hartuz, tasaren zenbatekoa honako hau litzateke:

A1	20 euro
----	---------



A2	15 euro
C1	10 euro
C2	10 euro

## 5.- TASAREN ERANSKINA

### Ordenantza fiskala honela geratzea proposatzen da:

«Art. 1.- Zergapeko egitatea.

Tasaren zergapeko egitatea da Udal honek langile funtzionarioak eta laboralak hautatzeko —bai plazak behin-behinean edo behin betiko estaltzeko, bai lan-poltsak eratzeko— deitutako sarrera- probetan parte-hartzea eskatzen dutenen artean gauzatzen den jardura teknikoa eta administratiboa da.

2. art.- Subjektu pasiboak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren hautatze-probetan izangai gisa izena ematea eskatzen duten pertsona fisikoak dira tasaren subjektu pasiboak.

Ez dute subjektu pasiboaren izaerarik eta, beraz, ez daude tasa honetara loturik, karrerako funtzionario izaera edo lan-kontratudun finkoaren izaera edukita, barne sustapenetako hautaketa prozesuetan hautagai gisa izena ematea eskatzen dutenek.

3. art. Sortzapena.

1. Tasaren sortzapena hautatze probetan izena ematea eskatzen den unean sortuko da.

2. Izena emateko eskaera hori ez da izapidetuko tasaren zenbatekoa Ordenantza honetako 5. artikuluan aurreikusitako baldintzetan ordaintzen ez den bitartean.

4. art. Zerga kuota.

Honako zerga kuota hauek ezarri dira:

A1	20 euro
A2	15 euro
C1	10 euro
C2	10 euro



## 5. art. Kudeaketa arauak.

1. Ordenantza honetan araututako tasa autolikidazio erregimenean eskatuko da baliabide informatikoak prest baldin badaude. Bestela, transferentzia bidez ordaindu beharko da.

Subjektu pasiboek udal administrazioak hartarako gaitutako inprimakietan gauzatu beharko dute autolikidazioa, eta baimendutako edozein banku entitatetan egin beharko dute diru sarrera hori, izena emateko dagokion eskaera aurkeztu aurretik.

Tasa hori aurreko paragrafoan adierazitako epean ordaintzen ez bada, ez da onartuko hautatze probetarako izangai izatea.

2. Izena emateko eskaerarekin batera aurkeztu beharko da, beti, autolikidazioaren kopia, diru sarrera behar bezala eginda.

3. Subjektu pasiboari egotzi ezin zaion kasuengatik zergapeko egitatea den jarduera teknikoa eta/edo administratiboa egiten ez denean, bidezkoa izango da dagokion zenbatekoa itzultzea. Beraz, ez da bidezkoa izango inolako itzulketarik egitea, interesdunari egotzi ahal zaizkion kausengatik hautatze probetatik kanpo geratzen bada».

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortajarena Ugarte.

Aho batez onartu da.

Hori dela eta hau, batzordeak

### DIKTAMINATU DU

**LEHENA.-** Onartzea 5. puntuan azaldutako tasaren ordenantza fiskala.

**BIGARRENA.-** Ordenantza hori 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki



taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Epe horretan erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, aldaketa behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturatuta), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Antolakuntza Batzordeak, 2022ko uztailaren 20an, onartutako diktamena: langile funtzionario edo pertsonal laborala hautatzeko prozesuetan parte hartzeko tasa.

## **7. HASIERAKO ONARPENA EMATEA KONPROMISO KREDITUAK ONARTZEKO 1/2022 ESPEDIENTEARI.**

**Antolakuntza Batzordeak, 2022ko uztailaren 20an, hauxe diktaminatu zuen:**

Tolosako Udalak industria-pabiloi bat erosi nahi du ibilgailu eta bere jabetzako beste ondasunen biltegi gisa erabiltzeko. Pabiloia Tolosan dago, San Esteban auzoko 9. zenbakian, eta bi erregistro-finkak osatzen dute: 15126 eta 15128.

Pabiloia erosteko, lehenik, gaur egun indarrean dauden premiamendu-prozedurak amaitzea proposatzen da, zorra gauzen bidez ordainduta. Horri esker, Udalak finka bakoitzaren zati zatiezina eskura dezake.

Jarraian, gainerako zatia salerosketaren bidez eskuratzea proposatzen da. Kasu honetan, jabekide bati higiezin baten gaineko kuota erostea denez, zuzenean eskuratzea erabaki daiteke, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 116.4.c) artikulua araberak.

Pabiloia erosteko akordioaren zirriborroaren arabera, prezioa 2.100.000,00 eurokoa da, honela banatuta:

Finka 15126: 1.465.600,07 euro



Finka 15128: 634.399,93 euro

Eta ordainketa ondorengo urteetan banatu nahi da:

Urtea	Finka 15126	Finka 15128	Guztira
2022	489.646,96	210.353,04	700.000,00
2023	209.132,81	90.867,19	300.000,00
2024	383.410,15	166.589,85	550.000,00
2025	383.410,15	166.589,85	550.000,00
Guztira	1.465.600,07	634.399,93	2.100.000,00

Erabakia hartu aurretik, Udalak bermatu behar du aurrekontu kreditua badagoela eta proposatzen den gastuaren izaera kontutan hartuta proposatutako kreditua egokia dela.

Urte anitzeko gastu konpromisoak hartu behar badira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 22. artikulua xedatutakoa bete behar da.

Konpromiso kredituen zenbateko osoa eta bere exekuziorako aurreikusten diren ekitaldien arteko banaketa hauek dira:

Urtea	Guztira
2023	300.000,00
2024	550.000,00
2025	550.000,00
Guztira	1.400.000,00

21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluko 2. paragrafoaren arabera, etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromiso kredituen zenbateko metatua ezin du izan likidatutako azken ekitaldiko sarrera arrunten % 25 baino gehiago.

2023rako beste konpromiso kreditua dago indarrean 300.401,60 eurokoa. Hain zuzen ere, udalak eta Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF) Enpresa Erakunde Publikoak sinatu nahi duten hitzarmenaren barnean Udalak bere gain hartuko dituen obligazio ekonomikoei aurre egiteko, Udaltzak 2021eko irailaren 30ean onartutakoa. Hitzarmena "Poyecto de adecuación de accesibilidad e instalación de ascensores en la estación de Tolosa Centro (Gipuzkoa)" gauzatu ahal izateko da.

Horren arabera, hau da egoera:



Urtea	Lehen	Orain	Guztira	Konpromisoak / sarrera arruntak 2021 (1)
2023	300.401,60	300.000,00	600.401,60	2,1%
2024		550.000,00	550.000,00	2,0%
2025		550.000,00	550.000,00	2,0%

(1) Likidatutako azken ekitaldiko sarrera arruntak 27.951.069,95

Beraz, proposatutako konpromiso kredituak bat datoz 21/2002 Foru Arauaren 22.artikuluak aurreikusitakoarekin.

Bestalde, 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluko 4. paragrafoak adierazten du Aurrekontuek ezingo dutela konpromiso krediturik bildu, baldin eta beraien gauzatzea ekitaldian bertan edo hurrengoan hasten ez bada.

Kasu honetan ere, baldintza hau betetzen da, erosketa 2022an gauzatzea aurreikusita dagoelako.

Ez du adierazten 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluko konpromiso kredituak onartzeko zein organoak duen eskumena. Zehaztuta ez dagoenez, nire ustez konpromiso kredituak onartzeko eskumena udalbatzari dagokio, Udal Erregimenari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluen arabera, Udalbatzari dagokiola aurrekontuen onarpena eta aldaketa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena aztertu da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 22. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:**

Xarles Iturbe Pasaban  
Begoña Tolosa Mendia  
Xabier Balerdi Tolosak  
Jose Mari Villanueva Telleria

**Aurkako botoak:**

Ander Figuerido Zubiria  
Garbiñe Marzol Ormazabal  
Estitxu Kortejarena Ugarte

Hori dela eta, Batzordeak

**DIKTAMINATU DU**

**Lehenengoa.**- Hasierako onarpena ematea San Esteban auzoko 9. zenbakian kokatuta dagoen pabiloiaren erosketa gauzatzeko Udalak hartuko dituen obligazio ekonomikoei aurre egiteko 1/2022 konpromiso kredituen espedienteari.





Konpromiso kredituen zenbateko osoa eta bere exekuziorako aurreikusten diren ekitaldien arteko banaketa hauek dira:

Urtea	Guztira
2023	300.000,00
2024	550.000,00
2025	550.000,00
Guztira	1.400.000,00

**Bigarrena.-** Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Aurkako botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturatuta), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu** du Antolakuntza B atzordeak 2022ko uztailaren 20an onartutako diktamena: Konpromiso kredituak onartzeko 1/2022 espedientea. Hasierako onarpena.

## **8. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2022 DIRULAGUNTZEN ERANSKINA ALDATZEKO 2-2022 PROPOSAMENARI.**

**Antolakuntza Batzordeak, 2022ko uztailaren 20an, hauxe diktaminatu zuen:**

2022ko dirulaguntzen eranskinean, honako aldaketa hauek sartzea proposatu da:



Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2022	Mota
1000.481.01.341.00	TAK	Arraunaren sustapena	8.000	Izenduna
1000.481.01.341.00	SASKIBALOIKO EUSKAL FEDERAZIOA	Goi mailako emakumeen kopa	7.500	Izenduna

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:**

Xarles Iturbe Pasaban  
Begoña Tolosa Mendia  
Xabier Balerdi Tolosa  
Ander Figuerido  
Zubiria Garbiñe  
Marzol Ormazabal  
Estitxu Kortejarena  
Ugarte Jose Mari  
Villanueva Telleria

Hori dela eta, Batzordeak

**DIKTAMINATU DU**

**Lehen.**-Hasierako onarpena ematea dirulaguntzen eranskineko aldaketa hauei eta, ondorioz, aldaketa horiek sartuta, eranskina honela uztea:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2022	Mota
1000.481.01.341.00	TAK	Arraunaren sustapena	48.000	Izenduna
1000.481.01.341.00	SASKIBALOIKO EUSKAL FEDERAZIOA	Goi mailako emakumeen kopa	7.500	Izenduna

**Bigarrena.**- 2022ko dirulaguntzen eranskineko aldaketak jendaurrean jartzea hamabost lanegunez, Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean,



Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturatuta), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Antolakuntza B atzordeak 2022ko uztailaren 20an onartutako diktamena: 2022ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamena 2-2022. Hasierako onarpena.

## **9. ONARTZEA TOLOSAKO UDAL KIROL-INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALERAKO ZERBITZUEN EMAKIDA-KONTRATUAREN HASIERA DATA.**

Une honetan, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe Kirol zinegotziak utzi egin du bilkura.

Udalbatzako kideek honako irizpen hau aztertu eta bozkatu dute:

### **ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2022KO UZTAILAREN 20KO IRIZPENA**

#### **I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea	Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratu
Unitate sustatzailea	Kirol Saila
Espedientea	2021CSER0002

#### **II.- AURREKARIAK**

Lehena.- 2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60045-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.



Bigarrena.- Tolosako Udaleko Kirol Saileko buruak 2021ko irailaren 7an egindako txostenean, aipatutako xedea zuen zerbitzu emakida-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion.

Hirugarrena.- 2021eko irailaren 30ean Ohiko Osoko Bilkurak, besteak beste, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren espedientea onartu zuen eta hasiera eman zitzaion lizitazioari.

Laugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) eta KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresek aurkeztu zituzten beraien eskaintzak.

Bosgarrena.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2022ko otsailaren 8an kontratazio-mahaiak hau proposatu zion kontratazio-organoari: BPXPORT XXI, S.L.U. enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, ezaugarri nagusi hauekin:

- Epea: hamar urte kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita.
- urteko kanona: 120.000 euro.

Administrazio-emakidek eta -baimenek ez dute BEZik ordaindu behar, hargatik eragotzi gabe ITPk eta EJDk (kostu bidezko ondare-eskualdaketen kontzeptua) zergapetzea. Bestalde, enpresa emakidadunak partikularrari emandako zerbitzua BEZari lotuta egongo da, eta ez BEZa ordaintzetik salbuetsita.

Seigarrena.- Aurrekoa aintzat hartuta, 2022ko otsailaren 23an, udalbatzak onartu zuen BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, urteko kanon honekin: 120.000euro.

Zazpigarrena.- Adjudikazio ebazpena lizitatzailer eta hautagai guztiei legearen arabera jakinarazi eta gero, KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresak kontratazio-arloko errekurtso berezi bat jarri zuen ebazpenaren kontra.

Zortzigarrena.- Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak, 2022ko uztailaren 5eko 116/2022 (EB 2022/050) Ebazpenaren bidez, aipatutako errekurtso hori ezetsi eta esleipen prozeduraren etendura kentzea erabaki zuen. Horrenbestez, KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresari jakinarazi zitzaion Tolosako Udalarentzat zerbitzuak emateko azken eguna 2022ko uztailaren 31 izango zela eta, halaber, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresa kontratista berriari jakinarazi zitzaion 2022ko abuztuaren 1ean formalizatuko dela dagokion kontratua eta egun horretatik aurrera hasi beharko duela Tolosako Udalarentzat lanean.

Bederatzigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, 2022ko uztailaren 8an, 2022-8036 sarrera zenbakiarekin, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) eta KIROLZER, S.L. (B31603996)



enpresek idatzi bat aurkeztu zuten Udalean aipatutako data hori hilabete atzeratzeko eskatuz.

Hamargarrena.- 2022ko uztailaren 15ean Kirol Saileko teknikariak enpresek eskatutakoaren aldeko txostena igorri zuen, ondo oinarrituta baitago aurkeztutako eginkizun-plangintza.

### **III.- ARAUBIDE JURIDIKOA**

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 153. artikuluan hau xedatzen du kontratuen formalizazioari buruz:

*Artículo 153. Formalización de los contratos.*

*1. Los contratos que celebren las Administraciones Públicas deberán formalizarse en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, el contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos. En ningún caso se podrán incluir en el documento en que se formalice el contrato cláusulas que impliquen alteración de los términos de la adjudicación.*

*En los contratos basados en un acuerdo marco o en los contratos específicos dentro de un sistema dinámico de adquisición, no resultará necesaria la formalización del contrato.*

*2. En el caso de los contratos menores definidos en el artículo 118 se acreditará su existencia con los documentos a los que se refiere dicho artículo.*

*3. Si el contrato es susceptible de recurso especial en materia de contratación conforme al artículo 44, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos. Las Comunidades Autónomas podrán incrementar este plazo, sin que exceda de un mes.*

*Los servicios dependientes del órgano de contratación requerirán al adjudicatario para que formalice el contrato en plazo no superior a cinco días a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada la suspensión de la formalización del contrato. De igual forma procederá cuando el órgano competente para la resolución del recurso hubiera levantado la suspensión.*

*En los restantes casos, la formalización del contrato deberá efectuarse no más tarde de los quince días hábiles siguientes a aquel en que se realice la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos en la forma prevista en el artículo 151.*

*4. Cuando por causas imputables al adjudicatario no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado se le exigirá el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido, sin perjuicio de lo establecido en la letra b) del apartado 2 del artículo 71.*

*En este caso, el contrato se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación*



*establecida en el apartado 2 del artículo 150 de la presente Ley, resultando de aplicación los plazos establecidos en el apartado anterior.*

*5. Si las causas de la no formalización fueren imputables a la Administración, se indemnizará al contratista de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar.*

*6. Sin perjuicio de lo establecido en los artículos 36.1 y 131.3 para los contratos menores, y en el artículo 36.3 para los contratos basados en un acuerdo marco y los contratos específicos en el marco de un sistema dinámico de adquisición, y salvo que la tramitación del expediente de contratación sea por emergencia de acuerdo con lo previsto en el artículo 120, no podrá procederse a la ejecución del contrato con carácter previo a su formalización.*

Beraz, 153.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, **5 egun balioduneko epean formalizatu beharko litzateke kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak ebazpena emandako egunetik kontatzen hasita**, baina horrek, erabat ezinezkoa egingo luke kontratuaren exekuzioa kirol instalazioetan dagoen langilego guztia enpresa kontratista berriak subrogatu behar baitu. Halaber, langilegoaren oporraldia eta nominetan zailtasunak hartu behar dira kontuan hemen.

Kirol Saileko teknikariak ontzat eman du enpresek egindako eskaera adostuta.

#### **IV.- KONTRATAZIO-ORGANOAK**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

*1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*

*2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateetako alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino altuagoa da; gainera, kontratuaren iraupen osoa,



luzapenak barne, bost urte baina gehiagokoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du 2022ko uztailaren 20an izandako bilkuran. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi, Begoña Tolosa, Xarles Iturbe, eta Jose Mari Villanueva.

**Abstentzioak:** Ander Figuerido, Garbiñe Marzol, Estitxu Kortejarena

Beraz, irizpenaren proposamena gehiengoz onartu da.

Aurreko guztia aintzat harturik, kontratu honen organo eskudunari, Udalbatzaren Osoko Bilkurari, honako erabaki hauek hartzea proposatu zaio, haren ebazpenaren kalterik gabe:

## IRIZPENA

**Lehena.-** Onartzea BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) eta KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresek egindako eskaera adostua eta, horrenbestez, kontratu berriaren formalizazioa 2022ko irailaren 1eko datarekin egitea. Horrela KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresak 2022ko abuztuaren 31 bukatuko du eta, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresa 2022ko irailaren 1ean hasi beharko da Tolosako Udalarentzat lanean.

**Bigarrena.-** Erabaki horiek jakinaraztea Kirol Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturik), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.



Beraz, Udaltzakerak aho batez **onartu** du Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren hasiera data.

Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe zinegotzia bilkurara itzuli da.

## **10. UZTURRE ASISTENTZIA GUNEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUEN PREZIOAK EGUNERATZEA: 2018-2019-2020 ETA 2021 URTEAK.**

**Antolakuntza B atzordeak 2022ko uztailaren 20an, hauxe diktaminatu zuen:**

### **1.- AURREKARIAK**

2018ko abenduaren 11ko datarekin eta 9541 zenbakiarekin aurkeztu zuen Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioak eguneratzeko eskaera Tolosako Udalaren erregistroan. Horrekin batera, argi eta garbi adierazi zuen bere idatzian eskaera hau: "(...)"

1. Que para las futuras actualizaciones de las mencionadas tarifas, que siempre se deberán actualizar en el primer mes del año correspondiente, únicamente se tenga en cuenta la subida del IPC del País Vasco.

(...)"

Hain zuzen ere, zerbitzua sortu zenetik "de facto" adostu zen emakidadunaren eta Udalaren artean urteroko prezio eguneraketa Euskadiko KPlaren igoeraren arabera egitea. Dena den, desadostasuna sortu zen bi aldeen artean urte bateko KPla negatiboan aplikatu ez izanaren ondoren, eta horren guztiaren ondorioz, 2015, 2016, 2017, 2018 urteetan Tolosako Udalak ezin izan zituen gauzatu prezioak eguneratzeko prozesua, akordio faltagatik eta informazio faltaregatik. Era berean, aipatu behar da 2017urtean Udalak baimendu gabeko igoera aplikatu zuela Uzturre Asistentzia Guneak.

Beraz, Uzturre Asistentzia Gunearen espedientearen prezioaren inguruan jasotakoak aztertuta, 2019ko uztailaren 23an honako proposamen hau egin zuen Gizarte Zerbitzuetako Sailak:

*" (...). Behin zerbitzua abian jarri zenetik aurrera, hainbat erabaki hartu dira prezioen eguneraketaren inguruan. Esaterako, 2012ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuran erabaki zen apartamentuen eta etxe komunitarioaren ekarpen baremoak eta 2012rako prezioak onartzea.*

*2015. urtean, ordea, Uzturre Asistentzia Guneak egindako eguneraketa proposamena ez zuen onartu Tolosako Udalak, planteatutako igoerak ez zituela hitzartutako irizpideak jarraitzen baloratu zelako, eta ordutik aurrera ez da inolako erabakirik hartu prezio hauen inguruan.*





*Horretarako, erantsita doan taulan agertzen dira gai honen inguruan Uzturre Asistentzia Guneak helarazi duen prezioen eboluzioa. Horren harira, aipatu behar da 2014. urtez geroztik prezioak ez direla eguneratu.*


*Dena den, Uzturre Asistentzia Guneak jarraitu du bere zerbitzua eskaintzen, eta Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Departamentuan jaso dugun informazioa kontuan izanda, esan daiteke eskaintako zerbitzua gizarte ongizatearen ikuspuntutik beharrezkoa dela, eta beraz, eta herritarren interes orokorrekoa.*

*Beraz, 2018ko abenduaren 11ko datarekin Uzturre Asistentzia Guneak aurkeztutako eskaera aztertuta, honen bidez proposatzen dut azertu dezala Kontuhartzaitza Departamentuak prezioen gaia, hain zuzen ere kontratua hitzartu zenetik gaur egunera arteko prezio horien eboluzioa zein izan behar zuen zehaztuz, eta 2019. urtean aplikatu beharreko prezioak zeintzuk diren proposatuz. Era berean, uste dut egokia litzatekeela hurrengo urteetarako eguneratzeko irizpide objektibo bakarraren hautua adostea emakidadunarekin, azken urte hauetan sortutako zailtasunak ekiditearren, eta horretarako, proposatzen dut kontuhartzaitzak proposatu dezala horretarako egokiena izan daitekeen irizpidea.”*

Hala eta guztiz ere, 2019, 2020, 2021 urteetan ez da izapidetu prezioen eguneraketarik, informazio faltaren argudioak eraginda. Ondorioz, 2019. urtean erabaki zuen Tolosako Udalak AGEM elkartearen kontratatzea, honako lan hau egiteko: “Análisis jurídico del contrato de construcción y explotación de centro gerontológico”. Lan horretan, beste hainbat gairen artean, espreski eskatu zitzaion Uzturre Asistentzia Gunean eskaintzen diren zerbitzuen tarifen eguneraketaren proposamena egin zezala, 2014. urtetik tarifa horiek eguneratu gabe zeudela kontuan izanik. 2020ko azaroan aurkeztutako txostenean honakoa jaso zen:

**“(…) 8.3 Actualización de las tarifas de los servicios complementarios**

*Siguiendo el criterio de revisión de precios establecido en la oferta económica de los pliegos que fue acordada por el Ayuntamiento, podemos considerar que básicamente los criterios a tener en cuenta son los siguientes:*

- *Variación del  IPC del País Vasco.*
- *Variación salarial del convenio colectivo aplicable.*
- *Variación de tarifas aprobadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

*A modo orientativo y con el ánimo de ser lo más objetivos posibles, se adjunta como **anexo 2** la actualización de tarifas por estos servicios hasta 2020, con los tres escenarios previamente indicados: 1) actualización según IPC del País Vasco, 2) actualización en base al criterio propuesto por la empresa en 2017, y 3) actualización según porcentaje medio resultante del IPC del País Vasco, variación salarial y variación de las tarifas de la Diputación.*

*No obstante, consideramos que se trata de una cuestión que conviene consensuar entre el Ayuntamiento y la empresa concesionaria, estableciendo un criterio concreto que se aplique de manera uniforme en los próximos ejercicios.*

*(…)*



Hori ikusirik, eta Tolosako Udalaren Kontuhartzailtza Sailarekin kontrastatuta, egokia eta komenigarria ikusten da Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioen eguneraketa bideratzea, eta, horrekin batera, hurrengo urteetarako prezio horiek eguneraketaren oinarria ezarriko duen adierazlea bakarra izendatzea, objektiboa eta finkoa izango dena. Kasu honetan, honako irizpide honen haraberako eguneraketa sistematikoak artikulatzeko beharra adostu da Uzturre Asistentzia Gunearekin: euskadiko KPlaren urteko akumulatua, urtarrilean argitaratzen dena.

Era berean, Tolosako Udalaren Kontuhartzailtza Sailak landu du eta aurkeztu du proposamena 2014an onartutako tarifa horiek gaur egunera egokitzeko aplikatu beharreko portzentaia kalkulatzuz. Hori horrela, %10,80eko igoera aplikatzea proposatzen da, eta proposamen honi erantsitako tarifen taula osatzen da.

Beraz, guzti hori kontuan izanik, Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Saileko arduraduna naizen honek ondokoa **proposatzen dut**:

**Lehenengoa** .- Onartzea Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen 2022rako prezioen zerrenda (eranskina 1)

**Bigarrena** .- Hurrengo urteetan prezio horiek eguneratzeko erabiliko den adierazlea finkatzea: euskadiko KPlaren urteko akumulatua, urtarrilean argitaratzen dena. Prezioen eguneratzea urtero egingo da, lehen hiruhilekoan, eta erabakia gobernu batzordean onartu ondorengo hilabetearen lehen egunetik aplikatuko da; alegia, apirilaren 1etik aurrera eguneratutako prezioak aplikatzea izango da helburua.

**Hirugarrena** .- Prezioa eguneratua izan ez den urteetan emakidadunak jasan duen kaltearen eragina aztertzea, kalte-ordainik badagokio espediente hori izapidetua izan dadin.

Azterketa hori egiterakoan kontuan izango da hau:

- 2015, 2016, 2017, 2018, 2019, 2020, 2021 urteetan Tolosako Udalak prezioak bideratzeko prozesua ez duela gauzatu, bestek beste, akordio faltagatik eta informazio faltagatik;
- 2017an Udalak baimendu gabe prezio igoera aplikatu zuen Uzturre Asistentzia Guneak."

2022ko martxoaren 31ko osoko bilkuran onartu ziren 2022ko prezioen eguneraketak 2022ko apiriletik aurrera.



*2022ko ekainaren 23an diruzainak 2018,2019,2020 eta 2021eko tarifen eguneraketan kalkuluak egin ditu euskadiko KPlaren urteko akumulatua kontuan izanda. Kalkulu horien emaitzaren guztizkoa da 16.340,31 €.*

**2022ko uztailaren 15ean kontuhartzaileak gastua onartzeko aldeko txostena egin du.**

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria,

**Abstentzioak:** Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte.

Beraz, irizpena gehiengoz onartu da.

Hori dela eta, batzordeak

## DIKTAMINATU DU

**LEHENA.-** 16.340,31 €-ko ordainketa onartzea San Cosme y San Damiani, azken lau urteetan prezioak ez eguneratzearen ondorioz eragindako egoerari erantzuteko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturik), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Antolakuntza Batzordeak 2022ko uztailaren 20an onartutako diktamena: Uzturre asistentzia guneak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioen atzerapenak : 2018, 2019, 2020 eta 2021 urteak.



## **11. ONARTZEA 2021EKO TOLOSAKO UDALEKO SEKTORE PUBLIKOAREN KONTU OROKORRA.**

### **Kontuen batzorde bereziaren irizpena**

#### **Aurrekariak**

2021eko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorra aurkeztu da. Kontuhartzaileak azaldu ditu Kontu Orokorra osatzen duten

1. Udalaren Kontua
2. TOLARGI SLren Kontua
3. Tolosa Gasa SAren Kontua

eta bakoitzak biltzen dituen egoeren eta kontuen edukia.

Kontu Orokorrari kontu horien egoera-orri integratu eta bateratuak gehituko zaizkio.

Dokumentu osagarrien artean Udalaren mende eta kontu orokorrean integratu gabe dauden entitate hauen urteko kontuak ere sartu dira:

1. Tolosaldea Garatzen SA
2. Zazpiturri SA
3. Apattaerrekako Industriegunea SL

Batzordekideek Kontu Orokorraren laburpena aztertu dute. Laburpen honetan honako dokumentu hauek bildu dira.

#### **1. Udalaren dokumentazioa.**

- 1.1. Egoera Balantzea
- 1.2. Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua
- 1.3. Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria
- 1.4. Diru-fluxuen egoera orria
- 1.5. Memoria
- 1.6. Aurrekontu emaitza eta kontabilitate emaitza berdinkatzeko egoera orria

#### **2. TOLARGI SLren dokumentazioa.**

- 2.1. Urteko kontuak
- 2.2. Aurrekontuaren likidazioaren dokumentazioa



### 3. Tolosa Gasa SAren dokumentazioa.

3.1. Urteko kontuak

3.2. Aurrekontuaren likidazioaren dokumentazioa

### 4. Dokumentazio osagarria.

4.1. Tolosaldea Garatzen SAren Urteko Kontuak

4.2. Zazpiturri SAren Urteko Kontuak

4.3. Apataerrekako Industriegunea SLren Urteko Kontuak

### 5. Aurrekontu bateratua

5.1. Sarrerren aurrekontu bateratua

5.2. Gastuen aurrekontu bateratua

5.3. Aurrekontu bateratua xehatua

Ekitaldi bakoitzeko Kontu Orokorrari dagokionez, hurrengo ekitaldiko maiatzaren 15a baino lehen Kontu batzorde bereziak txostena eman beharko du.

Kontu Orokorra eta Kontu batzorde bereziaren txostena jendaurrean egongo dira hamabost egunez. Denbora horretan interesdunek erreklamazioak edo oharrak aurkeztu edo eragozpenak aurkitu ahal izango dituzte. Kontu batzorde bereziak hauek aztertu ondoren, beste txosten bat emango du.

Kontu Orokorra Udalbatzari aurkeztuko zaio, Kontu batzorde bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta eragozpenekin batera, hala egokituz gero uztailaren 31 baino lehen onar dezan.

### **Araubide aplikagarria**

- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 62, 63 eta 64. artikulua.



- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako Toki Entitateen kontabilitatearen arau esparrua arautzen duena, 1. Eranskinaren II. kapitulua.

### **Proposamena**

Kontu Orokorra behar bezala justifikatua geratu da, dokumentu horiek aztertu ondoren, eta Kontu Orokorra, Aurrekontuarekin, Gastuen Egoera aldatzeko erabakiekin, Aurrekontuaren Likidazioarekin, hala nola Aurrekontu-Ondare kontabilitatea osatzen duten beste liburu eta dokumentuekin konparatu eta gero.

Ikusirik aplikagarria den arautegia, jaulkitako txostenak eta espedientea tramitzeko eta onartzeko prozedura, Kontuen batzorde bereziari ondorengo hau proposatzen zaio:

**Lehena.-** 2021eko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorrari aldeko txostena ematea

**Bigarrena.-** Kontu Orokorra, Kontuen batzorde bereziaren txostenarekin batera, jendaurrean jartzea hamabost egunetan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren, epealdi horretan interesatuek erreklamazioak, ingerak zein oharrak aurkeztu ahal izateko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturia), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du 2021eko Tolosako Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorra.

## **12. TOLOSAKO HIRI-EKONOMIA INDARBERRITZEKO DIRULAGUNTZA PROGRAMAKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Udalbatza osoko kideek honako irizpena aztertu eta bozkatu dute:



## HERRITARRAK BATZORDE INFORMATIBOAREN 2022KO UZTAILAREN 20KO IRIZPENA

### AURREKARIAK

Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela, batetik, tokiko ekonomia- eta gizarte- garapena; eta, bestetik, barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea; zentzu horretan, baita txikizkako merkataritza planifikatzea eta antolatzea ere, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzorua erabilerari erantzunez.

Hori horrela, Udalbatzak, 2021eko uztailaren 29an egindako Osoko Bilkuran, Tolosako hiri- ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programaren ordenantzari hasierako onespina eman zion. Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, informazio publikorako ikusgai jarri zen hogeita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, zehazki, 2021eko irailaren 17ra arte.

Behin aurkeztutako erreklamazioa erantzunda, 2021eko urriaren 27an egindako Osoko Bilkuran Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programaren ordenantza behin betikoz onartu zen (GAO, 2021eko azaroak 5, 212 zk.). Ordenantza espezifiko horrek, hiri-ekonomiaren arloan, honako dirulaguntza-lerroak jasotzen ditu:

- 1. *eranskina*: BERRIZ TOLOSA
- 2. *eranskina*: EKIN
- 3. *eranskina*: GUNE BIZIAK

Horren ostean, 2021eko azaroaren 10ean, 2021/1856 zinegotzi delegatuaren dekretuaren bidez, Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programaren 2021eko deialdia onartu zen. Deialdi hori kudeatu ondoren, hainbat hobekuntza-erlota hauteman dira, batzuk edukiari buruzkoak eta beste batzuk formari buruzkoak.

Bi alderdi garrantzitsu zehaztu behar izan dira: batetik, oinarri orokorretan zehapen- prozedura, laguntza iruzurrez erabiliz gero, zehapen zehatzak definituz; bestetik, EKIN programaren eremu objektiboa, enpresa-ekimen berri gisa ulertzen zer ulertzen den argitzeko. Horrekin guztiarekin, interesdunari informazio osatuagoa eman nahi zaio, anbiguitasunak saihesteko asmoz.

Bestalde, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 8. artikuluekin, eta Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 5. artikuluekin bat eginik, beharrezkoa da dirulaguntzen kudeaketa printzipio orokor batzuen baitan egitea. Hori horrela, lokalen erosketen kasuan, ezinbestekotzat jotzen da diruz lagunduko diren gehieneko zenbatekoak mugatzea, lokal bat alokatzeari dagokionez aurreikusita dagoen bezala alegia. Hain zuzen ere, berdintasun eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko eragingarritasunaren baitan.



Era berean, irizpideen balorazioa objetibizatze eta sistematizatze aldera, irizpide berriak finkatzeaz gain, formulario-plantilak egin dira, dirulaguntza eskatzerako orduan jaso nahi den informazioa modu errazagoan, normalizatuan eta parekoan izan dadin.

Jakina da etenik gabeko aldaketa politikoak, ekonomikoak eta sozialak araudien egokitzapenak eta moldaketak dakartzatela. Hori horrela, argitaratu berri den 1/2022ko Legeak, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoari buruzkoak, hainbat arlori eragiten die, tartean, lehia bidezko dirulaguntzei. Ondorioz, horrek ordenantza araudi berrira egokitzea eskatzen du.

Aurreko guztia kontuan izanda, Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2022ko uztailaren 20an egindako bilkuran, irizpen proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

• **Aldeko botoak:**

- Xarles Iturbe, EAJ
- Izarne Iglesias, EAJ
- Begoña Tolosa, EAJ
- Garbiñe Marzol, EH Bildu
- Ander Figuerido, EHBildu
- Aitzol Gartzia, EHBildu
- Jose Mari Villanueva, PSE/EE

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA**

**LEHENA.-** Hasieraz onartzea Hiri ekonomia sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien aldaketa, honako testu honen arabera:

**TOLOSAKO HIRI-EKONOMIA INDARBERRITZEKO  
DIRULAGUNTZA PROGRAMA**

**AURKIBIDEA**

**XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua. *Dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien xedea*
2. artikulua. *Onuradunak*
3. artikulua. *Onuradunen betekizunak*
4. artikulua. *Eskabideak aurkezteko modua, lekua eta epea*
5. artikulua. *Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko agiriak*
6. artikulua. *Akatsak zuzentzea*





7. artikulua. Balorazio-irizpideak
8. artikulua. Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea
9. artikulua. Onuradunaren betebeharrak eta eskubideak
10. artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea
11. artikulua. Laguntzak elkartzea eta bateragarritasuna
12. artikulua. Aplikatu beharreko araudia
13. artikulua. Ez-betetzeak dirulaguntzen esparruan. Zigortzeko-prozedura
14. artikulua. Arau-hauste administratiboak
15. artikulua. Administrazio-zehapenak
16. artikulua. Datu pertsonalen babesa
17. artikulua. Ahalmena

## **AZKEN XEDAPENA**

*Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (JEZ) inguruan*

## **ERANSKINAK**

- *I. eranskina: Negozioen arteko eskualdaketa sustatzeko ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak – BERRIZ TOLOSA*
- *II. eranskina: Tolosan enpresaritza ekimen bat abiarazteko ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak – EKIN*
- *III. eranskina: Kale espazioak eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzeko programa - GUNE BIZIAK*
- *IV. eranskina: Tolosan enpresaritza ekimen bat abiaraztea – EKIN programan onartzen diren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) talde eta epigrafeak*

## **ARRAZOIEN AZALPENA**

*Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela, batetik, tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta, bestetik, barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea; zentzu horretan, baita txikizkako merkataritza planifikatzea eta antolatzea ere, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzorua erabilerari erantzunez.*

*Alor horretan, Tolosako Udalak legeak zehazten dituen eginkizunak gauzatu nahi ditu, are gehiago gaur egungo errealitatea kontuan izanda. Izan ere, hiri-ekonomia osatzen duten sektoreak eraldaketa prozesu sakon batean murgilduta daude hainbat erronkari erantzun behar baitiote: kontsumo ohitura berrietara egokitzea; informazio eta komunikazio teknologia berriak txertatzea; omnikanalitatea garatzea; errelebo faltari eta ekintzailetasun tasa baxuari erantzutea; kale espazioak egokitzea; lokal hutsen kudeaketa, e.a.*



*Eraldaketa horiek guztiak hiri-ekonomiako sektoreen biziraupena baldintzatzen dute, eta faktore horietan eragitea ezinbestekotzat jotzen da horien eragin negatiboa gutxitzeko, eta guztiaren gainetik udalerriko bizi-kalitatea eta kohesio soziala bermatzen dituen merkataritza eredia (hiri-ekonomia) mantentzeko. Horregatik, Administrazioaren ardura da, besteak beste, ekintzaile eta negozio berriei babesa eskaintzea, bertako garapen ekonomikoa lehenetsiz.*

*Bestalde, hiri-ekonomian planifikazio falta da enpresen itxiera eragiten duen faktore nagusietako bat. Enpresen eskualdaketarako plan batek berekin eduki behar ditu enpresa aurrera segitzeko prozesuak eta, aldi berean, kudeatzaileen aldaketak eragindako nahasmendua zuzentzeko tresnak eta egutegia. Ildo horretan, Administrazioak erraztu eta gidatu behar ditu ibilbide horiek, sektorearen biziraupena berma dadin.*

*Itxiera horien ondorioz, gainera, geroz eta lokal huts gehiago aurki daitezke herriko kaleetan, bai Zabalgunean (% 56,2), bai Alde Zaharrean (% 43,8) (Siadeco, 2019). Alde Zaharreko lokalen kasuan, gainera, zailtasun gehigarriak izaten dituzte bertan jarduera berri bat martxan jartzerako orduan, besteak beste, lokalen ezaugarriengatik eta Alde Zaharrak berezkoak dituen arauengatik.*

*Gainera, lokal hutsek segurtasun eta zikinkeria arazo ugari sortzen dituzte merkataritza guneetan. Horri dagokionez, kaleetan jarraikortasuna lortzeak, hau da, lokal hutsik gabeko eremua izateak eta merkataritza eremu erakargarri eta atsegina lortzeak sektorearentzako eta bizilagunen bizitzarako onurak dakartzate.*

*Hiri-ekonomia osatzen duten sektoreak indarberritzeko eta jasangarri egiteko, hortaz, ezinbestekotzat jotzen da Ordenantza honetan araututako dirulaguntza lerroak xedatzea, zeinen bitartez bultzatzen diren ekintzaile eta negozio berrien abiaraztea, negozioen arteko eskualdaketa eta merkataritza-establezimenduen erakargarritasuna.*

## **XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua. Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileen xedea**

*Oinarri hauen xedea da dirulaguntzak emateko arauak ezartzea hiri-ekonomiaren esparruko jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzeko, tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz, enpresa-ekimen berriak abiarazteko eta kale espazio hutsak dinamizatzeko.*

*Oinarri hauetarako hiri-ekonomiaren esparruan sartuko dira merkataritza, hiriko merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak, ostalaritza edo turismo sektoreko jarduerak.*

*Dirulaguntzen banaketa, ondoren jasotzen diren eta eranskin gisa identifikatzen diren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera egingo da:*

- I. eranskina: Negozioen arteko eskualdaketa - BERRIZ TOLOSA programa.*
- II. eranskina: Tolosan enpresaritza ekimen bat abiaraztea – EKIN programa.*



- *III. eranskina: Kale espazio eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzea – GUNE BIZIAK programa.*

## **2. artikulua. Onuradunak**

*Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.*

*Kasuan kasu, hiru onuradun profil daude:*

1. *Ekintzaileak.*
2. *Merkataritza lokal hutsen jabeak.*
3. *Tolosan beste merkataritza saltoki baten jabeak.*

## **3. artikulua. Onuradunen betekizunak**

*Onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak honako hauek dira:*

1. *Egunean izatea Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta Tolosako Udalarekiko zerga-betebeharretan.*
2. *Sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penalik ez izatea dagokion zehapenean ezarritako aldian. Ezta sexuagatik edo 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio-faktoreengatik diskriminatzailea den jarduera, programa edo zerbitzurik garatzea ere, 1/2002, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak barne.*
3. *Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako gainerako egoeretan, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.*

*Dirulaguntza lerro bakoitza eskatzeko baldintza zehatzak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek ezarritakoak izango dira.*

## **4. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea**

*Hautaketa-prozeduraren modalitatea argitaratutako deialdian finkatuko da. Deialdi eta hautaketa-prozedura bakarren bidez, edo deialdi irekiaren bidez izango da, dirulaguntzen ordenantza orokorraren baitan.*

### **- Aurkezteko modua:**

*Interesdunak dagokion dirulaguntza lerroak duen eskabide orria aurkeztu beharko du.*

### **- Aurkezteko lekua:**

*Pertsona fisikoek honela aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:*

- a) *Aurrez aurre, UDATEn.*
- b) *Erregistro elektronikoaren bidez.*
- c) *Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezarritako moduan.*



d) *Indarrean dauden xedapenek ezartzen duten beste edozein lekutan.*

*Erakunde edo pertsona juridikoen kasuan, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoa aurkeztu beharko dira nahitaez, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikoetan ere.*

**- Aurkezteko epea:**

*Eskabideak aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako urteko deialdian finkatuko da.*

**5. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko agiriak**

*Interesdunak jarduera bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioa eranskin bakoitzean zehaztuko da.*

*39/2015 Legearen 28.2 artikulua araberan, administrazio jarduleak dagoeneko bere esku dauden edo edozein administraziok egin dituen dokumentuak kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Kasu horretan, arrazoia justifikatu beharko du, eta dagozkion dokumentuak aurkeztu, izapidetzeko.*

*Ildo horretan, eta hala badagokio, prozedura ebazteko beharrezkoak diren dokumentu hauek kontsultatuko dira datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoa batzuen bidez:*

- *JEZen epigrafean alta ematea.*
- *Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.*
- *Tolosako Udalarekin zorrik ez izatea.*
- *Lizentzia indarrean izatea edo legeztatzeke izapidean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, Udalak horretarako egindako errekerimenduei garaiz eta behar bezala erantzun ondoren.*

*Arazo teknikoak medio, kontsulta ezin bada egin datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoa batzuen bidez, salbuespen gisa, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentazioa aurkezteko.*

**6. artikulua. Akatsak zuzentzea**

*Eskaera-orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo osatu gabe badago, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.*



*Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren, 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.*

#### **7. artikulua. Balorazio-irizpideak**

*Dirulaguntzen eskaerak baloratzeko irizpideak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek dirulaguntza lerro bakoitzean ezarritakoak izango dira.*

#### **8. artikulua. Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea**

*Dirulaguntza emateko ebazpenak adierazi beharko du zer pertsonari ematen zaion eta zer zenbateko duen.*

*Ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25.5 artikulua xedatzen duen moduan.*

*Emakidari buruzko behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.*

#### **9. artikulua. Onuradunaren betebeharrak eta eskubideak**

*Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:*

- Diruz lagundutako lokala hasieran jakinarazitako jarduera garatzeko bakarrik erabiltzea, eta laguntza jasotzen den bitartean establezimendua azken bezeroarentzat zabalik edukitzea. Dirulaguntza lokala eskuratu edo birgaitzeko jasotzen bada, jakinarazitako jarduera garatzeko erabili eta establezimendua azken bezeroarentzat zabalik eduki beharko da 5 urteko epean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.4 artikulua xedatzen duen moduan.*
- GUNE BIZIAK programaren irudia lokalaren erakusleihoan jartzea, ikusteko moduan.*
- Euskara eta hizkuntza-paisaia: oharrak, seinaleak, kartelak eta kanpoko gainerako komunikazio orokorrak (publizitatea, marketina eta ingurune digitala) eta barrualdeko komunikazio finko eta iraunkorrak gutxienez euskaraz egingo dira.*
- Diruz lagundutako jardueraren esparruan sortutako dokumentazioak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkera ez-sexista erabili beharko dute, emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestu beharko dute, eta berdintasun-balioak dituen irudia sustatu beharko dute.*
- Hondakinak gaika sailkatzea eta dagokien lekuan uztea, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko Mankomunitatearen jarraibideei jarraituz.*
- Udalari jakinaraztea onuradunak jarduera etetea aukeratzen badu, etenduraren unetik jasotako zenbatekoa itzuliz. Ondorio horietarako, ulertuko da jarduera etenda dagoela establezimenduak publikoarentzat itxita hilabete baino gehiago badarama, salbu arrazoi justifikatua.*
- Udalari gastu bererako beste dirulaguntza edo laguntzarik jasozer gero, horren berri ematea.*



- Oro har, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako beste edozein.
- Gainera, oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako oinarri espezifikoetan ezarritakoa bete beharko dute.

Honako hauek dira onuradunaren eskubideak:

- Euskara departamentuak sustatutako Merkataritza programan parte hartzeko lehentasuna.

#### **10. artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea**

Udalak egingo du emandako dirulaguntza guztien publizitatea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan aurreikusten den moduan.

#### **11. artikulua. Laguntzak elkartzea eta bateragarritasuna**

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, betiere guztiak batuta, diruz laguntzen diren gastuen kostua gainditzen ez bada.

Hemen arautzen diren dirulaguntzen zenbatekoak ez du inola ere, isolatuta edo beste administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntza edo laguntza batzuekin batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu behar.

Onuradunak arau honetan erregulatutako xede bererako dirulaguntza lortu edota eskatzen badu, modu frogagarrian jakinarazi beharko dio Udalari.

Gainfinantzaketa gerora gertatzen bada, eta dirua itzultzeko obligazioen bat baino gehiago izanez gero, onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Tolosako Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero eta, nolana ere, beste administrazio edo erakunde publiko ala pribatu batzuek, naziokoek edo nazioartekoek, emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortuz gero, emate-ebazpena alda daiteke.

#### **12. artikulua. Aplikatu beharreko araudia**

Testu honetan araututako dirulaguntzek arau xedapen hauetan ezarritakoa bete behar dute:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 1/2002, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa.
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadi toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.



- *Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, 2017ko uztailaren 7koa.*
- *2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.*

### **13. artikulua. Ez-betetzeak dirulaguntzen esparruan. Zigortzeko prozedura**

*Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematean ezarritako edozein betebeharrak ez betetzeak dirulaguntza berrikustea ekarriko du, eta, hala badagokio, emandako zenbatekoa baliogabetu edo itzuli beharko da.*

*Itzulketa-prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, eta, hala badagokio, emandako dirulaguntza errebokatzea, murriztea edo itzultzea erabaki daiteke, arrazoiak emanez. Prozedura izapidetzean, interesdunak hura ezagutzeko duen eskubidea bermatu behar da beti.*

### **14. Arau-hauste administratiboak**

*Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.*

*Arinak:*

- *Hondakinak gaika ez sailkatzea eta dagokien lekuan ez uztea, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko Mankomunitatearen jarraibideei jarraituz.*
- *GUNE BIZIAK programaren irudia lokalaren erakusleihoan ez jartzea.*
- *Oharrak, seinaleak, kartelak eta kanpoko gainerako komunikazio orokorrak (publizitatea, marketina eta ingurune digitala) eta barruko komunikazio finko eta iraunkorrak gutxienez euskaraz ez egitea.*
- *Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 56. artikuluan ezarritako arau-hausteak.*

*Larriak:*

- *Hizkuntza sexista, emakumeen irudi diskriminatzailea edo estereotipo sexistak erabiltzea diruz lagundutako jardueraren esparruan sortutako dokumentazioan, publizitatean, irudian edo materialetan.*
- *Udalari ez jakinaraztea gastu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso direla.*
- *Urte berean gutxienez bi arau-hauste arin berriro egitea, ebazpen irmoz hala deklaratu bada.*
- *Arau-hauste larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 57. artikuluan jasotzen dira.*

*Oso larriak:*

- *Diruz lagundutako lokala hasieran jakinarazitako jarduera garatzeko bakarrik ez erabiltzea.*
- *Udalari ez jakinaraztea onuradunak jarduera etetea erabakitzen badu, eta etetearen unetik jasotako zenbatekoa ez itzultzea.*
- *Urte berean gutxienez bi arau-hauste larri berriro egitea, ebazpen irmoz hala deklaratu bada.*
- *Arau-hauste oso larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 58. artikuluan jasotzen dira.*



### **15. Diru-laguntzen arloko administrazio-zehapenak**

Adierazitako arau-hausteei honako zehapen hauek dagozkie:

- Zehapenak arau-hauste arinengatik: arau-hauste arin bakoitzari 75 euro eta 750 euro arteko isuna ezarriko zaio, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 61. artikuluan aurreikusitako zehapenatarako xedatutakoa izan ezik.
- Zehapenak arau-hauste larriengatik: arau-hauste larri bakoitzari 750 eta 1.500 euro arteko isuna ezarriko zaio, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 62. artikuluan aurreikusitako zehapenatarako xedatutakoa izan ezik.
- Zehapenak arau-hauste oso larriengatik: arau-hauste oso larri bakoitzari 1.500 euro eta 3.000 euro arteko isuna ezarriko zaio, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 63. artikuluan aurreikusitako zehapenatarako xedatutakoa izan ezik.

### **16. artikulua. Datu pertsonalen babesari**

Datu pertsonalen babesari buruz, xedapen hauek aplikatuko dira besteak beste:

- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Udalak izango du datu pertsonalen tratamenduaren ardura. Tratamendu horren helburua dirulaguntzen ondoriozko informazio pertsonala kudeatzea izango da, horretarako zilegitasuna aipatutako legedian jasota dagoelarik.

Herritarrak eskubide hauek izango ditu: datuetara irispidea izateko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, tratamenduaren aurka egiteko eta hura mugatzeko eskubideak.

### **17. artikulua. Ahalmena**

Ahalmena ematen zaio alkateari Ordenantza honetan edozein motatako aldaketak sartzeko, baldin-eta aldaketa horiek badira nahitaez aplikatu beharreko arau-aldaketak eta berekin dakartzatenak baldintzak aldatzea edo zenbatekoak edo portzentajeak automatikoki ordenatzea. Aldaketa horiek berehala jakinarazi behar dizkio osoko bilkurari, berretsi ditzan.

## **AZKEN XEDAPENA**

### **Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (JEZ) inguruan**

Ekintzaile batek EKIN programarako dirulaguntza jasotzeko eskaera egiten badu, eta IV. eranskinean zehazten diren Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (JEZ) talde edo epigraferen batean altan emanda ez badago, Batzorde Teknikoak ahalmena izango du erabakitzeko proiektua onartu edo ez, ekintzaileak aurretik justifikatu ostean; betiere,





*jarduera Ordenantza honetan jasotzen den hiri-ekonomiako sektoreren batekoa bada, eta ekintzailea, dirulaguntza eskaera egiteko unean, JEZn alta emanda badago.*

## **I. ERANSKINA: NEGOZIOEN ARTEKO ESKUALDAKETA SUSTATZEKO EMATEN DIREN DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK – BERRIZ TOLOSA**

### **1. artikulua. Helburua**

*BERRIZ TOLOSA programaren helburua da enpresen eskualdaketa egin eta Tolosako negozio baten ardura hartu nahi duten pertsoneri dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.*

### **2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak**

*Honen bitartez, negozioaren ardura hartu duten pertsoneri diruz lagunduko zaizkie negozioa garatuko den lokalaren alokairu edo erosketa gastuak.*

### **3. artikulua. Onuradunak**

*Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.*

### **4. artikulua. Onuradunen betekizunak**

*Lokalaren alokairu edo erosketa gastuetarako dirulaguntza eskuratzeko bete beharreko baldintzak honako hauek dira:*

- 1. Aldez aurretik, Eusko Jaurlaritzaren enpresa-jarraipeneko BERRIZ ENPRESA programan parte hartu izana, Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzan, eta programan ezarritako baldintzak betetzea.*
- 2. Jarduera Tolosan kokatutako establezimendu batean egotea.*
- 3. Eskualdatutako negozioaren jarduera hiri-ekonomiako sektore hauetako batekoa izatea: merkataritza, ostalaritza edo ostatua.*
- 4. Lizentzia indarrean izatea edo legeztatzeko izapidean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, Udalak horretarako egindako errekerimenduei garaiz eta behar bezala erantzun ondoren.*
- 5. Dirulaguntza eskatzerako orduan, Jarduera Ekonomiko gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egotea.*
- 6. Lokala alokairuan hartu bada, kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izatea.*
- 7. Azken 60 hilabeteen aurretik Tolosako Udalaren aldetik helburu bererako edo antzekorako diru-laguntzarik jaso ez izana. Baldintza hori pertsona juridikoari eta hura osatzen duten pertsona bakoitzari buruzkoa izango da.*
- 8. Saltzaile edo errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide ez izatea.*
- 9. Lokala saltzen edo alokatzen duen pertsonarekin ezkontza-ahaidetasuneko edo odol ahaidetasuneko lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna badu,*



*laguntza emateko, kasu bakoitza banan-banan aztertuko da, eta, nolana ere, negozioa transferitzeko arrazoi justifikatua egon beharko du.*

### **5. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa**

*a) Alokairu-gastuetarako: eskatzaile bakoitzari gehienez ere 12 €/m<sup>2</sup> emango zaizkio, gehienez honako zenbateko hauekin, BEZa kontuan izan gabe:*

- Lehen urtean, 450 € hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren % 75.*
- Bigarren urtean, 300 € hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren % 50.*
- Hirugarren urtean, 150 € hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren % 25.*

*Edozein kasutan, onuradun bakoitzeko laguntzak guztira, gehienez ere, honako hauek izango dira: lehen urtean, 5.400,00 €, bigarren urtean, 3.600,00 € eta hirugarren urtean, 1.800,00 €, betiere hiru urte horietan jarduerari eusten bazaio.*

*Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiona izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita). Salbuespen modura, enpresak BEZa kentzen ez badu, dirulaguntzaren oinarria kalkulatzeko hori ere kontuan hartuko da.*

*b) Dirulaguntza erosketa gastuetarako bada: lokala erosiz gero, metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko prezioa 1.000 €/m<sup>2</sup> izango da. Lokala erosteko dirulaguntza prezioaren % 10ekoa izango da, zergak alde batera utzita, eta gehienez 10.800 eurokoa.*

*Nolana ere, onuradun bakoitzeko emandako laguntzaren zenbateko osoa honela banatuko da: % 50 lehen urtean, % 30 bigarren urtean eta % 20 hirugarren eta azken urtean.*

*Alokairu edo erosketa kontratuan agertzen den egunetik aurrera ordainduko da dirulaguntza.*

*Laguntzaren eskatzaileak bere gain hartzen badu bi establezimendu alokairuan edo erosketan dituen negozio bat, bigarren establezimenduaren laguntza % 50ekoa izango da, eta guztira bigarren establezimendu horrengatik 5.400,00 € jaso ahal izango ditu laguntza jasotzen duen hiru urteetan.*

*Kasu horretan, establezimendu bakoitzeko laguntzaren gehieneko muga banaka kalkulatu da, aurrez ezarritako baldintzetan.*

*Nolana ere, laguntzak aurrekontua erabilgarri dagoen heinean emango dira.*

### **6. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa**

*Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:*

- 1. Eskabide-orri espezifiko (Udalaren webgunean eskura daiteke).*



2. Zergei dagozkien betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.
3. Ahaldunen kasuan, ordezkari agiria.
4. Ondasun-erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eratze-eskrituraren edo -agirien fotokopia, eta, hala bada gogokio, arautzen duten estatutuena, udaletxean jasota ez badaude.
5. Ganberak bermatutako eskualdatze-ziurtagiria.
6. "Jardueraren titulartasun aldaketaren jakinarazpena" izeneko udal inprimakia (aurreko titularrak eta titular berriak sinatuta), Hirigintzako sailean aurretiaz aurkeztu ez bada.
7. Osasun departamentuko Elikagaien Establezimenduen Erregistroan titularitate aldaketa egin delako egiaztagiria (hala bada gogokio).

a) Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako alokairu-kontratua.

b) Dirulaguntza erosketara gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako erosketa-kontratua.
2. Banku-transferentziaren egiaztagiria, eskuratze-prezioa osorik edo zati batean ordaindu dela egiaztatzen duena.

### **7. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura eta hautaketa-irizpideak**

Dirulaguntza emateko prozedura lehiarik gabeko norgehiagoka izango da. Deialdia organo eskudunak onartuko du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hautaketa-irizpidea eskabideak aurkezteko hurrenkera kronologikoa izango da, betiere pertsona edo erakunde eskatzaileak ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta kreditu nahikoa badago.

### **8. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoak**

#### **- Instrukzioa:**

Dirulaguntza horiek emateko prozeduraren instrukzioa Tolosako Udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismo eta Azoka Sailari dagokio.

#### **- Balorazioa:**

Ardura duen Sailak baloratu beharko ditu eskabideak, dagokion txosten teknikoaren bitartez. Txostenean jasotako balorazioa eta emakida-proposamena dagokion Batzorde Informatiboari aurkeztuko zaio, bere oniritzia emateko. Ondoren oniritzi hori organo eskudunari helaraziko zaio, hark ebatz dezan.

Eskaera egiten den ekitaldirako udal aurrekontuan kreditu erabilgarririk ez badago, eskatzaileak onuradun izan ahalko dira hurrengo deialdian. Hori udal aurrekontuan



*erabilgarri dagoen kredituaren eta momentuan dagoen eskari kopuruaren arabera izango da.*

*Edozein kasutan, Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azoka Sailari dagokio horren balorazioa egitea, eta dirulaguntzak atzera-eraginkortasunarekin onartzeko proposamena egitea.*

**- Ebazpena:**

*Dirulaguntza emateko prozedura zinegotzi delegatuak ebatziko du, Udalaren administrazio-antolaketan unean-unean indarrean dauden eskumenen eta balizko eskuordetzen arabera.*

**9. artikulua. Jarduketak egikaritzeko epea**

*Dirulaguntzaren xede diren jarduketak urte naturalaren barruan hasi behar dira, eta ebazpena ematen denetik hurrengo 3 urteetan lagunduko dira diruz.*

*Salbuespen izango dira atzera eraginkortasunarekin onartutako eskaerak. Hauetan ez da beharrezkoa izango dirulaguntzaren xede diren jarduketak urte naturalaren barruan hastera.*

**10. artikulua. Dirulaguntza zuritzeko prozedura eta epeak**

*Dirulaguntzaren zuriketa aurkezteko epea sei hilean behin izango da dirulaguntza ematen denetik 3 urteko epea bete arte.*

*Seihilekoa igaro ondoren, aurreko seihilekoari dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da. Zehazki, honako hau:*

**a) Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:**

- 1. Alokairuen fakturak, dagokion banku-ordainagiriarekin batera.*
- 2. Zergei dagozkien betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.*

**b) Dirulaguntza erosketa gastuetarako bada:**

- 1. Zergei dagozkien betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.*
- 2. Erosketa mailegu bidez egiten den kasuetan: Maileguaren kuota ordaindu izanaren ordainagiria ere aurkeztu beharko da.*

**11. artikulua. Ordainketa prozedura**

*Dirulaguntza sei hilean behin ordainduko da, 3 urteko epea bete arte, dagokion egiaztagiriak aurkeztu ondoren.*



## **II. ERANSKINA: TOLOSAN ENPRESARITZA EKIMEN BAT ABIARAZTEKO EMATEN DIREN DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK – EGIN**

### **1. artikulua. Helburua**

*EGIN programaren helburua da Tolosako hiri-ekonomiako sektoreetako batean enpresaritza ekimen bat abiarazteagatik pertsoneri dirulaguntzak ematea.*

### **2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak**

*Honen bitartez, hiri-ekonomia sektoreko ekimen berriak martxan jartzeko jarduketa hauek lagunduko dira diruz:*

- a) *Tolosako Alde Zaharrea enpresa ekimena garatu ahal izateko beharrezkoa den lokala birgaitzeko egindako gastuak.*  
*Kasu honetan, orokorrean onartuko dira merkataritza establezimenduaren barrualdea edota kanpoaldea moldatzeko, berritzeko edo handitzeko instalazioak eta obrak, baita oztopo arkitektonikoak ezabatzeko egindako eraberritzeak ere, mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko helburua badute.*
- b) *Tolosako herrian enpresa ekimena garatuko den lokalaren alokairu edo erosketak gastuak.*

*Enpresa ekimena Tolosako Alde Zaharrea kokatuz gero, bateragarriak izango dira birgaitzeko eta alokairu edo erosketak gastuetarako emandako dirulaguntzak.*

*Dauden negozioen lekualdaketak laguntza hauen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira.*

*Ekintzaileak aldeztu aurretik negozio bat martxan badu udalerrin berean, 4.b artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzenean soilik lagunduko da diruz jarduerak.*

### **3. artikulua. Onuradunak**

*Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.*

### **4. artikulua. Onuradunen betekizunak**

a) *Ekintzaile berrien ezaugarriak eta jarduerari dagokienez:*

1. *Enpresa-ekimen berria hiri-ekonomiako sektore hauetako batekoa izatea: merkataritza, hiriko merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak, ostalaritza edo turismoa.*



2. *Enpresa ekimenaren jarduera nagusia 4. eranskinean jasotzen den Jarduera Ekonomiko gainera Zergako epigraferen batean alta emanda egotea (JEZ).*
3. *Kalean bertan kokatutako txikizkako jarduera bat izango da, azken bezeroarekin edo udalerriko herritarrekin harreman zuzena duena.*
4. *Jarduera Tolosan kokatutako establezimendu batean egotea.*
5. *Negozio plan bideragarria eta amaitua Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu eta Ekintzailetza departamentuak balidatua.*
6. *Azken 60 hilabeteen aurretik Tolosako Udalaren aldetik helburu bererako edo antzekorako diru-laguntzarik jaso ez izana. Baldintza hori pertsona juridikoari eta hura osatzen duten pertsona bakoitzari buruzkoa izango da.*
7. *Saltzaile edo errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide ez izatea.*
8. *Jarduerak ezingo dira kokatu:*
  - *Tolosako Alde Zaharreko Birgaitze Plan Berezian aurreikusitako ekintza isolatuaren objektu izateagatik ordenazioz kanpokotzat deklaraturako eraikinetan.*
  - *Aurri-egoeran dauden eraikinetan.*
  - *Kontserbazio-egoerarengatik eta bizigarritasun baldintzengatik eraikina finkatzea egokia ez dela ebazten den eraikinetan.*
9. *Lokala saltzen edo alokatzen duen pertsonarekin ezkontza-ahaidetasuneko edo odol ahaidetasuneko lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna badu, laguntza emateko, kasu bakoitza banan-banan aztertuko da, eta, nolahi ere, arrazoi justifikatua egon beharko du*

*b) Aurretik udalerrri berean negozioak abian dituzten ekintzaileei dagokienez:*

1. *Izen berria izatea.*
2. *Pertsona ekintzaileak sustatutako aurreko negozioaz bestelako izaera juridikoa izatea.*
3. *Beste leku batean kokatzea.*
4. *Gutxienez lanaldi osoko edo partzialeko lanpostu bat sortzea.*
5. *Aurretiazko negozioak martxan mantentzea.*
6. *Artikulu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzea.*

*Salbuespen gisa, egungo negozioa itxiz enpresa-jarduera berri bat garatzen duten pertsona ekintzaileen proiektuak onartuko dira, baldin eta egiaztatuta eta islatuta geratzen bada honako baldintza hauek betetzen dituela:*

1. *Pertsona ekintzaileak sustatutako aurreko negozioaz bestelako izaera juridikoa izatea.*
2. *Beste leku batean kokatzea.*
3. *Gutxienez lanaldi osoko edo partzialeko lanpostu bat sortzea.*



4. 8. artikuluan xedatutakoaren arabera eraturako Batzorde Teknikoak egin dezakeen interpretazioari kalterik egin gabe, ekimen berriak osagai berritzaile nabarmena izango du, eta hori egindako Bideragarritasun Planean islatuko da.  
*Berrikuntzat hartuko da, zentzu zabalean: produktu eta zerbitzuen gama berritzea eta zabaltzea, merkatua, ekoizpen-prozesua, negozio-eredua, antolaketa eta kudeaketa... lehiakortasunaren funtsezko faktore gisa.*
5. Artikulu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzea.

*Baldintza horiek betetzen ez baditu, lekualdaketa dela ulertuko da.*

d) Dirulaguntza birgaitze gastuetarako bada:

- *Jarduera Tolosako Alde Zaharrean kokatutako lokal itxi batetan egotea.*
- *Tolosako Alde Zaharreko Birgaitze Plan Bereziak ezarritako araudia betetzea.*

e) Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

1. *Lokala alokairuan hartu bada, kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izatea.*

#### **5. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa**

*Eskatzaile bakoitzari eman dakikeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau izango da, BEZa kontuan izan gabe:*

- a) *Enpresa ekimena garatuko den lokala birgaitzeko: aurrekontuaren %20, dirulaguntzaren muga 6.000,00 euro izanik.*
- b) *Alokairu gastuetarako: eskatzaile bakoitzari gehienez ere 12 €/m<sup>2</sup> emango zaizkio, gehienez honako zenbateko hauekin, BEZa kontuan izan gabe:*
  - *Lehen urtean, 450 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren % 75.*
  - *Bigarren urtean, 300 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren % 50.*
  - *Hirugarren urtean, 150 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren % 25.*

*Edozein kasutan, onuradun bakoitzeko laguntzak guztira, gehienez ere, honako hauek izango dira: lehen urtean, 5.400,00 €, bigarrenean, 3.600,00 € eta hirugarrenean, 1.800,00 €, betiere hiru urte horietan jarduerari eusten bazaio.*

*Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiona izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita). Salbuespen modura, enpresak BEZa kentzen ez badu, dirulaguntzaren oinarria kalkulatzeko hori ere kontuan hartuko da.*

d) *Erosketa gastuetarako: lokala erosiz gero, metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko prezioa 1.000 €/m<sup>2</sup> izango da. Lokala erosteko diru-laguntza prezioaren %10ekoa izango da, zergak alde batera utzita, eta gehienez 10.800 eurokoa.*



*Nolanahi ere, onuradun bakoitzeko emandako laguntzaren zenbateko osoa honela banatuko da: % 50 lehen urtean, % 30 bigarren urtean eta % 20 hirugarren eta azken urtean.*

*Alokairu edo erosketa kontratuan agertzen den egunetik aurrera ordainduko da dirulaguntza.*

*Laguntzaren eskatzaileak bere gain hartzen badu bi establezimendu alokairuan edo erosketan dituen negozio bat, bigarren establezimenduaren laguntza % 50ekoa izango da, eta guztira bigarren establezimendu horrengatik 5.400,00 € jaso ahal izango ditu laguntza jasotzen duen hiru urteetan.*

*Kasu horretan, establezimendu bakoitzeko laguntzaren gehieneko muga banaka kalkulatu da, aurrez ezarritako baldintzetan.*

#### **6. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa**

*Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:*

- 1. Eskabide-orri espezifiko (Udalaren webgunean eskura daiteke).*
- 2. Gizarte Segurantzako ziurtagiriaren kopia eta azken hilabeteko autonomoen kuotaren ordainagiria.*
- 3. Zergei dagozkien betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.*
- 4. Ahdunen kasuan, ordezkaritza agiria.*
- 5. Ondasun erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eraketa eta hori arautzeko estatutuak jasotzen dituen eskrituraren edo agirien fotokopia, Udaletxean jasota ez badaude.*
- 6. "Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa" izeneko udal inprimakia, jarduera proiektuarekin batera eta inprimakian azaltzen diren beste agiriekin batera (aurretik Hirigintzako Sailean aurkeztu ez bada).*
- 7. Negozio/bideragarritasun plana, Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu eta Ekintzailtza departamentuak balidatua, aurrekontu edo jarduera garatzean sortzen diren gastuen zerrenda jasoz.*

*Interesdunak ez du zertan bideragarritasun azterketa Tolosaldea Garatzen garapen agentziarekin egin, baina azken horrek dokumentua ontzat eman beharko du 8. artikuluan jasotzen den batzorde teknikora eraman aurretik.*

*Halaber, plan horretan txertatu beharko dira 11. artikuluan dirulaguntza emateko irizpideen azalpena.*
- 8. Udalaren web orrian eskuragarri dagoen balioespen-irizpideen ziurtagiria.*
  - 1. Adierazitako alderdiak faturekin eta froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuekin edo merkataritzako trafiko juridikoan eraginkortasun*





*administratiboa dutenekin frogatu beharko dira, eta horiei egindako ordainketen egiaztagiriak gehituko zaizkie.*

*2. Halaber, kasu bakoitzean, "Baloratzeko irizpideak" eranskinean adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira.*

*a) Dirulaguntza birgaitze gastuetarako bada (betiere aurretiaz Hirigintza Sailean aurkeztu ez bada):*

- 1. "Jarduera ezartzeko obren baimen eskaera" izeneko udal inprimakia.*
- 2. Obra eta jarduera proiektua.*
- 3. Aurrekontua.*

*b) Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:*

- 1. Bi aldeek sinatutako alokairu-kontratua.*

*d) Dirulaguntza erosketara gastuetarako bada:*

- 1. Bi alderdiek sinatutako eskuratze-eskiriturak.*
- 2. Banku-transferentziaren egiaztagiria, eskuratze-prezioa osorik edo zati batean ordaindu dela egiaztatzen duena.*

## **7. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura eta hautaketa-irizpideak**

*Eskabidea egiteko interesdunak eranskin honen 6. artikuluan adierazitako agiriak aurkeztu beharko ditu.*

*Kasu guztietan, Tolosako Udalak eskatu ahal izango die eskatzaileei aurkeztutako eskaera egoki ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezko jotzen duen dokumentu edota informazio gehigarri guztia. Era berean, proiektua hobeto ulertzeko elkarrizketa edo aurkezpen bat egiteko ere eskatu ahal izango du.*

*Eskaeren baloraziorako, Batzorde Tekniko bat sortuko da: batzorde hori osatuko dute Tolosako Udaleko teknikari batek (Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azoka eta Enpleguaren Sustapeneko Sailekoa) eta Tolosaldea Garatzen Eskualdeko Garapen Agentziako Ekintzailetasun arloko teknikari batek. Aldi berean, batzordeak berak hala erabakitzen duen kasuetan, adituek batzordean parte hartu ahal izango dute. Adituek aholkulari gisa hartuko dute parte, eta ez dute boto eskubiderik izango.*

*Era berean, Batzorde hau eratzeko unean, kideen kopurua lautik gorakoa bada, ahaleginak egingo dira sexu bakoitzeko pertsonen gutxienez % 40ko ordezkari izango dutela bermatzeko.*

*- Dirulaguntza emateko irizpideak:*

*Dirulaguntza jaso ahal izateko, proiektuek 50 puntu baino gehiago lortu beharko dituzte:*



<b>BALORAZIO IRIZPIDEAK</b>	<b>PUNTUAK</b>
<i>Tolosaldea Garatzenek ontzat emandako bideragarritasun azterketa:</i>	30
<i>Izaera estrategikoa:</i> <ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Udalerriko sektore edo ingurune zehatz batean izaera estrategikoa dutenak honako arlo hauekin lotutakoak izango dira: zahartze aktiboa eta zilarrezko ekonomia, lehen sektorea, turismoa, ekonomia zirkularra, tokiko gastronomia eta kultura.</i></li><li>• <i>Beste sektore edo jarduera batzuk baloratu ahal izango dira, baldin eta indarreko Hiri-ekonomiako Plan Estrategikoarekin zerikusia badute.</i></li></ul>	10
<i>Eskainitako produktuen eta zerbitzuen ingurumen ikuspegia:</i> <ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Ekonomia zirkularreko jarduera/produktu jasagarrien salmenta.</i></li><li>• <i>Energiaren kudeaketa eraginkorra bermatzen duten neurriak.</i></li><li>• <i>Hondakinak gutxitu edo era eraginkorrean kudeatzeko sistemak.</i><ul style="list-style-type: none"><li>◦ <i>Puntu bat hartutako neurri bakoitzeko.</i></li></ul></li></ul>	5
<i>Talde sustatzaileko kide batek gutxienez 31 urte ditu eskaera egiten den egunean:</i>	5
<i>Sustatzaileen edo bazkideen erdiak gutxienez, emakumeak dira</i>	5
<i>Enplegua sortzea:</i> <ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Puntu bat lanaldi osorako kontratatutako pertsona bakoitzeko. Lanaldi partziala bada, proportzionalki zenbatuko da.</i></li></ul>	5
<i>Proiektuak euskararen erabileraren faktorea integratuta izatea:</i> <ul style="list-style-type: none"><li>◦ <i>Erakundearen irudia (errotulua eta izena euskara hutsez izatea): 5 puntu.</i></li><li>◦ <i>Bezeroarekiko harremanak ahoz eta idatziz euskaraz bermatzea (zerbitzua eskainiko duten pertsonen hizkuntza gaitasuna): 5 puntu.</i><ul style="list-style-type: none"><li>▪ <i>Pertsona kopuruaren arabera, proportzionalki kalkulatu da.</i></li><li>▪ <i>Horretarako, euskarazko titulua (B2 maila) aurkeztu beharko da edo, hura izan ezean, Euskara departamentuak egindako galdeketa gainditu beharko da.</i></li></ul></li></ul>	10
<i>Alde Zaharreko kokapena:</i> <ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Alde Zahartzat hartuko da Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean zehaztutakoa.</i></li></ul>	15
<i>Kanpoaldean (Alde Zaharra ez dena):</i>	5



## **8. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoak**

### **- Instrukzioa:**

Dirulaguntza horiek emateko prozeduraren instrukzioa Tolosako Udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azoka Sailari dagokio.

### **- Balorazioa:**

Aipatutako Batzorde Teknikoari dagokio eskabideak baloratzea, dagokion txosten teknikoaren bitartez. Txostenean jasotako balorazio eta emakida-proposamena dagokion Batzorde Informatiboari aurkeztuko zaio, bere oniritzia emateko. Ondoren oniritzi hori organo eskudunari helaraziko zaio, hark ebatz dezan.

Eskaera egiten den ekitaldirako udal aurrekontuan kreditu erabilgarririk ez badago, eskatzaileak onuradun izan ahalko dira hurrengo deialdian. Hori udal aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren eta momentuan dagoen eskari kopuruaren arabera izango da.

Edozein kasutan, Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azoka Sailari dagokio horren balorazioa egitea, eta dirulaguntzak atzera-eraginkortasunarekin onartzeko proposamena egitea.

### **- Ebazpena:**

Dirulaguntza emateko prozedura zinegotzi delegatuak ebatziko du, Udalaren administrazio-antolaketan unean-unean indarrean dauden eskumenen eta balizko eskuordetzen arabera.

## **9. artikulua. Jarduketak egikaritzeko epea**

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak urte naturalaren barruan hasi behar dira, eta ebazpena ematen denetik hurrengo 3 urteetan lagunduko dira diruz.

Salbuespen izango dira atzera eraginkortasunarekin onartutako eskaerak. Hauetan ez da beharrezkoa izango dirulaguntzaren xede diren jarduketak urte naturalaren barruan hastera.

## **10. artikulua. Dirulaguntza zuritzeko aurkeztu beharreko agiriak eta epea**

a) Dirulaguntza birgaitze gastuetarako bada:

1. Proiektu teknikoa egitea beharrezkoa litzatekeen lanen kasuan dagokion obra bukaerako ziurtagiria, elkargoaren oniritziarekin (bisatuarekin).
2. Gastuen sailkapen zerrenda (GA-GE inprimakia).
3. Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak; horiei egindako ordainketen egiaztagiriak gehituko zaizkie.



*b) Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:*

*Seihilekoa igaro ondoren, aurreko seihilekoari dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da. Zehazki, honako agiri hauek:*

- Alokairuen fakturak, dagokion banku-ordainagiriarekin batera.*
- Zergei dagozkien betebeharratan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.*

*d) Dirulaguntza erosketa gastuetarako bada:*

*Seihilekoa igaro ondoren, aurreko seihilekoari dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da. Zehazki, honako agiri hauek:*

- 1. Zergei dagozkien betebeharratan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.*
- 2. Erosketa mailegu bidez egiten den kasuetan: Maileguaren kuota ordaindu izanaren ordainagiria ere aurkeztu beharko da.*

**11. artikulua. Ordainketa prozedura**

*a) Dirulaguntza birgaitze gastuetarako eskatu bada: ordainketa bi zatitan egingo da: ebazpenarekin batera, dirulaguntzaren % 70a. Gainontzeko % 30a, berriz, zuriketarako agiriak aurkeztu ostean.*

*b) Alokairu edo erosketa gastuetarako eskatu bada: dirulaguntza seihilero ordainduko da, 3 urteko epea bete arte, dagokion egiaztagiriak aurkeztu ondoren.*

**12. artikulua. Onuradunaren betebeharrak**

*Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:*

- Laguntzaren xede den ekintzailtza proiektua gutxienez urtebetez altan mantendu beharko da.*

**III. ERANSKINA: KALE ESPAZIO ETA LOKAL HUTSAK DINAMIZATZEKO EKINTZAK SUSTATZEKO PROGRAMA – GUNE BIZIAK**

**1. artikulua. Helburua**

*GUNE BIZIAK programaren helburua da kale espazio eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.*

**2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak**

*Lerro honen baitan jarduera hauek izango dira diruz lagungarriak:*

- a) Lokal baten erakusleihoa lagatzea beste saltoki baten erakusleiho izateko: merkataritza jarduerarik ez duten lokalen jabeek lokalaren erakusleihoa utziko*



diote Tolosako Udalari, Udalak udalerriko merkatariei utz diezaien. Azken horiek beren produktuen lagin bat erakusteko modua izango dute.

- b) Merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak: merkataritzako jarduerarik ez duten lokal eta espazioetan (atzeko aldeak, hormak...) merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak garatuko dira, grafitiak, biniloak, margolanak edo antzekoak.

Nolanahi ere, GUNE BIZIAK programa bultzatzeko ahalmena Tolosako Udalak izango du une oro, eta une bakoitzean dauden beharren eta baliabideen arabera garatuko du ahalmen hori.

### **3. artikulua. Onuradunak**

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte. Onuradunen bi profil ezartzen dira:

1. Erakusleihoa erabiltzeko uzten duten merkataritza-lokal hutsen jabeak.
2. Lokala utzita jasotzen duten Tolosako merkatariak.

### **4. artikulua. Onuradunek bete behar dituzten baldintzak**

Onuradunek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Tolosako Udalak martxan dituen birgaitze proiektuei atxikitako kaleetan lokal huts baten jabe izatea, edo Tolosan merkataritza jarduera baten jabe izatea.
2. Erakusleihoa edo lokalaren kanpoaldea uzteko epea gutxienez 6 hilabetekoa izango da akordioa sinatzen den unetik.

Nolanahi ere, jabeak eskubidea izango du lagapen-kontratua 6 hilabete horiek baino lehenago bertan behera uzteko, lokala saldu behar badu edo merkataritza-jarduera bat ezartzeko alokairuan jarri behar badu.

### **5. Artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa**

a) Lokal baten erakusleihoa lagatzea beste saltoki baten erakusleiho izateko.

- Erakusleihoa Tolosako Udalari uzten dioten jabeek 200,00 €-ko dirulaguntza jasoko dute.
- Tolosaren Udalaren bitartez lokala utzita jasotzen duten merkatariek erakusleihoa egokitzeko kostuaren % 100eko dirulaguntza jasoko dute:
  - 2 metro arteko erakusleihoen kasuan (kristalaren zabalera hartuko da erreferentziatzat): 600,00 € gehienez ere.
  - 2 metrotik aurrera: 800,00 € gehienez ere.

Azken kasu horretan, diruz lagunduko dira kontzeptu hauek: erakusleihoa egokitzeko obrak, instalazio elektrikoa egokitzeko lanak, su-itxalgailuen kostua, aseguru poliza...



*Fatxadako errotulu nagusia aldatzen bada, gutxienez euskaraz egotea bermatu behar da. Era berean, soilik euskaraz egonez gero, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza departamentuaren dirulaguntza jaso ahal izango dute.*

*b) Merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak: Tolosako Udalak merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak garatuko ditu (grafitiak, biniloak, margolanak...) eta horiek gauzatzeko kostu osoa bere gain hartuko du.*

#### **6. artikulua. Ordaintzeko modua**

*Erakusleihoa Tolosako Udalari utzi dion jabearen kasuan, ordainketa bakarra egingo da, behin baldintzak betetzen dituela egiaztatu eta bi aldeen arteko akordioa sinatu ostean.*

*Erakusleiho bat hartu nahi duen merkatariazen kasuan ordainketa bakarra egingo da, lokala egokitzeko lanak burutu, zuriak aurkeztu eta udal teknikariak aldeko txostena egin ostean.*

#### **7. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa**

*Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:*

- 1. Eskabide-orri espezifikoak (Udalaren webgunean eskura daiteke).*
- 2. Zergei dagozkien betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizios kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.*
- 3. Ahdunen kasuan, ordezkariak agiria.*
- 4. Ondasun erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eraketa eta hori arautzeko estatutuak jasotzen dituen eskrituraren edo agirien fotokopia, Udaletxean jasota ez badaude.*

*- Lokalaren erabilera Udalari lagatzeko interesa duten jabeek:*

- 1. Lokalaren identifikazioa eta egoera jasotzen duen memoria.*

*- Erakusleihoa erabiltzeko interesa duten merkatariek:*

- 1. Lokalaren identifikazioa eta erakusleihoari eman nahi zaion erabilera jasotzen duen proiektua.*
- 2. Obra jakinarazpena edo obra txikia egiteko eskaera (egin beharreko obraren arabera) eta aurrekontua.*
- 3. Kontratututako aseguru-polizaren ziurtagiria eta ordainagiria, istripurik izanez gero, lokalaren balioa eta erakusleihoaren instalazioaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibila bermatzeko.*

#### **8. artikulua. Lokalaren lagapenerako prozedura**

*a) Lokal baten erakusleihoa lagatzea beste saltoki baten erakusleiho izateko: behin Tolosako Udalak bi eskaerak jaso dituztenean, bi akordio sinatuko ditu:*

- 1. Bata, lokal hutsaren jabearekin.*



2. *Bestea, lokal hutsaren erakusleihoa erabiliko duen merkatariarekin. Hau da, lokal hutsaren jabearekin akordioa sinatu ondoren, lokal hori Tolosako merkatari bati utziko dio, beste akordio berri bat sinatuaz, azken horrek lokal horren erakusleihoa erabili dezan.*

b) *Merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak: kasu honetan, Udalak lokal hutsaren jabearekin akordioa sinatuko du.*

### **9. artikulua. Emandako dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa**

*Behin pertsona eskatzaileak lokala egokitzeko lanak burutu dituenean honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:*

1. *Memoria dagokien argazkiekin.*
2. *Gastuen sailkapen zerrenda (GAL-GE inprimakia).*
3. *Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak; horiei egindako ordainketen egiaztagiriak gehituko zaizkie.*

### **10. artikulua. Aldeen betebeharrak**

#### **- Jabearen betebeharrak:**

- *Udalaren bitartez erakusleihoa utzita jasotzen duen merkatariari behar adina aldiz utziko dio sartzan erakusleihorearen mantentze-lanak egiteko, berritzeko edo bertan dauden salgaiak kentzeko.*
- *Lokala alokatzeko edo saltzeko iragarkien kartelak Udalak jarriko ditu jabeen eskura, eta haiek ezingo dute eredu horiez aparteko kartelik eta iragarkirik jarri.*

#### **- Udalaren bitartez erakusleihoa utzita jaso duen merkatariaren betebeharrak:**

- *Erakusleihoa egokitu beharko du.*
- *Beharrezko su-itxalgailuak jarri beharko ditu, Udaleko zerbitzu teknikoek ezarritako irizpideen arabera.*
- *Erakusleihorearen kontsumo elektrikoaren gastua ordaindu beharko du. Erakusleihorearen kontsumoa neurtzeko kontagailurik ez badago, aldeek adostasunez erabakitakoa bete beharko du.*
- *Ezingo du inolako jarduera ekonomikorik egin erakusleihoa dagoen lokalean; erakusleihoa bera atondu eta egokitu besterik ez du egingo.*
- *Erakusleihorearen erakutsitako laginaren kalitatea zaindu beharko du.*
- *Aseguru-poliza bat kontratatatu beharko du, istripurik izanez gero, lokalaren balioa eta erakusleihorearen instalazioaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibila bermatzeko.*
- *Kontratua amaitzean, baldintza berberetan utzi beharko du lokala. Horretarako, lokala entregatu aurretik, udal zerbitzu teknikoek akta jasoko dute, lokala zer egoeratan dagoen zehazteko, laguntza ematen den datatik hasita.*



- Erakusleihoa gutxienez 6 hilabetez mantendu beharko da, eta horrela ez den kasuetan Udalari jakinarazi beharko zaio.
- Tolosako Udalaren GUNE BIZIAK egitasmoko irudia sartu beharko du lagatutako erakusleihoan.

- Udalaren betebeharrak:

- Bi aldeen arteko akordioa amaitutzat emandakoan, Udalak egoera onean utziko dio berriz lokal hutsa haren jabeari, eta kalterik sortu bada, Udalak konpondu beharko du. Horretarako, lokala jaso aurretik, udal zerbitzu teknikoek akta jasoko dute, lokala zer egoeratan dagoen zehazteko.

- Jarduketa artistikoa egiten duen enpresaren betebeharrak:

- Idatzizko informazioa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo ele bitan egin behar da, eta, azken kasu horretan, euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala.

**IV. ERANSKINA: TOLOSAN ENPRESARITZA EKIMEN BAT ABIARAZTEA – EKIN PROGRAMAN ONARTZEN DIREN JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN (JEZ) TALDE ETA EPIGRAFEAK.**

**LEHEN SEKZIOA. ENPRESA JARDUERAK:**

**MERKATARITZA:**

491 Bitxigintza eta imitaziozko bitxigintza.

641 Fruituen, barazkien, ortuarien eta tuberkuluen txikizkako merkataritza.

642 Honakoen txikizkako merkataritza: haragia eta hondakinak, haragi-gai eta haragiki landuak, arrautzak, hegaztiak, abeletxeko untxiak, ehizakiak, eta horien ekoizkin eratorriak.

643 Arrainen eta arrantzako eta akuikulturako bestelako ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.

644 Ogi, gozoki, konfite eta antzekoen, eta esne eta esnekien txikizkako merkataritza.

645 Mota guztietako ardoen eta edarien txikizkako merkataritza.

646 Tabako-laboreen eta erretzaileentzako gauzen txikizkako merkataritza.

647.1 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, saltzaileedun establezimenduetan.

647.2 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan, saltzeko gelak 120 metro koadro baino gutxiagoko eremua duenean.





647.3 Supermerkatuetan egiten den mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan; saltzeko gelak 120 eta 399 metro koadro bitarte dituen deritze supermerkatu.

651 Ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritza.

652.2 Drogeriako, lurringintzako eta kosmetikako produktuen, garbiketako gaien, pinturen, bernizen, disolbatzaileen, paperen eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen txikizkako merkataritza.

652.3 Lurringintzako eta kosmetikako ekoizkinen eta norbere higienarako eta garbiketarako gaien txikizkako merkataritza.

652.4 Belar-dendetako landareen eta belarren txikizkako merkataritza.

653 Etxeko ekipamenduen eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.

654.2 Lurreko ibilgailuentzako osagarrien eta ordeko piezen txikizkako merkataritza.

654.5 Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegokoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).

654.6 Mota guztietako ibilgailuetarako gurpil-azalen, banden edo aire-ganberen txikizkako merkataritza.

656 Altzarien, jantzien, etxean erabiltzeko jantzi eta tresna arrunten eta antzeko ondasun erabilien txikizkako merkataritza.

657 Musika-tresnen eta haien osagarrien txikizkako merkataritza.

659 Bestelako txikizkako merkataritza.

### **OSTALARITZA ETA TURISMOA**

671 Jatetxeetako zerbitzuak.

672 Kafetegietako zerbitzuak.

673 Janaridun edo janari gabeko kafetegi eta tabernetan.

676 Txokolategietako, izozki-dendako eta hortxategietako zerbitzuak.

68 Ostatu zerbitzuak.

755 Bidaia agentziak.

### **HIRIKO MERKATARITZA-JARDUERAREKIN LOTUTAKO BESTE ZERBITZU BATZUK**

691.1 Etxeko tresna elektrikoen konponketa.

691.9 Beste kontsumo-ondasun batzuk konpontzea, b.i.s.g.

83 Finantza- eta aseguru-laguntzaileak. Higiezinaren jarduerak (zerbitzuak establezimendu batean ematen badira).

84 Enpresei emandako zerbitzuak (zerbitzuak establezimendu batean ematen badira).

943 Estomatologia eta odontologiako kontsultak eta klinikak.

944 Naturopatia, akupuntura eta beste zerbitzu parasanitario batzuk.

945 Albaitarien kontsultak eta klinikak.

971 Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.

972 Ile-apaindegiak eta gorputz apaindegiak.

973.1 Fotografia-zerbitzuak.



973.3 Makina-fotokopiagailuen bitartez agiriak kopiatzeko zerbitzuak.

975 Enmarkazio zerbitzuak.

979.9 Beste zerbitzu pertsonal batzuk.

**BIGARREN SEKZIOA. JARDUERA PROFESIONALAK (zerbitzuak establezimendu batean ematen badira)**

7. atala: finantza, lege, aseguru eta alokairuetako jarduerekin lotutako profesionalak.

825 Lurreko, uretako, aeronautikako eta abarretako ibilgailuak gidatzeko irakasleak.

83 Osasun-arloko profesionalak.

826 Irakaskuntza ezberdinen irakasleak, esate batera, hezkuntza fisikoa eta kirolak, hizkuntza, mekanografia, azterketa eta oposizioen prestakuntza eta antzekoak.

84 Enpresentzako zerbitzuak.

88 Hainbat profesional.

836 Osasun teknikari laguntzaileak eta fisioterapeutak.

839 Masajistak, bromatologoak, dietistak eta erizaintzako laguntzaileak.

841 Naturopatia eta akupuntura zerbitzuak eta beste zerbitzu parasanitario batzuk.

861 Margolariak, eskultoreak, zeramikariak, artisauak.

887 Makillatzaileak eta estetizistak.

**BIGARRENA.-** Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, hogeita hamar lanegunez, interesdunek aztertu eta, bere kasuan, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Informazio- eta entzunaldi-epea amaitu ondoren, aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu Udalbatzaren Osoko Bilkurak. Alegaziorik ez bada aurkezten, erregelamendua behin betikoz onartutzat joko da.

**LAUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udal web orrian eta iragarki taulan, eta Gardentasunaren atarian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturik), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez hasieraz **onartu** du Hiri ekonomia sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien aldaketa.



### **13.HASIERAZ ONARTZEA ETXEBIZITZAK ETA BIZITEGI ERAIKINAK BIRGAITZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO UDAL ORDENANTZA**

Lurraldea Batzordeak aurkeztutako irizpena aztertu eta bozkatu aurretik, EAJ-PNV, EH-BILDU ETA PSE/EE udal taldeek adostutako emendakina aztertu dute Udalbatzako kideek:

#### **EMENDAKINA:**

“7. artikuluko lehenengo puntuko b) atalaren amaiaren txertatu beharrekoa:

Urteko diru-sarreraren arabera, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehunekoak honako hauek izango dira:

Bizikidetzta-unitatearen diru-sarrerak	Diruz lagundutako aurrekontuaren ehunekoa
<=15.000€	% 30
<=20.000€	% 25
<=25.000€	% 20
<=30.000€	% 15
<=35.000€	% 10

Emendakina honela onartzeak ekarriko luke 5. eta 6. lerroetako dirulaguntzetan idazketa aldatu eta diruz lagundu daitekeen portzentaia % 30 izatea eta ez % 20, aurreikusita dagoen bezala).”

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturata), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du EAJ-PNV, EH-BILDU ETA PSE-PSOE talde politikoek aurkeztutako emendakina



Lurraldea Batzordeak onartutako irizpena aztertu aurretik, Hirigintzako zinegotziak eta udal idazkariak adierazi dute izaera pertsonaleko datuei buruzko xedapenak eta hauen tratamendua 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoari egokitu behar zaizkiola. Beraz, jendaurrean jarriko den dokumentuak bat etorri beharko du aipatu Lege Organikoarekin.

Ondoren, Udalbatzako kideek aztertu eta bozkatu dute Lurraldea Batzordeak 2022ko uztailaren 20an egindako bilkuran onartu zuen irizpena, aurretik ebatzi diren zuzenketekin aldatuta:

## **ETXEBIZITZAK ETA BIZITEGI ERAIKINAK BIRGAITZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO UDAL ORDENANTZA BERRIA**

**ESPEDIENTEA: 2022IORD0001**

**TXOSTENA: JM22\_033**

### **LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK**

#### **ONARTUTAKO IRIZPENA**

**GAIA: ETXEBIZITZAK ETA BIZITEGI ERAIKINAK BIRGAITZEKO DIRULAGUNTZAK  
EMATEKO UDAL ORDENANTZA BERRIA**

#### **1. AURREKARIAK**

<b>Dokumentua</b>	<b>Data/Zk.</b>	<b>Oharrak</b>
Aurretiazko kontsulta publikoaren iragarkia udaletxeko taulan	2022/03/11- 2022/04/10	
Aurretiazko kontsulta publikoaren iragarkia web orrian	2022/03/11	
Informazio publikoko epearen amaiera	2022/04/01	
Txosten juridikoa informazio publikoari buruz	2022/05/03	Alegaziorik ez
Lege-txostena	2022/06/03	Aldekoa, zuzenketekin
Idazkariaren ziurtagiria informazio publikoari buruz	2022/06/08	Alegaziorik ez
Berdintasunari buruzko txostena	2022/07/15	Aldekoa, iruzkinekin
Fiskalizazio txostena	2022/07/19	Aldekoa, zuzenketekin



## 2. AZTERKETA TEKNIKO

- 2022ko uztailaren 15ean, Berdintasuneko teknikariak txostena egin zuen:

### «BERDINTASUNARI BURUZKO TXOSTENA GAI HONI LOTURIK

**GAIA:** Etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko diru laguntzak emateko Udal ordenantza

2022ko ekainaren 1ean, Hirigintza departamenduak, korreo elektronikoren bidez, Etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko diru laguntzak emateko Udal ordenantzaren txosten tekniko egiteko adierazten du.

Ordenantza honen helburua orokorra da etxebizitza eta bizitegi eraikinak birgaitzea eta ondoren lanak sustatzeko diru laguntza programak arautzea: irisgarritasuna sustatzeko obrak, energia eraginkortasuna hobetzeko, eraikinak birgaitzeko obrak eta EITk eskatutako premia obrak izango litzateke, besteak beste.

Ordenantzak sei dirulaguntza lerro aurreikusten ditu

- Elementu komunetan egindakoak:

1. lerroa: Irisgarritasuna hobetzeko instalazioak eta obrak.
2. lerroa: Teilatua eraberritzea.
3. lerroa: Egitura sendotzea.
4. lerroa: Fatxada eraberritzea.

- Elementu pribatiboetan egindakoak:

5. lerroa: Kanpoko arotzeria aldatzea (Eraikinen Kode Teknikoa kontuan izanda).
6. lerroa: Mugikortasun mugatua duten pertsonen eta 65 urtetik gorako enxebizitzak egokitzea.

Ordenantza hau bizitegi-eraikin kolektiboetako esku-hartzeetarako baino ez da aplikatuko, eta laguntza hauetatik kanpo geratuko dira familia bakarreko edo bi familiako eta etxebizitza atxikiak.

Onuradunak diru-laguntzen ildoan araberaz zehazten dira. Elementu komunetan, jabe-erkidegoak izango dira onuradun, eta elementu pribatiboen onuradun, berriz, onuradunak izango dira udal-errolaren bidez bizilekua eta helbidea egiaztatzen duten etxebizitzaren jabeak, gozatzailak edo errentariak, urteko 35.000 €-tik beherako diru-sarrerak badituzte.



Hala ere, laguntzak emateko baldintza ekonomiko horretaz gain, elementu pribatiboak birgaitzearen kasuan, errentaren gaineko zergaren aitorpena aurkezteko betebeharra duten pertsonak ere kontuan hartuko dira. Eta errenta-aitorpena aurkeztera behartuta ez dauden pertsonak, pertsona horien egoeraren arabera: lan-etekinen eta langabezia-prestazioaren kasuan, pentsioen eta langabezia subsidioen kasuan, konpentsazio pentsioak ere kontuan hartuko dira, bai jasotzen duen ezkontide ohiarenak, bai pentsioa ordaintzera behartuta dagoen ezkontide ohiaren diru-sarreraren gutxitze gisa, betiere azken horrek benetan ordaindu diola frogatzen badu.

Lortutako diru-sarrerak Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten arabera haztatuko dira, diru-sarrerak jasotzen dituztenen kopurua eta familia-unitatearen kopurua kontuan hartuta

Hori horrela, ordenantza honetan jasotako edukia aztertu ondoren, zenbait ohar atera daitezke:

Egokitzat jotzen da laguntza horien helburua Alde Zaharreko etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak hobetzea izatea, eta, gainera, laguntza horiek bizitegi-erakinetan eta kolektiboetan esku hartzeko aplikatzea, kolektiboa lehenesteko modu bat delako, pertsona gehiagori mesede egiteko modu bat, mugikortasun murriztua duten pertsonen eta 65 urtetik gorakoei lagunduz. Horrela, eremu horiek degradatu ez daitezkeen, biztanlerik gal ez dezaten eta beti ezaugarritu izan duten dinamismoa eta bizitasuna mantentzen dituztenak sustatzen da.

Baina kontuan hartzen bada *1/2022 Legea, martxoaren 3koa, 19.1 artikulua Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa*. Generoaren araberrako inpaktua aurretiaz ebaluatzea, desberdinkeriak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko neurriak. Honako hau ezartzen du:

*Arau bat egiteko unean, euskal administrazio publikoek, hori sustatzen duen administrazio organoaren bitartez, ebaluatu egin behar dute proposamen horrek nolako inpaktua izan dezakeen emakumeen eta gizonen egoeran. Horretarako, aztertu behar du ea arauan proiektatu den jarduketak ondorio positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeke eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.*

Beraz, ordenantza honek genero-eraginaren ebaluazioa egitea derrigorrezkoa den galdetzen bada, egokia dela esan daiteke. Helburuetako bat etxebizitzetarako irisgarritasuna hobetzeko egokitzea denez, eta diru-laguntzak emateko diru sarreretarako baldintzak pertsonen diru-sarrerak dira (8. artikulua), esan daiteke arau horrek zuzenean eragiten diola gizon eta emakumeen baliabide ekonomiko eta sozialak eskuratzeari.



Horregatik, beharrezkotzat jotzen da Hirigintza Sailak ordenantza honen genero-eraginaren ex-ante ebaluazioa egitea, ordenantzak emakumeen eta gizonen egoeran izango dituen ondorioak ezagutzeko. Azterketa horri esker, neurri zuzentzaileak ezarri ahal izango dira, ordenantza indarrean sartu aurretik berdintasunean eragin negatiboa ikusten bada, eremu horretan emakumeen eta gizonen artean gertatzen diren desberdintasun-egoerei aurre egiteko eta egoera horiek eraldatzeko.

Hala ere, epe laburrean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko prestakuntza antolatu nahi denez, prestakuntza hori egin ondoren, derrigorrezkoa izango da araua edo administrazio-egintza egitea sustatzen duen organoak genero-eraginaren ebaluazioa egitea.

Eta bukatzeko, ordenantzaren testua berrikustea eta zuzentzea gomendatzen da, hizkuntza ez-sexista erabiltzeari dagokionez, testutik barrak kenduz (/), maskulinoa eta femeninoa aldi berean sartzeko helburuarekin.

Hortaz, txosten honetan egindako zuzenketak eta gomendioak ordenantza hau egiteko arduradun teknikariarekin kontrastatu eta bertan sartu ondoren ulertuko da ordenantza honek oso modu egokian betetzen duela Tolosako Udalak erabakita dituen berdintasun irizpideak.

Halaxe jakinarazten dut dagozkion ondorioetarako».

- 2022ko uztailaren 19an, kontuhartzaile akzidentalak eta bitarteko kontuhartzaile teknikariak fiskalizazio txostena egin zuten:

### **«OINARRIZKO BETEKIZUNEN AURRETIAZKO FISKALIZAZIO ETA/EDO KONTU-HARTZE MUGATUAREN TXOSTENA**

161

TXOSTENA	161/2022	2022(e)ko uztailaren 19a
ESPEDIENTEAREN	2022IORD0001	ETXEBIZITZAK ETA BIZITEGI ERAIKINAK
IDENTIFIKAZIOA	BIRGAITZEKO DIRU LAGUNTZAK	EMATEKO UDAL ORDENANTZA
ESPEDIENTE MOTA	SUBENTZIOAK	TRANSFERENTZIAK ETA HITZARMENAK
ORGANO KUDEATZAILEA	HIRIGINTZA	

#### **OINARRI JURIDIKOAK**

1. 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoa, bere IV TITULUA: KONTUHARTZE-KONTROLA.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiko 32/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena.



3. 2021/7/29 datako toki erakundearen osoko bilkuraren erabakia, aurretiatzko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea eta espedienteetan egiaztatu beharreko baldintzak onartzen dituena.

### JAKINARAZTEN DUT

Adierazitako araudian xedatutakoa kontuan hartuz eta espedienteko dokumentazioa ikusita, espedientearen izaerari dagozkion oinarritzko baldintzak fiskalizatu dira, eta fiskalizazioaren emaitzak txosten honen eranskinean jaso dira: baldintzak betetzat eman direnean, BAI adierazi da azkeneko zutabearen; baldintzak espedienteari ez zaizkiola aplikatu behar ondorioztatu denean, EZ DAGOKIO adierazi da; eta baldintzak ez direla bete ondorioztatu denean, EZ adierazi da.

Beraz, egin den alde aurretiatzko fiskalizazioa mugatua izan da eta 2021/7/29 datako osoko bilkuraren erabakian ezarritako baldintzak baino ez dira berrikusi.

Espedientearen fiskalizazio txostena tramitean ageri den ordenantzaren bertsioan oinarrituta egiten dira honako aldaketa proposamen hauek:

- 3. orrian, 2.3 artikuluko honako paragrafo hauek ondorengo eran uztea proposatzen da:

*«3. Aurrekontu ekitaldi bakoitzean behin-behinekoz eman beharreko diru laguntzen guztizkoak ezingo du gainditu izendatutako kopuru osoa edo kopuru eguneratua, indarreko legeekin bat, aurrekontu aldaketak onartuz gerø. dagokion deialdian zehaztutako aurrekontu kreditua.*

*Hortaz, ez da bidezkoa izango zenbateko hori amaitu ondoren behin-behinekoz dirulaguntza gehiago ematea emango. Kreditua amaitu dela iragarrita agertuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal webgunean, organo eskudunak ebazpena eman ondoren, eta noiz ebatziko zain diren eskatzaile guztiei jakinaraziko diete.»*

- 13.orrian, 9.d artikuluan, honako hau dioen tokian...

*«Behin-behineko ematearen ebazpen proposamena eta behin betiko ematearen ebazpena eman aurretik egiaztatzea bere zerga betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak»*

...honako hau jartzea:

Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena baino lehen eta dirulaguntzaren zuriketa onartzeko ebazpen-proposamena baino lehen zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

- 14.orrian, 10.5 artikuluan, dirulaguntza eskaera egiteko aurkeztu beharreko dokumentuen artean dirulaguntzaren eskaera orria gehitzea faltako litzateke.
- 17.orrian, 10.6.1.f artikuluan, «*Jabekideen Erkidegoaren kontu korrontearen banku dokumentua*» eskatu beharrean, dirulaguntza onuradunaren kontu korrontearen banku egiaztatagiria eskatzea.





- 22. orrian, 12.3 artikuluan, honako hau gehitzea:

*«... Han, besteak beste, xedatutako dirulaguntza egongo da jasota, aurkeztutako aurrekontuak edo proiektuak aintzat hartuta. Zenbatetsitako kopuru hori aldatu egin ahalko da, egindako obren azken kostua dela eta baina ezingo du inolaz ere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamenean finkatutako dirulaguntza kopurua gainditu.»*

- 27. orrian, honako hauen dioen tokian...

*«Ordenantza honetan xedatutakoari egokitzen ez bazaio, salbuespen gisa, Erretengibel S.A.U. sozietateak dirulaguntzak emateko erabilitako irizpideak eta ehunekoak aplikatuko dira.»*

*... honako hau jartzea:*

*«Ordenantza honetan xedatutakoari egokitzen ez bazaio, salbuespen gisa, Erretengibel S.A.U. sozietateak dirulaguntzak emateko onartutako irizpideak eta ehunekoak aplikatuko dira. Irizpide horiek ordenantza honetako 1.eranskinean jaso dira.»*

Erretengibeleko irizpideak zeintzuk diren zehaztu egin beharko lirateke ordenantzan.

- Igoailu berriak jarri eta irisgarritasun baldintzak hobetzeko dirulaguntzei dagokienean, Tolosako Udalari bere garaian eskaera egin zietenen eta ebatzi gabe geratu zirenen dirulaguntzak ordenantza honetan xedatutakoaren arabera izapidetu eta ebatziko direla gehitzea faltako litzateke betiere xede bera badute.

Eskaera horiek xede ezberdina badute, zehaztu egin beharko da zein irizpide jarraituko diren horiek ebazteko.

## **FISKALIZAZIO TXOSTENAREN ONDORIOAK**

Prozeduraren fase honetan, erreferentziako espedientea fiskalizatzen da honako emaitza honekin:

Aipatutako aldaketak kontuan hartuko direlakoan, ALDEKOA



## FISKALIZAZIO EDO OMISIO TXOSTENAREN ERANSKINA

### AZTERTUTAKO BETEKIZUNAK:

ZK.	Betekizun Id.	Erreparo mota	Lege Erref.	Oinarrizko betekizun orokorrak	BAI/EZ/EZ APLIKAGARRIA
1	3.1.1.01	A.1 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 b) art. DLO 17.2 art. TAOA 22 art.	Gastua organo eskudunak sortzen duela.	Bai
2	3.1.1.02	B.1 EZ ETENARAZLEA	AJAED 172, 175 art.	Organo kudeatzaileak aldeko txostena ematea.	Bai
3	3.1.1.03	B.2 EZ ETENARAZLEA	DLO 17.2 art.	DLOren 17.3 artikulua oinarrizko betekizunak jasotzea.	Bai
4	3.1.1.04	B.3 EZ ETENARAZLEA	DLO 22 art.	Lehia askeko prozeduretan, dirulaguntza emateko proposamena egin behar duen kide anitzeko organoa osatzea.	Bai

»

### 3. AZTERKETA JURIDIKOA

- 2022ko ekainaren 3an, Idazkaritzako AOTak txostena egin zuen:

#### «LEGE-TXOSTENA

**GAIA: etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko udal Ordenantza.**

#### AURREKARIAK

Hirigintza Departamentutik aipatutako Ordenantza bidali dute.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidea arautzen duenak, bere 133. artikuluan xedaturiko kontsulta jardunbidea gauzatu da.

Tolosako udaleko Hirigintzako Sailak aipatu diren diru laguntzen emakida arautzen duen Ordenantzaren testua helarazi du, dagokion lege-txostena egiteko.

#### AZTERKETA JURIDIKOA

##### 1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:



- udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- udalen eskumenen egikaritzea ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gai-zerrenda bat osatu zuen, non udalek berariazko eskumenak egikarituko baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 artikulua a) atalak udalek, besteak beste, ondorengo kompetentziak jasotzen ditu:

“a) Hirigintza: hirigintza-plangintza, -kudeaketa, -egikaritzea eta -diziplina. Ondare historikoaren babesa eta kudeaketa. Babes publikoko etxebizitza sustatzea eta kudeatzea, finantza-iraunkortasuneko irizpideekin. Eraikuntzaren kontserbazioa eta birgaitzea”.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 9. atalean:” Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, defendatzea eta babesa”.

Beraz, teknikari honen iritziz, Tolosako Udalak badu ahalmena proposatzen den Ordenantza arautzailea onartu eta aplikatzeko, aipatu diren xedapenetan oinarritzen delako.

## **2.- Udalaren sustapen-neurriak eta diru laguntzak**

Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24 eta hurrengo artikuluek, udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, horien barruan diru laguntzak emateko ahalmena onartzen zaielarik. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak ondoko bi araudi nagusi hauek arautzen dituzte:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra
- Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua

Herri Administrazioen diru laguntzak arautzen dituen Legearen 9.2 artikulua, dirulaguntzak eman aurretik, haien emakida arautzen duen oinarri arautzaileak onartzearen beharra xedatzen du. Aipatu artikulua 3. atalak, oinarrien publizitatea arautzen du, dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direlarik. Kasu honetan, oinarri arautzaile hauek dagokien Ordenantzan jaso dira.



Oinarrien gutxieneko edukia Legearen 17.3 artikuluan arautzen da:

**3. La norma reguladora de las bases de concesión de las subvenciones concretará, como mínimo, los siguientes extremos:**

- a) Definición del objeto de la subvención.**
- b) Requisitos que deberán reunir los beneficiarios para la obtención de la subvención, y, en su caso, los miembros de las entidades contempladas en el apartado 2 y segundo párrafo del apartado 3 del artículo 11 de esta ley, y forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.**
- c) Condiciones de solvencia y eficacia que hayan de reunir las personas jurídicas a las que se refiere el apartado 2 del artículo 12 de esta ley.**
- d) Procedimiento de concesión de la subvención.**
- e) Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención y, en su caso, ponderación de los mismos.**
- f) Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determinación.**
- g) Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención y el plazo en que será notificada la resolución.**
- h) Determinación, en su caso, de los libros y registros contables específicos para garantizar la adecuada justificación de la subvención.**
- i) Plazo y forma de justificación por parte del beneficiario o de la entidad colaboradora, en su caso, del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.**
- j) Medidas de garantía que, en su caso, se considere preciso constituir a favor del órgano concedente, medios de constitución y procedimiento de cancelación.**
- k) Posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta, así como el régimen de garantías que, en su caso, deberán aportar los beneficiarios.**
- l) Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.**
- m) Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.**
- n) Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones. Estos criterios resultarán de aplicación para determinar la cantidad que finalmente haya de percibir el beneficiario o, en su caso, el importe a reintegrar, y deberán responder al principio de proporcionalidad.**

*Kasu honetan lehiarik ez dagoenez, honako hau aplikatuko litzateke:*



**- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 55 artikulua:**

Laguntza emateko prozedura elkarrekiko **lehiarik gabekoa** izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

Aipatutako Errege Dekretuak haxe dio 55. artikuluan:

"Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta Legearen 22.1 artikuluan aurreikusitako norgehiagoka-prozedura izango da, baina, aurrekoa gorabehera, dirulaguntzaren oinarri arautzaileek ez dute bete beharko aurkeztutako eskabideen artean lehentasun ordena bat ezartzeko betekizuna, baldin eta deialdian ezarritako kreditua nahikoa bada, eta aurkezteko epea amaitu ondoren eskabideen kopurua kontuan hartuta".

Azkenik, Gardentasuna, Informazio Publikoa Eskuratzea eta Gobernua arautzen dituen abenduaren 19ko 9/2013 Legearen 8. artikuluko Diru laguntzen Lege Orokorraren araudia aldatu du, informazio-esparrua zabaldu duelarik. Era honetan:

*Artículo 8 Información económica, presupuestaria y estadística*

*1. Los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de este título deberán hacer pública, como mínimo, la información relativa a los actos de gestión administrativa con repercusión económica o presupuestaria que se indican a continuación:*

*c) Las subvenciones y ayudas públicas concedidas con indicación de su importe, objetivo o finalidad y beneficiarios.*

Beraz, Udalak argitaratu beharko ditu Gardentasunaren Atarian (*Gipuzkoa Irekian*) ordenantza honetan oinarrituta ematen duen diru laguntzen zerrenda, beti ere onuradunen izaera pertsonaleko datuen erreserbari buruz Legerian araututakoa kontutan hartuz.

3-Ordenantzaren testua ikusirik, aldaketa hauek egitea proposatzen da:

- 2.2 artikuluan organo eskuduna zinegotzi delegatua izango da. Bestalde, Dirulaguntzen datu-base nazionalaren aipamena erantsiko zaio, bertan argitaratu behar baita.

-2.artikuluan,3. apartatuan, bukaeran "alkatetza" jartzen duen lekuan "Zinegotzi delegatua" jarri behar du.

-3. artikuluko azkeneko apartatua kendu egingo da.

-10.1artikuluan, zinegotzi delegatua jarriko da alkatearen ordeiz. Argitarapenean Dirulaguntzen datu-base nazionalaren aipamena erantsiko zaio.

-10.2 apartatuan, Tolosako Udaleko erregistroa bakarrik aipatzen da. Horren ordeiz, hau jarri behar da:

"Erakunde edo pertsona juridikoen kasuan, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko dira nahitaez, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikoetan ere, eta aurrez aurreko erregistroa pertsona fisikoentzat bakarrik onartuko da.



Hauetz gainera, pertsona fisikoak beste modu hauetan ere aurkeztu ahal izango dira:  
Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.  
Espainiaren ordezkari-tza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan, bulego kontsularretan edo Espainiak atzerrian dituen ordezkari-tza diplomatikoetan.  
Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.  
Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan”.

-10.4 apartatua honela jarriko da:

“39/2015 Legearen 28.artikuluari, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.artikuluari eta 38/ 2003 Legearen 14.artikuluari ezarritakoari jarraiki, Tolosako Udalak informazioa kontsultatuko du zuzenean bere datu baseetan eta, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan, laguntza lortzeko baldintzak betetzen diren egiaztatze behar diren datuak eta, bereziki, honako hauek: Foru Ogasunaren zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean izatea, eta enpresaren datuak.

Era berean, konprobatuko da Tolosako udalarekin zorrak izateagatik presazko bidetik kobratzeko prozeduraren baten barenan ez daudela dioten egiaztagiria”.

6.1. apartatua, hau jarriko da: Aurka egiteko eskubidea adierazi badu:”....”

6.2.n):Aurka egiteko eskubidea adierazi badu:”...”

-11. artikulua honela idatzi beharko litzateke: ”Tramitazioa eta balorazioa” Eskeraren balorazioa Lurraldearen arloko batzordeari dagokio. Balorazioa, departamentuko arduradunaren txostenean oinarrituko da. Balorazio hori eta dirulaguntza emateko proposamena organo eskudunaren esku jarriko da, hark onar dezan.”

-art 13.1.1.d) honela idatzi beharko litzateke: “39/2015 Legearen 28.artikuluari, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.artikuluari eta 38/ 2003 Legearen 14.artikuluari ezarritakoari jarraiki, Tolosako Udalak informazioa kontsultatuko du zuzenean bere datu baseetan eta, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan, laguntza lortzeko baldintzak betetzen diren egiaztatze behar diren datuak eta, bereziki, honako hauek: Foru Ogasunaren zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean izatea, eta enpresaren datuak.

#### **4.- Ordenantzaren izapidetzea**

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 49. artikuluan xedatzen du Ordenantzak onartzeko jardunbidea, honako honen arabera:



- Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezten.
- Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.

## 5.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Ordenantzen hasierako onespena udalbatza plenoaren eskumena da.

Beraz, hau da

### **EBAZPEN PROPOSAMENA**

**LEHENA.-** Etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko udal Ordenantza hasieraz onartzea, txosten honetan adierazten diren zuzenketak sartu ondoren.

**BIGARRENA.-** Ordenantza hau eta dagokion espediente informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**LAUGARRENA.-** Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta dagoela ulertuko da».

Aurrekoa ikusita, eta eskatu zein gomendatutako zuzenketak eginda, espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola uste da, Udalbatzak hasieraz onartu behar duelarik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera.



**Tolosako Udaleko Lurraldeak, 2022ko uztailaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:**

**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva.

**Abstentzioak:** Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido eta Aitzol Garzia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### **IRIZPENA**

**LEHENA.-** HASIERAZ ONARTZEA etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko udal Ordenantza.

**BIGARRENA.-** Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**LAUGARRENA.-** Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta dagoela ulertuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturik), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez hasieraz **onartu** du Etxebizitza eta Bizitegi Eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko udal Ordenantza.





**14. 9/2022 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEKOA.**

Udalbatzarkideei kreditu gehigarrien modalitateko 2022/9 kreditu aldaketaren berri eman zaie. 2022/2036 Alkatetza Dekretuak honela dio:

**ALKATEAREN DEKRETUA**

*Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana*

*Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2022-KALD-000009-00.*

*Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

**EBATZI DUT**

**Lehenengoa.-** *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	64.100,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	8.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	25.000,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>97.100,00</b>

**FINANTZAKETA**

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	97.100,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>97.100,00</b>



**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## **15.- 2021EKO FINANTZA KONTROLEKO URTEKO PLANAREN BERRI EMATEA**

Udal kontuhartzaile akzidentalak gai honen berri eman die batzarkideei:

### **FINANTZA-KONTROLEKO URTEKO PLANA 2021EKO EKITALDIRAKO**

#### **I. partea. Zioen azalpena**

##### **1.- Sarrera**

32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duenak eta Gipuzkoako tokiko erakundeen kontabilitate-esparru arauemailea onartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, lurralde historiko horretako tokiko erakundeentzako barne-kontrolerako foru-eredu bat ezartzen du, kontrol eraginkorreko gutxieneko estandar batzuk ezarriz, hori egiteko dauden arriskuak eta bitartekoak kontuan hartuta.

32/2018 Foru Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakoaren arabera, «*Organo kontuhartzaileak kontrol finantzarioko urteko plan bat prestatu beharko du, ekitaldian egin beharreko kontrol iraunkorreko eta auditoretza publiko jarduketak jasoko dituen*».

##### **2.- Barne-kontrol ekonomiko-finantzarioa eta horren adierazpenak**

Foru Dekretu horretan jasotako hedaduraren eta ondorioen arabera, organo kontuhartzaileak egingo du tokiko sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren barne-kontrola, toki-erakundeak berak nahiz haren mendeko edo hari atxikitako erakundeek egindako jardueren kontrola barne hartzen duena, eta, horretarako, kontuhartzaitzako funtzioa eta finantza-kontrola izeneko kontrol-modalitateak erabat eta behar bezala garatuko ditu.

Kontuhartzaitzako funtzioaren xedea da, aldez aurreko fiskalizazio- eta kontuhartzaitza-faseen bitartez, toki-erakundearen eta haren erakunde autonomoen egintzak kontrolatzea, eskubideak aitortzea edo gastuak egitea dakartenak, bai eta horietatik eratortzen diren diru-sarrerak eta ordainketak kontrolatzea ere, funts publikoen inbertsioa



edo aplikazioa oro har, eta haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikatzekoak diren xedapenekin bat datorrela ziurtatzeko.

Finantza-kontrolako jardueren helburua da tokiko sektore publikoko zerbitzuek alderdi ekonomiko-finantzarioan duten funtzionamendua egiaztatzea, zerbitzu horiek arautzen dituzten araudia eta jarraibideak betetzen direla egiaztatzeko, eta, oro har, zerbitzu horien kudeaketa finantza-kudeaketa onaren printzipioetara egokitzen dela egiaztatzeko, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkortasunak, efizientziak, ekonomiak, kalitateak eta gardentasunak, eta tokiko baliabide publikoen erabileran aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioek zuzentzen dutela egiaztatzeko.

32/2018 Foru Dekretuak toki-erakundeko organo kontu-hartzailearen esku uzten du barne-kontrola egiteko erantzukizuna, baina, era berean, ezartzen du toki-erakundeak, kontrol-eredu eraginkorra izateko, behar beste baliabide gaitu behar dituela. Ildo horretan, 4.3 artikuluan (Barne-kontrola baliatzeko printzipioak) honako hau adierazten du: «...Era berean, barne kontrola egiteko, toki entitatetik kanpo kontratatutako bitartekoen lankidetzaz baliatu ahal izango da, betiere organo kontu-hartzaileak gainbegiratuta eta zuzenduta, kontrol finantzarioa egiten denean».

Ekitaldian zehar egin beharreko finantza-kontrolako jarduketak Finantza Kontrolako Urteko Plana izeneko dokumentuan jaso behar dira, eta azpimodalitateak bereizi behar dira. Azpimodalitate horiek, halaber, ekitaldian sartuta daude, eta, besteak beste, kontrol iraunkorrekoak eta auditoretza publikokoak dira.

#### Kontrol iraunkorra

32/2018 Foru Dekretuko 29.2 artikulua arabera, kontrol iraunkorraren helburua da etengabe egiaztatzea tokiko sektore publikoaren egoera ekonomiko-finantzarioaren funtzionamendua bat datorrela ordenamendu juridikoarekin eta kudeaketa finantzario onaren printzipio orokorrekin, azken finean xedea baita kudeaketaren ekonomia, finantza, ondare, aurrekontu, kontabilitate, antolaketa eta prozedura alderdiak hobetzea.

Kontrol iraunkorraren barruan sartzen dira, halaber, jarduera planifikagarriak eta ez-planifikagarriak.

Finantza-kontrol iraunkor ez-planifikagarrien jarduketek lege-arau batetik eratorritako jarduketak biltzen dituzte.

128/2018 Errege Dekretuaren 4.1.b) artikulua arabera, hauek dira organo kontu-hartzaileari dagozkion finantza-kontrol iraunkorreko jarduketak:

- Dirulaguntza eta laguntza publikoak kontrolatzea.
- Aurrekontu-proiektuen eta horiek aldatzeko espedienteen txostena.
- Kreditu-eragiketak itundu edo aldatu aurreko txostena egitea.
- Aurrekontuaren likidazioa onartu aurreko txostena egitea.



- Lehendakaritzak, zinegotzien heren batek edo legez gehiengo berezia eskatzen den gaitan, ekonomiaren, finantzen edo aurrekontuen arloan eskatutako txostenak, irizpenak eta proposamenak egitea, bai eta zerbitzu berriak ezartzea egokia den edo daudenak aldatzea ere, proposamenen ekonomia- eta finantza-eragina eta aurrekontu-egonkortasuna ebaluatzeko.
- Ekonomia, finantza eta aurrekontuen arloko txostenak eta ziurtagiriak egitea, eta berriazko araudiak ezartzen dituen organoetara bidaltzea.

Finantza Kontrolerako Urteko Planean urtero sartzen diren kontrol-jarduerak dira finantza-kontrol iraunkorreko jardura planifikagarriak, bai eta ordenamendu juridikoan organo kontu-hartzaileari esleitzen zaizkion jarduerak ere. Azken hauek hiru dira:

- 25/2013 Legearen 12.2 artikulua: berankortasunari buruzko txostena.
- 25/2013 Legearen 12.3 artikulua: sistemen auditoria, fakturen kontularitza-erregistroari dagokionez.
- 9/2013 Lege Organikoaren 3. xedapen gehigarria: egindako gastuetatik edo jasotako ondasun eta zerbitzuetatik eratorritako betebeharrak dauden egiaztatzea, horietarako aurrekontu-egozpenik egin ez bada.

### Auditoretza publikoa

32/2018 Foru Dekretuaren 29.3 artikulua araber, «*Auditoretza publikoan, egiaztatu egingo da, geroago eta sistematikoki, tokiko sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioa, eta, horretarako, sektore publikoaren auditoretza arauetan jasotako berrikuspen prozedura selektiboak erabiliko dira*». Auditoretza publikoak modalitate hauek hartzen ditu barne:

- Kontuen auditoretza: haren xedea da egiaztatzea urteko kontuen bidez ondarearen, egoera finantzarioaren, entitatearen emaitzen eta, hala badagokio, aurrekontuaren exekuzioaren irudi leiala islatzen ote den, alderdi esanguratsu guztietan, hari aplikagarri zaizkion kontabilitate eta aurrekontu arau eta printzipioekin bat eginez, eta, baita ere, urteko kontuetan haiek egoki interpretatu eta ulertzeko behar den informazioa ematen ote den.
- Betetze auditoretza: ziurtatu egingo da kudeaketa ekonomiko-finantzarioko egintzak, eragiketak eta prozedurak haiei aplikagarri zaizkien arauetara jarraituz gauzatu direla. Auditoretza honen xedea izango da tokiko sektore publikoaren kudeaketa hobetzea, zehazki alderdi hauetan: ekonomia, finantzak, ondarea, aurrekontua, kontabilitatea, antolaketa eta prozedura.
- Auditoretza operatiboa: sistematikoki eta objektiboki aztertuko dira antolakunde, programa, jardura edo funtzio publiko baten eragiketak eta prozedurak. Haren



helburua izango da balorazio independente bat egitea haien arrazionaltasun ekonomiko-finantzarioz eta kudeaketa onaren printzipioekiko egokieraz, betiere balizko akatsak sumatu eta gomendio egokiak proposatze aldera.

## **II. parte. Finantza-kontrolako urteko plana**

### **1.- FINANTZA-KONTROLAREN PLANGINTZA**

Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 31. artikulua honela garatzen du finantza-kontrolaren plangintza:

- Organo kontu-hartzaileak kontrol finantzarioko urteko plan bat prestatu beharko du, ekitaldian egin beharreko kontrol iraunkorreko eta auditoretza publiko jarduketak jasoko dituena.
- Kontrol finantzarioko urteko planak barnean hartuko ditu, batetik, legezko betebeharrak baten ondorioz organo kontu-hartzaileak egin beharrekoak diren jarduketak guztiak eta, bestetik, helburuak, ekitaldi bakoitzeko lehentasunak eta eskura dauden bitartekoak aztertzen dituen arrisku analisi batean oinarrituta urte urte aukeratzen diren jarduketak. Arriskutzat hartuko da kontrolpeko kudeaketan honako hauek ekar ditzaketen gertaerak edo zirkunstantziak izateko posibilitatea: araudi aplikagarria ez betetzea, informazio finantzarioaren fidagarritasunik eza, aktiboen babes desegokia edo kudeaketaren eraginkortasunik eta efizientziarik eza.

Behin arriskuak identifikatuta, jarduketak aukeratzeko lehentasunak jarri beharko dira. Horrela, arriskuaren garrantzia baloratzeko ebaluazio bat egingo da, irizpide kuantitatiboak nahiz kualitatiboak erabilita, eta aldizka eta txandaka kontrolak aukeratzea komenigarria ote den begiratu da. Saihestu egingo da arriskurik gabekotzat hartutako jarduera ekonomiko-finantzarioetan kontrolak errepikatzea zein behin eta berriz kontrolik ez izateagatik ahuleziak sortzea.

- Behin arriskuak identifikatuta eta ebaluatuta, organo kontu-hartzaileak kontrol finantzarioko urteko plana prestatuko du. Horretarako, egitekoak diren jarduketak zehaztu eta haietako bakoitzaren hedadura objektiboa, subjektiboa eta denborazkoa identifikatu da. Horrela prestatutako plana osoko bilkurara bidaliko da, haren berri emate aldera.
- Kontrol finantzarioko plana honako hauek direla-eta aldatu ahal izango da: eskaera bati edo legezko agindu bati jarraituz egindako kontrolak, kontrolpeko entitateen egituran izandako aldaketak, bitartekoen nahikotasunik eza edo behar bezala aztertutako beste arrazoi batzuk. Kontrol finantzarioko urteko plana osoko bilkurara bidaliko da, haren berri emate aldera.



## 2.- ESPARRU SUBJEKTIBOA

Finantza Kontroleko Urteko Planaren hedadura subjektiboa, 2021eko ekitaldirako, honela ezartzen da:

ESPARRU SUBJEKTIBOA	EGINKIZUN KONTU- HARTZAILEA	FINANTZA-KONTROLAREN EGINKIZUNA				OHARRAK
		KONTROL IRAUNKORRA	AUDITORETZA PUBLIKOA			
			KONTUENA	BETETZEA	OPERATIBOA	
TOLOSAKO UDALA	DERRIGORREZKOA	DERRIGORREZKOA	EZ	EZ	EZ	
TOLARGI SL	EZ	EZ	DERRIGORREZKOA	DERRIGORREZKOA	DERRIGORREZKOA	
TOLOSA GASA SA	EZ	EZ	DERRIGORREZKOA	DERRIGORREZKOA	DERRIGORREZKOA	% 60ko parte-hartzea

## 3.- PLANAREN EKITALDIAK

Tolosako Udalaren tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren finantza-kontrolerako urteko plan honek 2021eko ekitaldia hartzen du bere baitan.

Finantza-kontrol iraunkorreko nahiz auditoretza publikoko jarduerak 2022ko eta 2023ko ekitaldietan gauzatuko dira.

## 4.- HELBURUAK

Plan hau aplikatuz, Tolosako Udalaren tokiko sektore publikoaren kudeaketaren gaineko kontrol planifikatua gauzatu nahi da, aldez aurreko fiskalizazio eta esku-hartzearekin batera, baliabide publikoen administrazioa gero eta eraginkorragoa izan dadin.

Gainera, plan honen aplikazioaren ondorioen balorazioa kontuan hartuko da ondorengo planak egitean.

## 5.- JARDUKETAK

### **5.1- Kontrol iraunkorra**

Kontrol iraunkorra, 32/2018 Foru Arauaren 32. artikulua araberako, modu jarraituan egin behar da, eta honako jarduketa hauek barne hartuko ditu:

ESK00c9dfdb8a-d586-4112-bcd0-876d53677d73



- a) Ziurtatzea betetzen direla eginkizun kontu-hartzaileak hartzen ez dituen kudeaketa ekonomikoaren alderdiei aplikagarri zaizkien araudia eta prozedurak.
- b) Jarraipena egitea aurrekontu exekuzioari, eta egiaztatzea helburuak betetzen direla.
- c) Egiaztatzea diruzaintzaren plangintza, kudeaketa eta egoera.
- d) Exekutatzea tokiko sektore publikoko aurrekontuei eta kudeaketa ekonomikoari buruzko arauetan organo kontu-hartzaileari esleitutako jarduketak.
- e) Aztertzea eragiketak eta prozedurak, baloratzeko haien arrazionaltasun ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketa onaren printzipioekiko egokiera, betiere balizko akatsak sumatu eta haiek zuzentzeko gomendioak proposatze aldera.
- f) Toki entitatean ziurtatzea, laginetako tekniken bidez, organo kudeatzaileek kontabilitate informazioaren euskarri gisa emandako garrantzi ekonomikoko datuek eta informazioak arrazoizko modu batean islatzen dutela haien jarduera ekonomiko-finantzarioaren barruan egindako eragiketen emaitza.

Hori egiteko, organo kontu-hartzaileak organo kudeatzaileari jakinaraziko dio haren laguntza behar duten kontrol iraunkorreko jarduketak hasiko direla

Kontrol iraunkorreko lanak egiteko behar diren ziurtapenak sistematikoki eta horretarako aukeratutako eragiketak edo jarduketak aztertzeko prozedurak aplikatuta egingo dira, betiere ebidentzia nahiko, egoki eta baliagarri bat lortze aldera.

Ziurtapen horiek auditoretza prozedurak aplikatuta egiten badira, sektore publikoko auditoretza arauen menpe geldituko dira.

Jarduketak honelakoak izan daitezke, besteak beste:

- a) Aztertzea organo kudeatzaileak prestatutako kontabilitate erregistroak, kontuak, egoera orri finantzarioak edo jarraipenerako egoera orriak.
- b) Jarraipena egitea eragiketa indibidualizatuei eta konkretuei.
- c) Egiaztatzea egintza multzo baten alderdi partzialak eta konkretuak.
- d) Materialki ziurtatzea obrak, zerbitzuak, hornidurak eta gastuak benetan eta behar bezala gauzatu direla.
- e) Aztertzea kudeaketako sistemak eta prozedurak.



f) Berrikustea beharrezkoak diren kudeaketako sistema informatikoak.

g) Beste egiaztapen batzuk egitea, kontuan hartuta organo kudeatzaileak egindako jarduera ekonomiko-finantzarioen ezaugarri bereziak eta haien helburuak.

Sarrerei dagokienez, kontrol iraunkorreko jarduerak urtean behin gutxienez laginketa-teknikak erabiliz egingo dira.

Era berean, gastuei dagokienez, oinarrizko betekizunen aldez aurreko fiskalizazio mugatuko araubidearen bidez gauzatuko da. Ildo horretan, urtean behin gutxienez, langileen nomina-espeditenteak, kontratazioa eta dirulaguntzak aukeratuko dira, laginketa-teknikak aplikatuz. Dirulaguntzei dagokienez, finantza-kontrolaren bidez aztertuko dira horretarako hautatutako justifikazio-kontuak.

2021eko ekitaldiari dagozkion finantza-kontrol iraunkorraren jarduera planifikagarriak hautatzerakoan, Kontuhartzaitzak erakundearen sektore publikoari buruz duen ezagutzaz gain, aurreko ekitaldietako auditoretza-txostenak eta egindako ingera edo eragozpenak eta oharrak hartu dira kontuan.

Egin beharreko jarduerak kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eremu hauetan sailkatu dira:

### EGOERA FINANTZARIOAK

Balantzeari, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuari, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriari eta diruzaintzako gerakinari dagokienez:

- Ziurtatzea, laginketako tekniken bidez, organo kudeatzaileek kontabilitate informazioaren euskarri gisa emandako garrantzi ekonomikoko datuek eta informazioak arrazoizko modu batean islatzen dutela haien jarduera ekonomiko-finantzarioaren barruan egindako eragiketen emaitza.
- Kontrol jardunak egitea, ahalbidetuko dutenak finantza-informazioaren aurkezpen egokiari eta aplikatzekoak diren kontabilitateko printzipio eta irizpideak betetzeari buruzko informazioa ematea.

### GASTUAK

Pertsonaleko gastuei dagokienez (1. kapitulua): aparteko zerbitzuengatik onartzen diren haborokinak edo gratifikazioak aztertzea. Zeintzuk, zenbatero eta zein kontzeptutan jasotzen diren, eta jasotzen diren kontzeptuak lanpostuaren berariazko osagarrian jasota dauden, eta bete beharreko aparteko orduen mugak errespetatzen diren.





Kontratazioan (2. eta 6. kapituluetan):

- horniduren eta zerbitzuen lizitazio-egoera eta beharren azterketa sakontzea, SPKLren babesean. Zehazki, kontratu txikien bidez zerbitzuak ematen dituzten hornitzaileen urteko fakturazioa aztertuko da. Egiaztapen horiek egiteko, 347. ereduan jasotako informazioaren laginketa-teknikak aplikatuko dira.
- Interpretazio artistikoko kontratuak aztertzea: erabili diren kontratu mota eta prozedurak.

Dirulaguntzei dagokienez (4. eta 7. kapituluak), egiaztatuko da dirulaguntzaren justifikazioa behar bezala aurkeztu dela eta indarrean dagoen araudia betetzen duela. Hain zuzen ere, 2021erako:

- Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko udal laguntzen justifikazioa egiaztatzea.
- Hezkuntza Sailean norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko prozedura eta justifikazio kontua egiaztatzea.
- Kultura Sailean norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko prozedura egiaztatzea.

## SARRERAK

- Laginketa-tekniken bidez, diru-sarreraren bajak eta baliogabetzeak etengabe kontrolatuko dira.
- Diru-sarreraren itzulketak araudiaren arabera egin direla eta behar bezala justifikatu direla egiaztatzea.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren likidazio-prozedura egiaztatzea (EIOZ)

32/2018 Foru Dekretuaren 4.3 artikulua arabera, organo kontu-hartzailea, toki entitatetik kanpo kontratatutako bitartekoen lankidetzaz baliatu ahal izango da finantza-kontrola egiteko.

Horretan oinarrituta, eta hautatutako jarduketa guztiak gauzatu ahal izateko baliabiderik ez dagoenez, kanpoko baliabideak kontratatzea proposatzen da, Kontuhartzaitzari etengabeko finantza-kontrola egiten laguntzeko, bai zeregin espezifikoak aztertzeari dagokionez, bai auditoretza- eta laginketa-teknikak aplikatzeari dagokionez.

## **5.2- Auditoretza publikoa**

### *5.2.1- Kontuen auditoretzaren esparru subjektiboa*



- Kapital sozialean Udalaren partaidetza nagusia duten sozietate publikoak (Tolargi SL eta Tolosa Gasa SA).

#### 5.2.2.- *Betetze auditoretzaren eta auditoretza operatiboaren esparru subjektiboa.*

- Kapital sozialean Udalaren partaidetza nagusia duten sozietate publikoak (Tolargi SL eta Tolosa Gasa SA).

#### 5.2.3- *Kontuen auditoretzaren esparru objektiboa*

##### Tolargi SL

Kontuen auditoretzak erakundearen finantza-, ondare- eta aurrekontu-egoerak aztertuko ditu, egiaztatzeko, alderatzeko, baieztatzeko, aztertzeko eta egokitzen jotzen den beste edozein prozedura erabiliz, horien bidez erakundearen ondare-egoera, eragiketen emaitzak eta aurrekontuaren likidazioa behar bezala islatzen diren edo ez iritzia emateko, kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideen arabera, aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorritik.

Era berean, barne-kontrolako sistemak ebaluatuko ditu, kontabilitate- eta administrazio-prozedurei, eragiketarak antolatu eta baimentzeko, gauzatzeko eta kontrolatzeko dagokienez, eta, hala badagokio, horiek hobetzeko egokitzen jotzen diren iradokizunak egingo ditu.

##### Tolosa Gasa SA

Kontuen auditoretzak erakundearen finantza-, ondare- eta aurrekontu-egoerak aztertuko ditu, egiaztatzeko, alderatzeko, baieztatzeko, aztertzeko eta egokitzen jotzen den beste edozein prozedura erabiliz, horien bidez erakundearen ondare-egoera, eragiketen emaitzak eta aurrekontuaren likidazioa behar bezala islatzen diren edo ez iritzia emateko, kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideen arabera, aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorritik.

Era berean, barne-kontrolako sistemak ebaluatuko ditu, kontabilitate- eta administrazio-prozedurei, eragiketarak antolatu eta baimentzeko, gauzatzeko eta kontrolatzeko dagokienez, eta, hala badagokio, horiek hobetzeko egokitzen jotzen diren iradokizunak egingo ditu.

#### 5.2.4- *Betetze auditoretzaren esparru objektiboa*

##### Tolargi SL

a). Sozietateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea. Gainera, egiaztatzen beharko da epearen barruan aurkeztu direla 347 eredu (hirugarrenetikiko betebeharrak), 190 eredu (PFEZaren atxikipenak) eta 390 eredu (BEZaren urteko aitortpena).



b). Langileen arloko legeria betetzen dela egiaztatzea, hala badagokio. Zehazki:

b.1). Ekitaldian zehar egindako hautaketa-prozesuak berrikustea (merezimenduen balorazioa, publizitatea ...).

b.2). Soldatak berrikustea, aplikatu beharreko arau-esparruaren arabera.

b.3). Soldata-kontzeptu aldakorrak berrikustea.

c). Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea, dagoeneko gauzatutako kontratuetan jarraitutako prozedurei buruz. Kontratu horien zenbatekoak 40.000,00 eurotik gorakoak dira obretan (BEZik gabe), eta 15.000,00 eurotik gorakoak zerbitzu eta horniduretan (BEZik gabe).

d). Artikulu honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 118. artikulua, kontratu txikiei buruzkoa. Egiaztapen horiek egiteko, 347. ereduan jasotako informazioaren laginketa-teknikak aplikatuko dira.

e). Hala badagokio, dirulaguntzak emateko prozeduren eta araudiaren izaera egiaztatzea.

#### Tolosa Gasa SA

a). Sozietateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea. Gainera, egiaztatu beharko da epearen barruan aurkeztu direla 347 eredua (hirugarrenetikiko betebeharrak), 190 eredua (PFEZaren atxikipenak) eta 390 eredua (BEZaren urteko aitorpena).

b). Langileen arloko legeria betetzen dela egiaztatzea, hala badagokio. Zehazki:

b.1). Ekitaldian zehar egindako hautaketa-prozesuak berrikustea (merezimenduen balorazioa, publizitatea ...).

b.2). Soldatak berrikustea, aplikatu beharreko arau-esparruaren arabera.

b.3). Soldata-kontzeptu aldakorrak berrikustea.

c). Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea, dagoeneko gauzatutako kontratuetan jarraitutako prozedurei buruz. Kontratu horien zenbatekoak 40.000,00 eurotik gorakoak dira obretan (BEZik gabe), eta 15.000,00 eurotik gorakoak zerbitzu eta horniduretan (BEZik gabe).

d). Artikulu honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 118. artikulua, kontratu txikiei buruzkoa. Egiaztapen horiek egiteko, 347. ereduan jasotako informazioaren laginketa-teknikak aplikatuko dira.

e). Hala badagokio, dirulaguntzak emateko prozeduren eta araudiaren izaera egiaztatzea.



### 5.2.5- Auditoretza operatiboaren esparru objektiboa

Toki-erakundearen sektore publikoaren barruan dauden sozietate guztientzat (Tolargi SL eta Tolosa Gasa SA), honako zeregin hauek egingo dira:

- a) Gastuak estatutuen xedeetara egokitzen direla egiaztatzea.
- b) Gastuak eta sarrerak aurrekontuei egokitzen zaizkiela egiaztatzea.
- c). Finantza-iraunkortasuna aztertzea.
- d) Desegiteko kausarik dagoen aztertzea.

### 5.2.6- Exekuzioa eta lankidetzak auditoretza publikoan

Auditoretza publikoaren exekuzioa 32/2018 Foru Dekretuaren 33. artikuluan dago araututa:

*«1. Auditoretza publikoko jarduketak sektore publikoko auditoretza arauen menpe egongo dira, bereziki alderdi hauei dagokienez: lanaren exekuzioa; txostenen prestaketa, edukia eta aurkezpena; beste auditore batzuen lankidetzak; eta auditoretza publikoko lanen kalitatea eta homogeneotasuna ziurtatzeko behar diren beste alderdi batzuk.*

*2. Organo kontu-hartzaileak jarduketak hasiko direla jakinaraziko dio, idatziz, auditatutako zerbitzu, organo, organismo edo entitateko titularrari. Auditoretzako lanek barnean hartzen dituztenean beste kontrol organo eskuordetu baten jarduketa eremuaren barruan egitekoak diren jarduketak, kontrol organo horretako titularrari jakinaraziko zaio jarduketak hasiko direla.*

*Era berean, auditoretzari lotutakoak ez diren beste zerbitzu, organo, organismo edo entitate batzuetan jarduketak egitea beharrezkoa denean, hala jakinaraziko zaio zerbitzu, organo, organismo edo entitate horretako titularrari.»*

Auditoretza-jarduketetako lankidetzak 32/2018 Foru Dekretuaren 34. artikuluan dago aurreikusita:

*«1. Organo kontu-hartzaileak proposatuta, auditoretza publikoak egiteko, toki entitateek lankidetzak publikoak edo pribatuak lortu ahal izango dute ondorengo apartatuetan jasotakoaren arabera. Horretarako, toki entitateen aurrekontuetan, lankidetzak beharrak asetzeko nahikoak diren kopuruak jasoko dira.*

*2. Auditoretza publikoko jarduketak egiteko, toki entitateek beste organo publikoen lankidetzak lortu ahal izango dute, bai eta hitzarmenak sinatu ere.*

*3. Era berean, organo kontu-hartzailearekin lankidetzan aritzeko, toki entitateek auditoretza pribatuko zerbitzuak kontratatu ahal izango ditu, betiere organo kontu-hartzaileak emandako jarraibideen arabera.*



*Auditoretza pribatuko zerbitzuak gehienez bi urterako kontratatuko dira, sektore publikoko kontratuen legerian jasotakoaren arabera luzatuta. Halere, lan horiek asko jota zortzi urtez egin ahal izango dira, luzapenaldiak barne, entitate beraren gainean elkarren segidako kontratazioen bidez, eta, horretarako, zerbitzu horiek ezin izango dira entitate beraren gainean lanak egiteko kontratatu harik eta bi urte igaro arte zortzi urteko epea amaitzen denetik aurrera.*

*Ezin izango dira kontratatu, organo kontu-hartzailearekin lankidetzan aritzeko, auditoretza egingo den urte berean edo aurreko urtean entitatearentzat auditoretza txostenean iritzia eman behar duten arlo edo gaien inguruan beste lan batzuk egin edo egiten dituzten auditoretza sozietateak eta kontu auditoreak».*

Bitarteko material eta pertsonal egokirik ez dagoenez, eta 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, Tolosako Udaleko Kontuhartzaitzaren asmoa da Udalak zuzenean kanpoko auditoreak kontrata ditzan bultzatzea, kontuen auditoretzak, betetze auditoretzak eta auditoretza operatiboak egiteko.

### **III parte. Finantza-kontrolaren emaitzak, ondorioztapenak eta ondorioak**

32/2018 Foru Dekretuaren 35.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, «kontrol iraunkorreko jarduketan eta auditoretza bakoitzaren emaitza idatzizko txostenetan dokumentatuko da. Haietan, modu argi, objektibo eta neurtuan azalduko dira egiaztatutako gertakariak, lortutako ondorioak eta, hala badagokio, kontrolpeko jarduketei buruzko gomendioak. Era berean, berehalako jarduketa zuzentzaile baten bidez zuzendu beharreko akatsak adieraziko dira, eta hura gauzatu dela ziurtatu beharko da ondorengo kontrol jarduketetan».

Finantza-kontrolaren emaitzak idatzizko txostenetan dokumentatuko dira, eta txosten horiek dagozkien erakundeei, alkateari eta osoko bilkurari jakinaraziko zaizkie, jakinaren gainean egon daitezen. Osoko bilkurak gai-zerrendatik aparteko puntu bat eskainiko dio azterketari. Zehazki, Udaleko kontuhartzaitzak urteko txosten laburtzaile bat egingo du, emaitzarik esanguratsuenak bilduko dituena, eta osoko bilkurari aurkeztuko dio kontu orokorra onartzen den unean bertan.

Azkenik, 32/2018 Foru Dekretuaren 38. artikuluan ezarritakoaren arabera, «Toki entitateko lehendakariak ekintza plan bat formalizatuko du, eta bertan barnean hartuko dira aurreko artikuluan aipatutako txosten laburtzailean agerian jartzen diren ahuleziak, akatsak, erroreak eta ez-betetzeak zuzentzeko hartu beharreko neurriak». Ekintza-plana gehienez ere 3 hilabeteko epean egingo da, txosten laburtzailea osoko bilkurara bidaltzen denetik zenbatzen hasita, ezarri beharreko neurri zuzentzaile eta prebentiboekin, neurri horiek aplikatzeko arduradunekin eta inplementazio-egutegiarekin batera.

Udalbatza osoa jakin gainean geratu da.



## **16.- ERAGOZPEN EDO INGIREN KONTRAKO EBAZPENEN URTEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

Udal kontuhartzaile akzidentalak gai honen berri eman die batzarkideei:

### **1.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, 15. artikulua.

### **2.- TXOSTENA**

Aurrekontua gauzatzeko arauan ezarritako maiztasunarekin edo, hura ezean, Kontu Orokorra onartzen denean, kontu-hartzaileak osoko bilkurari aurkeztuko dio alkateak eta osoko bilkurak eragozpenen kontra, edo Foru Aldundiko kontrol organoak egindako txostenen aurka, hartutako erabaki guztien urteko txosten bat eta sarreraren arloan hautemandako anomalia nagusien laburpen bat.

#### **2.1. Eragozpenen aurkako ebazpenak**

Txostena eginkizun kontu-hartzailearen ariketari lotutako alderdi eta zereginei buruzkoa izango da bakarrik, eta ez da baloratuko bertan fiskalizatzen diren jarduketak egokiak edo komenigarriak diren.

Txostenean bereizi beharko da eragozpenen artean zeintzuk diren etenarazleak eta zeintzuk ez.

Alkateak bere txosten frogagarria aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

Osoko bilkurari informatu ondoren, kontu orokorra egiten denean, kontuhartzaileak urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari bidaliko dio informazio hori.



## ETETEKO ERAGOZPENEN AURKAKO EBAZPENAK

Data	Ebazlea	Gaiaren azalpena	Fiskalizazio txostena	Zenbatekoa
2021/2/19	Alkatea (Dk 2021/383)	Gastua kontraturik gabe egin da	2021/1	13.915,00
2021/2/25	Alkatea (Dk 2021/516)	Obligazioak ez dagokie onartu eta erabilitako gastuei	2021/2	2.128,89
2021/3/26	Alkatea (Dk 2021/644)	Kontratu txikien gehieneko zenbatekoa gainditu	2021/3	41.459,92
2021/3/26	Alkatea (Dk 2021/873)	Kontratu txikien gehieneko zenbatekoa gainditu	2021/4	5.695,95
2022/1/11	Alkatea (Dk 2022/1858)	Dirulaguntzaren zuriketa ez da egokia izan	2021/6	670,47
2022/1/17	Alkatea (Dk 2022/110)	Kontratu txikien moduz tramitatu da legearen aurka	2021/7	4.356,00
2021/9/1	Alkatea (Dk 2021/1486)	Kontratuaren baldintzak bete gabe onartutako gastua	2021/8	17.325,00

## EZ ETETEKO ERAGOZPENEN AURKAKO EBAZPENAK

Ez dago.

## KONTU-HARTZE EGINKIZUNA EZ BETETZEA

Ez dago.

### **2.2. Sarreraren arloko anomalia nagusiak.**

## HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

Konstituzio Auzitegiaren 2017ko otsailaren 16ko epaiak, Gipuzkoako hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren 16/1989 Foru Arauaren hainbat artikulua deuseztatu zituen, balio gehikuntzarik gabeko egoerak zergapetzen zituelako.

Momentu hartan erabaki zen hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak ez egitea, eta orduz geroztik ez dira likidaziorik egin, salbuespenak salbuespen. Soilik egin dira zerga kuota zehazteko udalak duen eskubidea preskribatzeko arriskuan zeudenak.

2021eko irailean likidazioak egiten hasi ziren.

Konstituzio Auzitegiak 2021eko urriaren 26ean 182/2021 epaia onartu zuen. Epaia horretan, Hiri-Lurren Gehikuntzaren gaineko Zergaren zerga oinarria kuantifikatzeko



metodoari buruzko artikulu jakin batzuen Konstituzio-aurkakotasuna eta deuseztasuna deklaratu zuen. Epai horrek formalki Gipuzkoako araudiari zuzenean eragiten ez badio ere 2021eko azaroaren 16an onartu zen 7/2021 Foru Dekretu-Araua, Hiri-Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzeko.

Azken hori kontutan izanda, bi egoeratan aurkitu zen Udala. 2021eko azaroaren 16a baino lehenagoko eskriturak eta ondorengoak. Lehenengoak, momentuan ez likidatzea erabaki zen, segurtasun juridikoa bermatze aldera zuhurrena ez likidatzea zela aipatu baitzuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Bigarrenagoak, ezin izan dira likidatu arau berria ez baitzegoen egokituta programa informatikoan.

Beraz, 2021eko abenduaren 31ko egoera ondokoa da: 2.150 eskritura inguru daude aztertzeko, 2017-2021 ekitaldiei dagozkienak.

Udalbatzaren Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.

### **17.- BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA: TOLOSAKO UDALAK SORTZEA BAZTERKERIA EGOERAN DAUDENENTZAT GAUEKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUA BERARIAZKO ZERBITZU PUBLIKO GISA.**

Udalbatzako kideek gai honen berri izan dute:

Udalbatzarrak, 2022ko maiatzaren 26an egindako Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion akordio honi:

«**LEHENA.**- Bazterkeria egoeran daudenentzat gaueko eta eguneko arretarako udal-zerbitzua Tolosako Udalak bere gain hartzea, berariazko zerbitzu publiko gisa. Zerbitzu hau zeharkako eran kudeatuko da, zerbitzu-kontratu baten bitartez.

**BIGARRENA.**- Zerbitzu publiko honen oinarritzko araubideari, memoriari eta txostenei hasierako onarpena ematea, eta jendaurrean jartzea, hogeitahamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, herritarrek alegazioak aurkez ditzaten.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

**LAUGARRENA.**-Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela.





**BOSGARRENA.-** Enperadore kaleko 7ko etxabeen dagoen lokala zerbitzu horretara adskribitzea, eta izapideak egitea lokalaren erabilera kontratatzeko.

**SEIGARRENA.-** Erabaki hauen berri ematea Gizarte Zerbitzuetako Sailari eta Kontuhartzailletza Sailari».

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 85 eta 49.b artikuluek xedatzen dutena betez, onarpen hori jendaurrean jarri da hogeita hamar lanegunez, iragarpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hasierako onespeneko iragarkia hedabide hauetan argitaratu zen joan den 2022ko ekainaren 8an:

- Web orrian
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean
- Iragarki-taulan

Informazio publikoko epea 2022ko ekainaren 9tik 2022kouztailaren 21era izan da, eta tarte horretan ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, laugarren xedapenean jaso zen moduan, akordioa behin betiko onartutzat ematen da.

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## **GAI ZERRENDATIK KANPO: MOZIOAK**

Udal idazkariak azaldu du gai zerrendatik kanpo bi mozio aurkeztu direla osasun publikoa indartzeko ingurukoak, bata, EHBILDUK aurkeztua, eta bestea, EAJ-PNV taldeak aurkeztutakoa, baina horrek eskatzen duela aurretik premiatasuna berrestea. Udalbatzak, aho batez, gaiaren premiatasuna onartu du.

Ondoren mozio hauek aztertu eta bozkatu dira:

EH-BILDUK aurkeztutako mozioa:

### **1. MOZIOA: OSAKIDETZAKO HERRIETAKO ANBULATORIOEN ITXIERAREN AURKAKO ETA OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEA ESKATZEKO MOZIOA**

Osasun Sistema Publikoan, Osakidetzan gertatzen ari dena ez da berria. Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakien ondorio da:



Etenik Gabeko Arreta Guneak, PAC delakoak, itxi dira, edo ordutegiak murriztu dira.

Osasun etxeetan izugarriko profesional gabezia daga. Ondorioz, profesional batek, gainerakoen agendak bete behar izaten ditu eta egunerokotasunean 45 kontsulta izatera bel daiteke. Egoera horretan ezinezkoa da pazienteei kalitatezko arreta bermatzea.

Hainbat eta hainbat osasun etxeetan azken urte luzeetan eskaini diren eta egonkortuta zeuden zerbitzuak ixten edo murrizten ari dira.

Aurrez-aurreko kontsulta lortzea gero eta zailagoa izaten da. Atzerapenak nabarmen areagotu dira.

Adinekoen eta kronikoen jarraipenerako gero eta zailtasun handiagoak daude. Osasun sustapena bertan behera geratzen joan da edo ez da behar bezala garatu.

Hau guztia ez da pandemiaren errua, ez zen pandemiarekin hasi. Murrizketak eta planifikazio eza, eta osasun sistema publikoa ahultzeko eta pribatuaren alde egiteko estrategia aspaldiko kontuak dira. Osasun sistema publikoan eman diren atzerapausoak gero eta nabarmenagoak izan dira, bereziki 2018tik gaurdaino. Eta honen guztiaren ondorioak herritarrok (pazienteok) jasaren ditugu.

Pandemian denok ikusi dugu zein garrantzitsua den kalitatezko lehen mailako arreta izatea, baina, sistema hori indartu beharrean, Jaurlaritza kontrakoa egiten ari da.

Herri askotan medikura joateko beste herri edo hiri batera joan beharko dute. Hori ez da aldaketa kultural bat, oinarrizko eskubide baten aurkako eraso bat baizik, pertsona guztiok kalitatezko osasun arreta publikoa jasotzeko eskubidea dugulako, eta hori da orain arriskuan dagoena.

Tolosaldean egoera hau are larriagoa da. Ezin dugu ahaztu Tolosaldea dela eskualdeko ospitale publikorik ez duen eskualde bakarra, non enpresa pribatu batek Osakidetza eman beharreko zerbitzu publikoa hitzarmen bidez ematen duen. Negozioan oinarritutako eredu honen ondorioz urte asko daramatzagu oinarrizko osasun zerbitzuen gabezia pairatzen, etekin ekonomikoa herritarren osasun eskubidearen ginetik kokatu baita. Asuncionen inguruan arazoak arazoaren ginetik izaten ari dira eta egoera honetan kaltetuenak herritarrek izaten ari dira.

Hori dela eta, Tolosako Udalbatzak:



1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio urte osoan zehar, uda sasoian barne, herri honetako osasun sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak bermatu ditzala.

2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehentasunez mediku egoiliarren kontratazio-eredua aldatu dezala, kontratu egonkorak eta lehen arretan euren garapen profesionalerako ibilbidea ahalbidetuko dutenak bermatuz.

Halaber, gainerako osasun profesionalen kontratazio baldintzak hobetzeko xedearekin, aztertzea Osakidetzan kontratazio irizpideak aldatzea, beti ere egonkortasuna eta garapen profesionala sustatuz, horrela Osakidetza erakargarriago bilakatzeko eta indartzeko .

3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lehen Arreta eskaintzen duten mediku, erizain eta gainerako osasun profesional kopurua handitu dezala. Diziplina anitzeko lantaldeak sortuz, non beste profil profesional batzuk txertatuko diren, hala nola geriatrak, fisioterapeutak eta ariketa fisikoaren arloko profesionalak.

4.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bermatu dezala Invizarekin duen hitzarmena betetzen dela, langileen kopurua eta lan baldintza duinak, eta herritarrei legez dagokien kalitatezko osasun arreta jasotzen dutela ziurtatuz.

5.- Tolosako Udalak aurreko puntu hauen guztien jarraipena egiteko konpromisoa hartzen du.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturata), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Xabier Martinez Quinquilla.

**Kontrako botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose Maria Villanueva Telleria

**Beraz, Udalbatzak gehiengoz ez du onartu EH-BILDUK aurkeztutako mozioa.**

EAJ-PNV eta PSE-PSOEK aurkeztutako mozioa:

## 2.- OSASUN PUBLIKOA INDARTZEKO MOZIOA



Eusko Jaurlaritzako Osasun Saiaren eginkizuna osasungintza sistema kudeatzea eta Euskadin bizi diren pertsonen osasuna babestea da. Gaur egungo ingurumarian osasuna babesteko eta zaintzeko hainbat neurri betetzea derrigorrezkotzat jotzen dugu:

1.- Tolosako Udalak Osasun Sailari eskatzen dio berma dezala urte osoan, baita udan ere, herrialde honetako osasun-sistema publikoak eskaintzen duen asistentzia.

2.- Tolosako Udalak Osasun Sailari eskatzen dio urtero prestakuntza-eskaintza egiaztatu guztia eskaini dezala, datozen urteotan Osakidetzako profesionalen arteko belaunaldi-txandari erantzun ahal izateko.

Era berean, Osasun Sailari eskatzen dio prestakuntza amaitzean lan-kontratu bat eskaini dezala, kalitatezko enpleguaren alde egiten duen apustuaren parametroen barruan, Euskadiko osasun arretaren sistema indartzen jarraitzeko beharrezkoak diren pertsona guztiei.

3.- Tolosako Udalak Osasun Sailari eskatzen dio Osakidetzako plantilla berritzeko, egonkortzeko eta, beharrezkoa den neurrian, handitzeko politikarekin jarrai dezala, XII. legegintzaldirako Gobernu Programako konpromisoak betetzeko, eta, zentzu horretan, Lehen Mailako Arretari dagokionez, plaza hutsen eskaintzari eutsi eta hura zabal dezala, plaza horiek bete daitezzen bultzatzeko. Era berean, Lehen Mailako Arretako Estrategian (fisioterapia, farmazia komunitarioa) aurreikusitako profil profesional berriak ezartzen jarraituko du, osasunaren zaintza integrala hobetzeko apustuarekin bat etorriz.

4.- Tolosako Udalak Osasun Sailari eskatzen dio amai ditzala dagoeneko onartuta eta deitura dauden lanen deialdi publikoen prozesuak, plantillen jarraitutasuna eta egonkortasuna bermatzeko, eta, aldi berean, lanean jarrai dezala hurrengo urteko lan-eskaintza publikoa eta deialdiak onartzeko, behin behinekotasuna murrizteko eta enplegu egonkorra eta kalitatekoa bultzatzeko konpromisoarekin bat etorriz.

5. Azkenik, Tolosako Udalak Osasun sailari eskatzen dio eskualdean titulartasun publikoko ospitale publikoa izan bitartean, Inbiza-rekin egun dagoen hitzarmenaren jarraipena egin dezala, Tolosaldeko herritarrok Asuncion Klinikaren bidez osasun arrela egokia izateko: publikoa, kalitatezkoa, unibertsala eta doakoa.

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose Maria Villanueva Telleria

**Aurkako botoak:** Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturik), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe



Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak **gehiengoz onartu du** EAJ-PNV eta PSE-PSOEk aurkeztutako mozioa.

### **18.- GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Puntu honetan ez da ezer adierazi.

**Besterik gabe, 21:35ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.**

**ALKATEA**  
O. e.

**IDAZKARIA**



TOLOSAKO  
UDALA



2022IPLE0008

# ERANSKINA

ESKU0c9df38a-d586-4112-bcd0-876d53677d73



TOLOSAKO  
UDALA

2022iIPLE0008

**UZTURRE ASISTENTZIA GUNEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUEN PREZIOEN EGUNERATZEA: 2018-2019-2020 ETA 2021 URTEAK.**

01/04/2022

IPC EUSKADI	%	FUENTE INE		KPI METATUA
2014	-0,70 %	IPC-DIC-13	IPC-DIC-14	-0,70%
2015	0,30 %	IPC-DIC-14	IPC-DIC-15	-0,40%
2016	1,50 %	IPC-DIC-15	IPC-DIC-16	1,09%
2017	1,10 %	IPC-DIC-16	IPC-DIC-17	2,20%
2018	1,00 %	IPC-DIC-17	IPC-DIC-18	3,23%
2019	1,20 %	IPC-DIC-18	IPC-DIC-19	4,46%
2020	-0,30 %	IPC-DIC-19	IPC-DIC-20	4,15%
2021	<b>6,40 %</b>	IPC-DIC-20	<b>IPC-dic-21</b>	10,82%
	0,105	10,8% SUBIDA TARIFAS		

ESKU0c9df8a-d586-4112-bcd0-876d53677d73



TOLOSAKO  
UDALA

2022iIPLE0008

ETXEBIZITZA KOMUNITARIOA	UDALA	KPI	KPI METATUA	ONARTUTA ZEGOENA	KPI-AREKIN	KOBRATU ZUENA	FAKT/ KOBRATU ZUENA	Kobratu zuena/ KPlarekin	Kobratu zuena/ Kpi-arekin
-----------------------------	-------	-----	-------------	---------------------	------------	------------------	---------------------------	-----------------------------	---------------------------------

VIVIENDA-599,78 X 12 USUARIOS 86.627,52

X 12 MESES

2018	58.749,49	1,10 %	2,20%	599,78	613,00	601,58	97,66	1,86%	1.092,74	1,86%
2019	62.857,00	1,00 %	3,23%	599,78	619,13	601,58	104,49	2,83%	1.778,85	2,83%
2020	63.439,91	1,20 %	4,46%	599,78	626,56	601,58	105,46	3,99%	2.531,25	3,99%
2021	65.106,48	-0,30 %	4,15%	599,78	624,68	601,58	108,23	3,70%	2.408,94	3,70%
2022 martxo arte	16.276,62		4,15%	599,78	624,68	601,58	27,06	3,70%	602,23	3,70%

8.414,02

ZENTRO SOZIALA (ALOKAIRUA)	UDALA	KPI		ONARTUTA ZEGOENA	KPI-AREKIN	KOBRATU ZUENA	FAKT/ KOBRATU ZUENA	Kobratu zuena/ KPlarekin	-	Kobratu zuena/ KPlarekin
-------------------------------	-------	-----	--	---------------------	------------	------------------	---------------------------	--------------------------------	---	--------------------------------

ALQUILER LOCAL-208,19€ X 12 MESES

2018	2.505,72 €	1,10 %		208,19	212,78	208,81	12,00	1,86%	46,61	1,86%
2019	2.505,72 €	1,00 %		208,19	214,91	208,81	12,00	2,84%	70,91	2,83%
2020	2.505,72 €	1,20 %		208,19	217,48	208,81	12,00	3,99%	99,98	3,99%
2021	2.505,72 €	-0,30 %		208,19	216,83	208,81	12,00	3,70%	92,71	3,70%
2022 martxo arte	626,43 €	-0,30 %		208,19	216,83	208,81	3,00	3,70%	23,18	3,70%

333,39

ESKU0c9df8a-d586-4112-bcd0-876d53677d73





TOLOSAKO  
UDALA

2022iIPLE0008

APARTAMENTUAK	UDALA	KPI		ONARTUTA ZEGOENA	KPI-AREKIN	KOBRATU ZUENA	FAKT/ KOBRATU ZUENA	Kobratu zuena/ KPlarekin	-	Kobratu zuena/ KPlarekin
---------------	-------	-----	--	------------------	------------	---------------	---------------------	--------------------------	---	--------------------------

ALQUILER-538,36 X 6 USUARIOS X 12 MESES

2018	19.496,51	1,10 %		538,36	550,22	539,98	36,11	1,86%	362,64	1,86%
2019	23.346,86	1,00 %		538,36	555,73	539,98	43,24	2,83%	660,72	2,83%
2020	28.041,22	1,20 %		538,36	562,40	539,98	51,93	3,99%	1.118,84	3,99%
2021	24.441,16	-0,30 %		538,36	560,71	539,98	45,26	3,70%	904,32	3,70%
2022 martxo arte	4.236,27	-0,30 % 6,70 %		538,36	560,71	539,98	7,85	3,70%	156,74	3,70%

3.203,26

JANGELA	UDALA	KPI	0,00	ONARTUTA ZEGOENA	KPI-AREKIN	KOBRATU ZUENA	FAKT/ KOBRATU ZUENA	Kobratu zuena/ KPlarekin	-	Kobratu zuena/ KPlarekin
---------	-------	-----	------	------------------	------------	---------------	---------------------	--------------------------	---	--------------------------

2018	8.306,69 €	1,10 %						1,86%	154,50	1,86%
2019	10.983,65 €	1,00 %						2,83%	310,84	2,83%
2020	9.556,21 €	1,20 %						3,99%	381,29	3,99%
2021	9.086,14 €	-0,30 %						3,70%	336,19	3,70%
2022 martxo arte	2.253,84 €	-0,30 %						3,70%	83,39	3,70%

1.266,21

EELZ	UDALA	KPI		ONARTUTA ZEGOENA	KPI-AREKIN	KOBRATU ZUENA	FAKT/ KOBRATU ZUENA	Kobratu zuen/ KPlarekin	-	Kobratu zuen/ KPlarekin
------	-------	-----	--	---------------------	------------	------------------	---------------------------	-------------------------------	---	-------------------------------

Ordua XX

2018	30.153,14 €	1,10 %						1,86%	560,85	1,86%
2019	26.646,17 €	1,00 %						2,83%	754,09	2,83%
2020	20.715,18 €	1,20 %						3,99%	826,54	3,99%
2021	21.024,76 €	-0,30 %						3,70%	777,92	3,70%
2022 martxo arte	5.514,73 €	-0,30 %						3,70%	204,05	3,70%

3.123,43

16.340,31



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022IPLE0008-2022-07-28 Ohiko osoko bilkura akta/2022-07-28 Ohiko osoko